



**OIARTZUNGO EMAKUME ETA  
GIZONEN BERDINTASUN  
DIAGNOSTIKOA**

**2018KO AZAROA**

**PROIEKTUAREN LIDERGOA**

---



OIARTZUNGO  
UDALA

**PROIEKTUAREN DINAMIZAZIO TEKNIKOA**

---



## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
2. METODOLOGIA.....	6
3. BIZTANLERIA.....	7
3.1. Biztanleriaren garapena .....	7
3.2. Biztanleriaren banaketa eta dentsitatea.....	8
3.3. Biztanleria adina eta sexuaren arabera.....	10
3.4. Migrazio mugimenduak.....	10
3.5. Laburbilduz: biztanleria .....	13
4. LAN MERKATUA.....	14
4.1. Lan produktiboa .....	14
4.1.1. Langabezia datuen azterketa .....	14
4.2. Enplegua: Oarsoaldea Garapen Agentzia .....	21
4.2.1. Berdintasuna lanerako irizpide moduan .....	22
4.3. Bizitzari eusteko ezinbesteko lanak edo lan erreproduktiboak .....	23
4.4. Laburbilduz: lan merkatua.....	26
5. UDALAREN FUNTZIONAMENDU OROKORRA .....	27
5.1. Udal korporazioa .....	27
5.2. Udal organoak .....	28
5.3. Udal sailak .....	32
5.3.1. Langileen antolaketa .....	32
5.3.2. Langileen mailak eta soldatak .....	33
5.4. Laburbilduz: Udalaren Funtzionamendu Orokorra .....	37
6. HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK.....	38
6.1. Hirigintza arloko jarduera genero ikuspegiaren arabera .....	40
6.1.1. Inklusibotasuna, egunerokotasuna eta partaidetza ardatz .....	40
6.1.2. Biztanle sakabanaketa eta familia bakarreko etxeen eredia: mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna.....	41
6.1.3. Adierazpide sinbolikoak: kaleen izenak .....	43
6.2. Laburbilduz: Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak.....	44
7. GIZARTE ZERBITZUAK .....	46
7.1. Genero ikuspegia gizarte zerbitzuetan.....	47
7.1.1. Zerbitzuak eta erabiltzaileak .....	47

7.2. Laburbilduz: Gizarte Zerbitzuak .....	57
8. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA .....	58
8.1. Laburbilduz: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua .....	61
9. HEZKUNTZA .....	63
9.1. Zentroetako osaketa: lan taldeak eta pertsonala .....	63
9.2. Zentroyen jarduna berdintasun ikuspegitik .....	64
9.3. Laburbilduz: Hezkuntza .....	67
10. KIROLA, GAZTERIA ETA AISIALDIA .....	68
10.1. Sail honen jarduera berdintasun ikuspegitik.....	68
10.2. Kirol arloari lotutako datuak .....	69
10.3. Gazteria eta aisialdiaren arloari loturiko datuak.....	75
11. KULTURA .....	78
11.1. Kultura saileko jarduna berdintasun ikuspegitik.....	78
11.2. Laburbilduz: Kultura .....	83
12. HERRI MUGIMENDUA .....	84
12.1. Mugimendu Feminista .....	84
12.2. Oiarzungo elkarteak eta berdintasun ikuspegia .....	86
12.3. Laburbilduz: Herri mugimendua .....	90

## 1. SARRERA

Eskuarteaz duzun dokumentu hau Oiarzungo emakume eta gizonen egoera genero ikuspegitik aztertzen duen diagnostiko bat da. Bertan herriko emakume eta gizonen egoera parekidea den ala ez aztertzen da, esparru ezberdinak behatu eta adierazle anitzak erabiliaz. Modu honetan, udalerriko egoera gaiarekiko zein den erakusten duen “argazki” bat jaso da, diagnostiko edo txosten honetan, etorkizuneko esku-hartzeak diseinatu ahal izateko. Beraz, Oiarzungo Udalak berdintasunaren aldeko estrategien alde egin duenez, eta diagnostiko hau oinarri hartuta, helburua Oiarzungo I. Politika Feministen Plana eraiki eta martxan jartzea izango da.

Diagnostiko hau, aldi berean, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legean oinarritzen da, zeinaren bidez berdintasun planak eta diagnostikoak egiteko egitura orokor bat ezartzen den.

2008an egin zen Oiarzungo emakume eta gizonen lehenengo berdintasun diagnostikoa, baina lanketa honi ez zitzaion jarraipenik eman: ez zen diagnostiko honetatik eratorritako planik burutu, ezta berdintasun sailik eratu ere. 2015ean emakume eta gizonen berdintasunaren gaiari lotutako lanak egiteko ardura Gizarte Zerbitzuen saileko langile batek hartu zuen. “Berdinbidean” proiektuan parte hartzen ere hasi ziren, baina 2017ko udazkenean arte ez da berariazko berdintasun teknikaririk izan udalean. Berdintasun legea 2005ekoa izanik, beharrezkotzat ikusi da lehenbailehen berdintasun politikak ezartzen hastea.

Txosten hau aipatutako 2008ko diagnostiko horretan oinarritzen da, diagnostiko haren mamiari eta egiturari jarraituz eta edukien eguneraketa bat emanaz. Izan ere, orduetik esku hartze sistematikorik egin ez denez, ez dugu uste orduko diagnostikoan jasotako errealitatean aldaketa nabarmenik emango zenik. Horrez gain, bere garaian egin zen diagnostiko hau zabala eta sakona da, lanketa handikoa. Hargatik, txosten honetan zenbait datu eguneratu eta diagnostiko hartan aztertu ez ziren zenbait gai edo eremu gehitzea erabaki da, guztia errepikatu beharrean. Gehitu diren eremuen artean Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen sailaren azterketa legoke. Aldi berean, diagnostiko hartan aztertu ziren beste esparru batzuk ez dira landu, ez baitira udalaren eskumenekoak.

Udalaren aldetik, dauden baliabideak diagnostiko lan potolo bat egitera baino esku hartzea abiatzera bideratzea dela egokiena erabaki da, eta hargatik, Oiarzungo I. Plan Feminista lehenbailehen egiteko beharra lehenetsi da.

Egiturari dagokionez, lehenengo Oiarzungo herriko argazki orokor bat egiten da, biztanleriaren eta lan merkatuaren inguruko datuak bildu eta genero ikuspegitik aztertuz. Ondoren, Oiarzungo Udalaren funtzionamendu orokorra eta Udal honetako sail ezberdinen osaketa eta jardura aztertzen dira, berdintasun ikuspegitik. Honako hauek dira aztertutako sailak: Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuak, Gazteria eta Aisialdia, Kirola eta Eskola Kirola, Kultura eta Hezkuntza (herriko ikastetxeak). Amaitzeko, herri mugimenduari eskainitako atal bat ere dago, zeinetan herriko mugimendu feministari eta herriko elkarte ezberdinei buruz hitz egiten den.

## 2. METODOLOGIA

Diagnostiko hau burutzeko jarraitu den metodologiari dagokionez, lau fase ezberdin izan dituela esan genezake, non gizarte ikerketa metodoetan ezagunak diren teknika kuantitatibo zein kualitatiboak gurutzatu diren.

Lehenengo fasean datu kuantitatiboan bilketa bat egin da, horretarako estatistika iturriak, memoriak edo udaleko sail zein herriko egitura ezberdinetara bidalitako galdetegiak erabiliaz, besteak beste. Saiakera berezia egin da sexuaren arabera banatutako datuak eskuratzeko, baina kasu batzuetan ezinezkoa izan da, datuak jasotzeko sistema askotan ez delako bereizketa hau egiten.

Bigarren fasean lau sakoneko elkarrizketa egin dira, batetik, Udaleko bi sail garrantzitsuetako ordezkariekin, eta bestetik, Oiartzungo Etxez Etxeko Zerbitzuko langileekin zein herriko Mugimendu Feministako kideekin. Modu honetan, informazio kualitatiboa (iritziak, ikuspuntu edo pertzepzioak...) eskuratu da. Hirugarren fasean, analisia burutu da, aurreko bi faseetan jasotako datu kuantitatibo eta kualitatiboak gurutzatuz, eta jasotako informazioaren emaitza eta ondorioak identifikatuz. Azkenik, laugarren fase batean, emaitza eta ondorio hauek jasoko dituen Oiartzungo Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostikoa idatzi da. Laugarren fasean honako txosten hau idatzi da, aurreko fasean identifikatutako emaitza eta ondorioekin.

Txostenaren atal bakoitzaren amaieran, AMIA analisia egin da, aukera, mehatxu, indargune eta ahulguneak biltzen dituen. Analisi eredu honen bidez, landutako arlo edo sail bakoitzak bere barnean dituen indargune eta ahulguneak zein diren jasotzen da, eta aldi berean, bere egituratik at edo bere kontestuan dituen mehatxuak eta aukerak zeintzuk diren zerrendatzen da. Analisi hauen bidez, Oiartzungo I. Plan Feministan ze proposamen txertatu behar diren ondorioztatu da eta hauek zuzenean planera pasatu dira.

1. Datu bilketa	2. Landa lana	3. Analisia	4. Txostena idaztea
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Udaleko sail ezberdinetara zein herriko beste eragile batzuetara bidalitako galdetegien emaitzak</li> <li>- Udaletik jasotako zenbait gairen inguruko datu kuantitatiboak (biztanleria, enplegua...)</li> <li>- Oarsoaldeko Garapen Agentziaren Enplegu sailetik erraztutako datuak</li> <li>- Eustat</li> <li>- Ikuspegi</li> <li>- Lanbide</li> </ul>	<p>Lau sakoneko elkarrizketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hirigintza teknikaria</li> <li>- Gizarte Zerbitzuen saileko arduraduna</li> <li>- Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileak</li> <li>- Herriko mugimendu feministako kideak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Datu kuantitatiboan azterketa estatistikoa</li> <li>- Elkarrizketen hustuketa</li> <li>- Datu kualitatiboan azterketa</li> <li>- Alderaketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurretik identifikatutako emaitza eta ondorioekin txostena idaztea</li> <li>- 2008ko berdintasun diagnostikoaren egituraren arabera</li> <li>- Udaleko berdintasun teknikariarengatik jasotako irizpideen arabera</li> </ul>

### 3. BIZTANLERIA

Berdintasun diagnostiko honen lehen urratsa Oiartzungo biztanleriaren nolakotasunen argazki orokor bat jasotzea izango da. Horretarako, Oiartzungo biztanleen ezaugarri orokorrez gain, sexua eta adinaren arabera banaketa gauzatu eta migrazio-mugimenduen azterketa bat ere egingo dugu.


#### 3.1. Biztanleriaren garapena

Oiartzungo biztanleriaren garapena aztertzeko, 2006tik abiatu eta 5 urtera (2011an eta gero 2016an) eman den egoera aztertu dugu. Azkenik, eskura genituen azken datuak, 2017koak ere gehitu ditugu. Modu honetan lortzen den bilakaerari dagokionez, azken urteetan biztanleria kopuruak gorakada bat izan duela ikus dezakegu: 2006ko 9.700 biztanletik 2017ko 10.290 biztanlera. Gizon eta emakumeen kopuruei dagokionez, berriz, aztertutako urte ia guztietan (2006an ezik) emakumeen kopurua gizonena baino apur bat handiagoa izan da.

URTEA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
<b>2017</b>	5215	5075	10290
<b>2016</b>	5202	5054	10256
<b>2011</b>	5057	5010	10067
<b>2006</b>	4837	4863	9700

1. Taula: Oiartzungo biztanle kopurua sexuaren arabera (2006-2017)  
Iturria: EUSTAT  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

2017ko datuei dagokionez, biztanleria osoaren %50,7 emakumeek eta %49,3 gizonezkoek osatzen dute. Beraz, esan dezakegu bi sexuen arteko kopuruak nahiko orekatuak direla. Hau, azken finean, joera orokor bat litzateke, herri eta eremu gehiagotan ere ematen dena, naturak eta biologiak berak bi sexuen kopuruak orekatzeko baldintzak eragiten dituztelako.



1. Grafikoa: Oiartzungo biztanleria sexuaren arabera (2017)  
Iturria: EUSTAT  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

### 3.2. Biztanleriaren banaketa eta dentsitatea

Oiartzungo biztanleria 8 auzotan banatzen da. Herriko erdigunean daudela kontsideratzen direnak, edo “Oiartzungo Hiria Antolatzeke Plan Orokorrean” (2005) adierazten denez, “udal burutasuna eta burutasun horren jarraitasun eliptikoa osatzen duten auzoak” honako hauek dira: Elizalde (udal-burua), Ugaldetxo, Iturriotz eta Altzibar. Erdigune honen inguruan Arragua, Gurutze, Ergoien, eta azkenik, herriaren hegoaldean, Karrika auzoak izango genituzke. Jarraian dagoen taulan, Oiartzungo biztanleria auzo horien arabera nola zegoen banatua ikusiko dugu 2017. urtean. Tamalez, **ez ditugu datu hauek sexuaren arabera banatuta, Udaletik banaketa hau egiten ez delako.**


AUZOA	BIZTANLE KOPURUA
Elizalde	3496
Altzibar	1648
Arragua	1377
Ugaldetxo	1250
Iturriotz	1141
Ergoien	725
Gurutze	332
Karrika	280
<b>GUZTIRA</b>	<b>10249</b>

1. Taula: Oiartzungo biztanleria auzoka banatuta (2017)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Elizalden biltzen da biztanle gehien (herriko erdi-gunean) eta jarraian Altzibar, Arragua, Ugaldetxo eta Iturriotz auzoetan. Gainerako auzoek, orain aipatutako hauen aldean biztanle kopuru baxuagoak dituzte.



2. Grafikoa: Oiartzungo biztanleria auzoka banatuta (2017)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Jarraian, Oiartzungo biztanleriaren dentsitatea nolakoa den aztertu ahal izateko, herriak ze azalera duen ezagutu behar dugu. Honi dagokionez, azpimarratu behar da Oiartzun Gipuzkoako 4. herri zabalena dela:



POSTUA	HERRIA	AZALERA
1	Oñati	107,31
2	Bergara	75,97
3	Azpeitia	69,39
4	<b>Oiartzun</b>	<b>59,71</b>
5	Ataun	58,73
6	Aia	55,27
7	Azkoitia	54,71
8	Deba	51,54
9	Donostia	50,57
10	Berastegi	45,9

3. Taula: Azalerarik handiena duten Gipuzkoako lehen 10 herriak  
 Iturria: "Infolaso, tablas de datos estadísticos"  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Hain azalera handia duten herriek, normalean (biztanleria kopuru oso handiak ez badituzte behintzat), biztanleria dentsitate tasa oso baxuak izaten dituzte (kilometro karratu bakoitzeko oso biztanle gutxi pilatzen dituzte). Honek eragin nabaria izango du herritarren arteko gertutasun eta kohesio mailan. Hemen 2012tik 2017ra bitartean biztanleria dentsitate tasak izandako aldaketak:

URTEA	BIZTANLE DENTSITATEA (biz./ )
2012	168,43
2013	168,43
2014	168,41
2015	171,41
2016	171,61
2017	172,94

4. Taula: Oiartzungo biztanleria dentsitatea (2012-2017)  
 Iturria: EUSTAT  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea


Dentsitate tasan gorakada bat izaten ari da: 2012tik 2017ra bitartean, 4,51 puntu egin du gora. Hala ere, inguruko beste eremu batzuekin alderatzen badugu, tasa honek nahiko baxua izaten jarraitzen du.

EREMUA	URTEA	BIZTANLE DENTSITATEA (biz./ )
EAE	2017	300,74
Gipuzkoa	2017	360,31
Donostialdea	2017	1.067,55
Oarsoaldea	2016	640,96
Oiartzun	2017	172,94

5. Taula: Eremu ezberdinetako biztanleria dentsitatea (2016-2017)  
 Iturria: EUSTAT eta Oarsoaldea Garapen Agentzia  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea

### 3.3. Biztanleria adina eta sexuaren arabera

Badirudi jaio berrien artean neska baino mutil gehiago dagoela (hau ere joera biologikoa). Hala ere, gainerako adinetan diferentziak ez dira batere handiak edo orekatuak dira. Diferentzia handienak 70 urtetik aurrerakoan artean hasten dira sortzen, eta adinik altuenetan emakumeen kopurua gizonena baino nabarmen handiagoa da. Dena den, aipatu behar da, Oiartzungo biztanleriaren adinaren datuekin sortzen den piramidea ez dela salbuespen bat eta Gipuzkoako adin-piramidearen joera berak jarraitzen dituela.



2. Grafikoa: Oiartzungo biztanleria piramidea (2017)  
Iturria: EUSTAT  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Bestetik, biztanleriaren zahartze-prozesua dago. Izan ere, jaiotzen den haur kopurua aurreko belaunaldietakoa baino askoz txikiagoa da. Horrek esan nahi du, urteek aurrera egin ahala, biztanleriaren gehiengoa hirugarren adin-tartean kokatuko dela, eta beraz, lanerako adinean dauden pertsonak baino gehiago izango direla. Horrez gain, hirugarren adin tarte horretan geratuko diren gehiengoak emakumezkoak izango direla aurreikusi dezakegu, egun gertatzen den bezala, emakumeen bizi-itxaropena oraindik ere gizonena baino luzeagoa delako.


### 3.4. Migrazio mugimenduak

Migrazio mugimenduei dagokionez, ondorengo grafikoan Oiartzunen urte ezberdinetan bizi izan den biztanle atzerritar edo migratuen kopurua agertzen da. Urte ezberdinetako datuak bilduz, kopuru horren bilakaera zein izan den irudikatzen da.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>EMAKUMEAK</b>	97	98	112	131	138	130	129	243	248	262	195
<b>GIZONAK</b>	141	143	148	143	142	153	160	237	236	247	204
<b>GUZTIRA</b>	238	241	260	274	280	283	289	480	484	509	399

6. Taula: Oiartzunen bizi den atzerritar edo migrari kopurua urtearen eta sexuaren arabera (2008-2018)  
Iturria: IKUSPEGI eta Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea




4. Grafikoa: Oñartzunen bizi den atzerritar edo migrari kopurua urtearen eta sexuaren arabera (2008-2017)

Iturria: Ikuspegi, Inmigrazioaren Euskal Behatokia

Egilea: Farapi Koop. Elkartea


Biztanle migrariaren kopuruaren gorakada batez ere 2014. urtetik aurrera eman da. Gizon-emakumeen kopuruak berriz, azken urtean nahiko antzekoak dira: 2014. urtean Oñartzunen bizi ziren biztanle atzerritar edo migrari gizonetzkoen kopurua emakumeena baino handiagoa bazen ere (160 gizon 129 emakumeren aurrean), 2017. urtean hori aldatu egin dela ikusi dugu. Egun, emakumeen kopurua gizonena baino altuagoa da (262 emakume 247 gizonen aurrean). Udalarari esker jaso ditugun aurtengo (hau da, 2018ko) datuei erreparatzen badiegu, berriz, gizonen kopurua emakumeena baino zertxobait handiagoa dela ikusiko dugu (204 gizon 195 emakumeren aurrean).

Jarraian agertzen den grafikoan, biztanle atzerritar edo migrari hauek jaio diren lurraldearen arabera banatzen dira. Bertan ikus dezakegunez, gehiengoak (%40ak) Europako beste herrialdeetan du jatorria, horien artean errumaniar jatorrikoak izanez nagusi (%39,13koa). Bigarrenik, afrikar jatorrikoak dauzkagu (%27a osatzen dute hauek), hauen artean Marokoar jatorrikoak dira gehienak (%39,62koa). Nigeriar eta Argeliar jatorrikoak ere nahiko ugariak dira hauen artean. Ondoren, amerikar jatorrikoak dauzkagu (%22a osatzen dutelarik), eta beraien artean, Nikaraguar jatorrikoak dira nagusi (atera %28,73koa). Azkenik, Asia (%8) (hauen artean txinatar jatorrikoak dira gehienak, %30,30a hain zuzen) eta Ozeaniakoak ditugu (%1).



3. Grafikoa: Espainiar Estatutik kanpo jaiotako Oiartzungo biztanleak jaiotako lurraldearen arabera (2018)  
Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Jatorriaz gain, etorritakoen sexuan ere erreparatzen badugu, honako datuak jasotzen ditugu:



4. Grafikoa: Espainiar Estatutik kanpo jaiotako Oiartzungo biztanleak jaiotako lurraldearen eta sexuaren arabera (2018)  
Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Emakume atzerritar gehienek European, eta zuzenago esateko, Errumanian dute jatorria (Europako beste herrialdeetatik datozen %37,9 dator Errumaniatik). Horren ondoren, Amerika eta Afrikakoak dira Oiartzuna gerturatzen diren emakume atzerritar gehienak. Ameriketatik datozenen kasuan, gehienak Nikaraguar jatorrikoak dira, hain zuzen ere kontinente horretatik datozen emakumeen %32a. Horrez gain, aipatzekoa da herrialde honetatik datozen gehienak emakumeak direla: guztira iritsi diren 25 nikaraguarretatik 17 emakumezkoak dira eta 8 soilik gizonezkoak. Afrikatik datozenen kasuan, berriz, emakume gehienak marokoarrak dira (Afrikatik etorritako emakume guztien %41,3a, hain zuzen ere). Hala ere, esan beharra dago Nigeriatik eta Argeliatik iristen diren emakumeen kopuruak ere nahiko altuak direla: %23,9a Nigeriatik eta %21,7a Argeliatik baitatoz.

### 3.5. Laburbilduz: biztanleria

<p style="text-align: center;"><b>AHULGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletik jasotzen diren auzoetako biztanleria datuak ez dira sexuaren arabera banatuak jasotzen</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>INDARGUNEAK</b></p>
<p style="text-align: center;"><b>MEHATXUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanle dentsitate tasa baxua</li> <li>• Adinari dagokionez, oraindik biztanleria nahiko gaztea, baina zahartzeko bidean</li> <li>• Emakume gehiago dago adin-tarte zaharrenean eta etorkizunean ere desoreka hau mantenduko da</li> <li>• Auzoen sakabanaketa handia</li> <li>• Biztanle dentsitate baxuak herritarren arteko gertutasuna eta gizarte kohesioa oztopatu</li> <li>• Elizalden gero eta jende gehiago metatzeko arriskua gainerako auzoen kaltetan</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>AUKERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleria kopurua gorantz urtez urte</li> <li>• Emakume eta gizonen kopuruak orekatuak</li> <li>• Adin-tarte ezberdinetan, emakume eta gizonen kopuruak orekatuak (adin-tarte zaharrenean kenduta)</li> <li>• Migrari kopurua gorantz urtez urte</li> <li>• Migrari kopuruak nahiko orekatuak sexuaren arabera</li> </ul>

## 4. LAN MERKATUA

Lan merkatuaren atala bitan banatu dugu: batetik, lan produktiboa aztertuko dugu, eta bestetik, bizitzari eusteko egiten diren lanak edo lan erreproduktiboak. Lan produktiboaren arloa, historikoki, gizonezkoen osatutako arloa izan da, emakumeak etxeko espazio pribatuaren barruan egiten ziren lan erreproduktiboetan gelditzen ziren bitartean. Lan produktiboei balio sozial eta ekonomiko handiagoa aitortu izan zaie, ekonomikoki saritu diren edo soldatapean dauden lanak dira, bizitzari eusteko lanak etxean edo eremu pribatuan ezkutatuak izan diren bitartean. Azken hauen balioa ez da ekonomikoki aitortua edo saritua izan, ezta sozialki baloratua ere. Banaketa hau sistema ekonomiko kapitalistaren baitan errotua eta elikatua izan da, eta sortzen duen desparekidetasun egoera iraultzeko teoria ekonomiko feminista berriak eraiki dira, “bizitzaren zaintza erdigunean” jartzeko behar urgentea aldarrikatzen dutenak, emakume eta gizonek bizi ditugun bizitza sostengaezinak jasagarri egiteko.

Egun hau guztia aldatzen ari bada ere, genero rol tradizionalen eta banaketa horren eraginak nabaritzen dira oraindik. Horregatik, beharrezkoa da eragin hau ematen den eta ze ezparekidetasun sortzen dituen aztertzea, bai lan produktiboaren arloan eta baita bizitzari eusteko lanetan ere.

### 4.1. Lan produktiboa


Lan produktiboaren barruan, langabezia datuen inguruko azterketa (sexua eta adinaren arabera azterketa zein langabetuen lan sektorearena), eta enplegudunei dagokionez, kokatzen diren sektorea, egindako kontratu moten nolakotasunak eta biztanleriaren errentak aztertuko ditugu. Horrez gain, Oarsoaldeko Garapen Agentziatik bideratzen den Enplegu Sailaren jarduna ere aztertuko dugu azaletik. Azterketa guzti hauek berdintasun ikuspegiaren baitatik egin dira.

#### 4.1.1. Langabezia datuen azterketa

Lehendabizi, argi utzi behar da, langabeziari buruz ari garenean, langabezia erregistratuaren datuez ariko garela. Beraz, erregistratu gabe egon litezkeen langabeziaren datuak ez lirateke jasoko atal honetan egiten diren azterketetan.

Biztanleria aktiboaren (16 urtetik gora eta 65etik behera dituztenak eta lan egiteko moduan daudela kontsideratzen denak) eta ez-aktiboaren (16 urtetik behera, 65etik gora edo lan egiteko moduan ez daudela kontsideratzen denak) 2017ko kopuruak erreparatu ditugu. Gipuzkoako kasuan erreparatzen badugu biztanleria ez aktiboaren kopurua aktiboarena baina 12,8 puntu altuagoa dela ikusten dugu. Oiartzungo kasuan, berriz, biztanleria aktibo eta ez aktiboaren artean ez dago ia alderik: 0,25 puntuko aldea dago soilik, eta gainera, aktiboak gailentzen dira (5.113 dira biztanle aktiboak eta 5.062 ez aktiboak). Oiartzungo auzoen artean ere biztanleria aktibo eta ez aktiboaren datuak nahiko orekatuak dira.


**Biztanleria aktiboaren lan egoerari dagokionez**, 2017ko Oiartzungo datuak, urte bereko Gipuzkoa osoko datuekin alderatuko ditugu. Aktiboaren artean, batzuk okupatuak edo enplegua dutenak izango dira, eta beste batzuk, berriz, lanik edo enplegurik gabeak, baina horretarako adin zein egoeran aurkitzen direnak.



1. Grafikoa: Gipuzkoa eta Oiartzungo biztanleria aktiboaren lan egoera (2017)  
Iturria: Eustat  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Kasu honetan, Gipuzkoa osoan bat aztertutako urtean: Oiartzungo langabezia baxuagoa da Gipuzkoako aztertutako urtean: Oiartzungo langabezia kopurua biztanleria osoaren %8a da, Gipuzkoako %15aren aldean.


Jarrian, langabezia datuen edo **langabezia indizearen bilakaera** nolakoa izan den aztertuko dugu Oiartzunen, 2007. urtetik gaur egunera (edo 2018. urtera) arte. Langabezia indizeak biztanleria aktiboaren ehuneko zenbat dauden langabezian adierazten du.



2. Grafikoa: Oiartzungo langabezia indizearen bilakaera (2007-2018)  
Iturria: Eustat  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Gizon eta emakumeen langabezia indizeen kopuruak erreparatuz gero, azken urteetan (batez ere 2015etik hona) emakumeen langabezia gizonena baino altuagoa dela ikus dezakegu. Beti ez da horrela izan ordea: izan ere, gutxi gora behera, 2011tik 2015era bitarteko denbora tartean, gizonen langabezia indizea emakumeena baino zertxobait altuagoa zen. 2009tik 2011 bitartean kopuruak nahiko orekatuak izan ziren, eta hori baino lehenago, 2007tik 2009ra, emakumeen langabezia indizea gizonena baino dezente altuagoa izan zen. Egun edo **2018an antzematen den joera, ordea, kezagarri xamarra da, badirudielako bi sexuen arteko kopuruak berriz ere desoreka horretara bideratzen ari direla, emakumeen langabezia kopurua gailenduz** diferentzia nahiko nabari batekin. Begirada osotasunean jarrita, aipatu beharra daukagu bi kopuruak gehituta langabezia beherantz egiten ari dela.

2017ko langabezia datuak adina eta sexuaren arabera aztertuko ditugu jarraian, bi adierazle hauek gurutzatuaz. Urte horretan guztira 423 langabe zeuden erregistratuta herrian eta horietatik gehiengoak emakumeek osatzen zuten: 221 langabe emakumezko (%52a) zeuden 202 langabe gizonezkoen (%47a) aurrean.



3. Grafikoa: Oiartzungo langabezia erregistratua adin taldeen eta sexuaren arabera (2017)

Iturria: Eustat


Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Langabezia gehien dagoen adin tartea 41etik 45 urtera bitartean doana da. Lehen aipatutako 423 langabeetatik 68 adin tartean kokatzen dira. Bestetik, gizonezko langabeen kopurua emakumeena baino handiagoa da talde honetan (31 langabe gizonezko eta 20 emakumezko). Langabezia gehien pilatzen duen hurrengo adin tartean, ordea, emakume langabeen kopurua altuagoa da gizonezkoena baino. Izan ere, 56 urtetik 60ra bitartean 37 emakume daude lanik gabe 24 gizonezkoen aldean.

Lanik gabe dauden pertsona hauek **aurretik ze sektoretan egin duten lan** erreparatuz gero, Oiartzunen ze lan sektorek pilatzen duen langabezia gehien ikusi ahal izango dugu. Datu hauetan bilakaera antzeko bat aztertu ahal izateko, 2017ko lehen hiruhilekoko datuak aurtengo edo 2018ko lehen hiruhilekoko datuekin alderatuko ditugu lehenbizi.

Kopuruei erreparatzen badiegu, batez ere kopuru guztiak barne-hartzen dituenari, Oiartzungo langabezia oro har jaitsi egin dela ikusiko dugu, lehen ere aipatu dugun bezala. Interesgarria da erreparatzea, ordea, zein sektoretan jaitsi den langabezia hau eta zein sektoretan ez. Izan ere, horren arabera hobe jakin ahal izango dugu nola eragiten dien horrek gizon emakumei, badakigulako oro har sektore batzuk barne-hartzen dituzten gaiengatik historikoki lotuagoak egon direla genero-rol jakin bati.





9. Grafikoa: Oiartzungo langabezia erregistratua aurretik lan egindako sektorearen arabera (2017ko eta 2018ko lehen hiruhilekoak)

Iturria: Lanbide

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Langabezia gehien dagoen sektorea Komertzio eta Ostalaritzarena da Oiartzunen eta alde handiarekin gainera. Ondoren lan Tekniko-Administratiboetan, Industrian eta ondoren Bestelako Zerbitzuetan zein Zerbitzu Publiko eta Osasun Zerbitzuetan izango genuke langabezia gehien (Tekniko-Administratiboetan zail da antzematea ze genero gailenduko litzatekeen, baina Industrian batez ere gizonak egon izan dira historikoki, eta Zerbitzuetan zein Komertzio eta Ostalaritzaren arloan, berriz, emakumeak). Lan tekniko-administratiboetan, industrian edo eraikuntzan zeuden langabezia kopuruak jaitsi egin dira 2017tik. Komertzio eta ostalaritza, bestelako zerbitzu, Zerbitzu Publiko eta Osasun Zerbitzuetan aldiz, langabezia kopurua jaitsi ordez igo egin dela ikus dezakegu 2018. urteko 1. hiruhilekoan.

Aipatutako sektore horien atzean ze sexutako biztanleak egon daitezkeen ikusteko, langabezia sektoreka erreparatzeaz gain, sexuaren araberako banaketa ere egiten da jarraian dauden datuetan. Langabezia erregistratuaren datuez gain, lan eske dabiltzanen 2018ko ekaineko datuak ere jasotzen dira.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA			
SEKTOREA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Nekazaritza eta arrantza		6	6
Industria	15	22	37
Eraikuntza	4	18	22
Zerbitzuak	171	105	276
Aurretik lanik gabe	18	9	27
Asignatu gabeak			

<b>Guztira</b>	<b>208</b>	<b>160</b>	<b>368</b>
----------------	------------	------------	------------


10. Taula: Oiartzungo langabezia aurretik lan egindako sektorearen eta sexuaren arabera (2018ko ekaina)

Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

LAN ESKE ARI DIRENAK			
SEKTOREA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Nekazaritza eta arrantza	2	8	10
Industria	39	65	104
Eraikuntza	9	41	50
Zerbitzuak	449	263	712
Aurretik lanik gabe	34	21	55
Asignatu gabeak			
<b>Guztira</b>	<b>533</b>	<b>398</b>	<b>931</b>

11. Taula: Oiartzungo lan eskatzaileak aurretik lan egindako sektorearen eta sexuaren arabera (2018ko ekaina)

Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte



11. Grafikoa: Oiartzungo lan eskatzaileak aurretik lan egindako sektorearen eta sexuaren arabera (2018ko ekaina)


Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Lehen aipatu bezala, langabezia gehien dagoen sektorea Komertzio eta Ostalaritzarena (edo Zerbitzuena) da Oiartzunen, eta 2018ko ekaineko sexuaren arabera banatutako datuei esker, gainera, **garbi ikus daiteke emakumeak direla batez ere egoera horrek gehien kaltetzen dituen kolektiboa**: 449 emakume daude Oiartzunen sektore honetan lana eskatzen, beste sektore guztietan batera baino askoz gehiago. Gizonen kopurua ere altua da , 263 gizon leudeke lana eskatzen sektore honetan ere. Hala ere, emakumeen kopurua da nabarmenena, gizonenaren ia bikoitza baita.

#### 4.1.2. Lan sektoreak eta kontratu motak


##### A. Enplegudunak sektoreka

Jarraian, Oiartzungo biztanleria okupatu edo enpleguduna, lan sektorearen arabera banatuta aztertuko dugu. Tamalez, ezin izan dugu sexuaren arabera banatutako daturik jaso, lan sektorearen adierazlearekin gurutzatuta, eta ezin dugu jakin ere enplegudun hauetatik zenbatek egiten duten lan herriko establezimenduetan.



10. Grafikoa: Oiartzungo biztanleria okupatu edo enpleguduna lan sektorearen arabera (2016)  
Iturria: Eustat  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Grafikoan ikus daitekeen bezala, oiartzuar gehienek Zerbitzuei lotutako sektorean egiten dute lan (%75ak), eta alde handiarekin gainera, industriaren sektoreak jarraitzen diolarik (%17a). Datu hauek Gipuzkoako datuekin alderatuko ditugu, antzeko joerak ematen diren ala ez ezagutzeko.




11. Grafikoa: Gipuzkoako biztanleria okupatu edo enpleguduna lan sektorearen arabera (2016)  
Iturria: Eustat  
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Ikus daitekeen bezala, Gipuzkoa mailan ere, oro har, jende gehienak Zerbitzuen atalean egiten du lan (%71ak), industriarenak jarraitzen diolarik (%23a).

##### B. Enplegudunen kontratu-motak

Herriko enplegudunen lan-egora hobeto ezagutu ahal izateko, Lanbidek hilabete bakoitzean egindako kontratuen datua argitaratzen du. Datu hauek interesgarriak dira Oiartzungo

biztanleei ze kontratu mota egiten zaizkien ikusi eta horien genero irakurketa egiteko, datu hauek sexuaren arabera ere bereizten baitituzte. Modu honetan, urte honetako maiatzeko datuak erreparatuko ditugu.




9. Grafikoa: Oiartzungo langileak kontratu motaren eta sexuaren arabera (2018ko maiatza)  
 Iturria: Lanbide  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Guztira egin diren kontratu kopurutik gehienak gizonetzkoen egin zaizkiela ikus dezakegu (374 kontratu gizonetzkoen eta 272, berriz, emakumezkoen). Egin diren kontratu gehienak aldi baterakoak (produkzio arrazoiak bultzatuak) izan dira eta batez ere gizonetzkoen egin zaizkie (201 kontratu), emakumeen egin nahiko altuan egin bazaizkie ere (82 kontratu). Ondoren gehien egin diren kontratu motak ere aldi baterakoak eta lanaldi murriztukoak izan dira (guztira 179 kontratu), eta hauen artean, berriz, kontratu gehienak emakumezkoen egin zaizkie (115 kontratu emakumezkoen eta 64 gizonetzkoen).

Ondoren, bitartekotasunezkoak, hauek ere nagusiki emakumeen egin zaizkienak, eta mugagabeak genituzke: dena 62 egin dira eta nagusiki gizonetzkoen egin zaizkie (45 kontratu mugagabe gizonetzkoen eta 17 emakumezkoen).

### C. Urteko errentak sexuaren arabera

Jarraian urteko errenten kopuruak aztertuko ditugu, batetik lanaren errenta eta bestetik errenta osoa, sexuaren arabera banatuta, datu hauetan dauden genero ez-parekidetasunak identifikatzeko. Lehendabizi, lanaren errentaren datuak dauzkagu.



10. Grafikoa: Oiartzungo biztanleen lanaren errenta kopuruaren bilakaera sexuaren arabera (2013,2014,2015)

Iturria: Eustat

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Errenten kopuruak (bai emakumeenak eta bai gizonenak) gorantz egin dute ikertutako azken urtean 2013arekin alderatuta (2014an apur bat beherantz egin bazuten ere). Hala ere, datu hauetan nabarmenena edo interesgarriena, **emakumeen errenten kopurua gizonenaren oso azpitik** egotea da. 2015ean, gizonezkoen lan errenta 14.383 eurokoa da, emakumeena 9.870 eurokoa den bitartean, eta hori alde handia da (ziurrenik lotua egongo da ere emakumeen langabezia tasa altuagoarekin eta kontratu motekin).

## 4.2. Enplegua: Oarsoaldea Garapen Agentzia

Enpleguaren atala lantzeko, Oarsoaldeko Garapen Agentziaren Enplegu sailaren datuak landuko ditugu. Sail honen helburu nagusia eskualdean enplegua eta aberastasuna sortzea da. Horretarako, erakunde publikoen baliabide eta ekimenak garatu, integratu eta bideratzen dituzte, beharren arabera. Hurrengo helburu nagusia gizarteratzeko eta lan munduan txertatzeko erraztasunak ematea litzateke, enplegu programen bidez eta talde bakoitzak izan ditzakeen behar espezifikoak kontuan hartuz (beharrezkoa balitz, arazoak dituzten taldeei lehenetsia ematen diotela adierazten dute, esaterako, emakumei edo epe luzeko langabetuei). Azken helburua sailaren jardunean gardentasuna eta aukera berdintasuna bermatzea litzateke, eta prest daude enpresei euren lehiakortasuna hobetzeko behar dituzten giza baliabideak emateko ere.

Honako hauek lirateke zehatzago sail honen zerbitzu eta egitasmo nagusiak:

- Enplegu Zerbitzuak:
  - Enpresa Prospekzioa eta lan eskaintzen kudeaketa
  - Lan Orientazio Zerbitzua eta Enplegu Zentroa
- Egitasmo nagusiak:
  - Enplegu Planen Kontratazio Publiko eta Kontratazio Pribatu programak

- Lanerako prestakuntza ikastaroak
- Oarsotek Gizarteratze Enpresa
- Ereiten Tailer Okupazionala

Hona hemen aipatutako egitasmo batzuetako Oiartzungo erabiltzaileen inguruko datuak, sexuaren arabera banatuta. Daturik esanguratsuen orientazioaren zerbitzuan jasotzen duten emakume kopuru altua litzateke.

ZERBITZUA	EMAKUMEAK	%	GIZONAK	%	GUZTIRA
Orientazioa	107	54	89	45	196
Enplegu Zentrua	9	39	14	60	23
FO	0	0	3	100	3
Hazilan 3-4-5	5	83	1	16	6
Txertatu Merkatuan 2-3	12	50	12	50	24
Ereiten	1	33	2	66	3
Lanbideko Enplegu Plana	0	0	3	100	3

26. Taula: Oarsoaldeko Garapen Agentziaren Enplegu sailetik sustatzen diren egitasmoetako Oiartzungo erabiltzaileak, sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oarsoaldeko Garapen Agentziako Enplegu saila

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

#### 4.2.1. Berdintasuna lanerako irizpide moduan

Aurrez aipatutako zerbitzu eta egitasmo guztietan hartzen dira kontuan emakumeen behar eta interesak, modu batean ala bestean:

- Modu zeharkakoan:
  - Zerbitzu eta egitasmo batzuen diseinuan modu zeharkakoan jasotzen da generoaren gaia, esaterako, lan eskaintzen kudeaketa egiten denean. Izan ere, bi hautagai “berdinen” aurrean emakumea lehenesten saiatzen dira, telefonoz enpresari horretarako argudioak emanez.
- Modu espezifikoan:
  - Zerbitzu eta egitasmo batzuk propio diseinatzen dira emakumeen behar espezifikoari erantzuteko. Honen adibide garbiena Oarsotek Gizarteratze Enpresarena litzateke.

90eko hamarkadan “Gizarteratze Soziolaboralerako Batzorde Tekniko Iraunkorra” sortu zen, eskualdeko perspektiba batekin, elkarlanerako estrategia integral bat sortu nahi zuena pertsona langabeei gizarteratzen laguntzeko. Batzorde honen lanetik sortu zen **Oarsotek Gizarteratze enpresa**, 2004. urtean eta ordutik, batez ere bazterketa egoera larrian dauden emakume langabeak gizarteratzeko lan egin du.

Hasiera horretan, batik bat, guraso bakarrak ziren familietako amak edo emakumeak enplegatze ahalegina egin zuen. Egun 29 langile ditu enpresak eta horietatik 28 emakumezkoak dira. Bere ibilbideko 13 urteetan 76 pertsona baino gehiago enplegatu ditu.

Enpresa honetan gaitasun berezirik eskatzen ez duen (baina arreta mantendu behar den) esku-lan mekaniko bat gauzatzen dute, kautxuzko pieza batzuei bizarra kenduaz. Lan hau egiten duten heinean, akonpainamendu bat ere egiten zaie, bai laborala eta baita soziala ere. Horretarako, talde tekniko bat dute, eskualdeko 4 udaletako Gizarte Zerbitzuetako zein Enpleguko arduradunekin, eta Tailerreko nagusi edo enkargatu batekin (emakumezkoa dena). Enpresa hau Eskualdeko Garapen Agentziak (eta bere baitan dauden udalek), Lezoko Udalak eta Rubitec S.A enpresak sustatzen dute. Ahalegin publiko eta pribatuaren arteko lanaren bidez, erreferentziazkoa bihurtu den estrategia bat garatzea lortu da, bazterketa egoera larrian daudenak (batez ere emakumeak) gizarteratzeari begira.

Honez gain, industriako lanpostu batzuetan emakumeen laneratzea sustatzeko, soilik emakumeei zuzenduriko **soldadura ikastaroak** ere egin izan dituzte, etabar.

### 4.3. Bizitzari eusteko ezinbesteko lanak

Bizitzari eusteko ezinbestekoak diren lanak (edo lan erreproduktiboak), gure egunerokotasuna aurrera eramateko behar-beharrezko lanak dira. Euren artean garbiketa eta zaintza lanak, otorduen prestaketak edo erosketak leudeke, besteak beste. Lan hauen balioa handia bada ere, historikoki ez dira ohiko lan merkatuaren barruan eta ordaindutako lanen artean egon, eta etxeko espazio pribatuaren barnean egin izan dira: hau da, emakumeek burutu izan dituzte muxu truk.

Egun, emakumea espazio pribatu horretatik irten eta lan ordaindutakoetan murgildu denez, bizitzari eusteko lan hauek emakume zein gizonek bete beharko lituzkete, modu parekidean. Hori horrela den aztertzeko, EAEko emakume zein gizonek (Oiartzunen zehaztutako daturik ezin izan dugu atera, baina ziurrenik, bertan ere antzeko joerak emango dira) zenbat denbora eskaintzen dioten batz besterik lan hauei aztertuko dugu. Eskura dauden azken datuak 2013koak dira, datu-mota hauek urtero beharrean periodo jakin batzuen baitan soilik jasotzen direlako.

JARDUERAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
<b>Otorduak prestatzea</b>	<b>1:35</b>	<b>1:01</b>	<b>1:21</b>
<i>Lanegunak</i>	1:34	1:01	1:21
<i>Ostiralak</i>	1:33	0:54	1:17
<i>Larunbatak</i>	1:38	1:05	1:24
<i>Igandeak</i>	1:37	1:01	1:23
<b>Garbiketa</b>	<b>1:17</b>	<b>0:58</b>	<b>1:11</b>
<i>Lanegunak</i>	1:17	0:59	1:12
<i>Ostiralak</i>	1:14	1:02	1:11
<i>Larunbatak</i>	1:18	0:59	1:11
<i>Igandeak</i>	1:16	0:52	1:08
<b>Arropa</b>	<b>0:50</b>	<b>0:31</b>	<b>0:45</b>
<i>Lanegunak</i>	0:49	0:28	0:43
<i>Ostiralak</i>	0:50	0:30	0:45
<i>Larunbatak</i>	0:49	0:29	0:44
<i>Igandeak</i>	0:53	0:42	0:50
<b>Bestelako</b>	<b>0:23</b>	<b>0:27</b>	<b>0:25</b>

<b>konponketak</b>			
<i>Lanegunak</i>	0:23	0:24	0:23
<i>Ostiralak</i>	0:22	0:26	0:23
<i>Larunbatak</i>	0:22	0:35	0:27
<i>Igandeak</i>	0:31	0:33	0:32
<b>Erosketak</b>	<b>0:54</b>	<b>0:48</b>	<b>0:52</b>
<i>Lanegunak</i>	0:53	0:46	0:51
<i>Ostiralak</i>	0:55	0:52	0:54
<i>Larunbatak</i>	1:07	1:03	1:05
<i>Igandeak</i>	0:28	0:21	0:24
<b>Kudeaketak</b>	<b>1:21</b>	<b>1:27</b>	<b>1:24</b>
<i>Lanegunak</i>	1:28	1:40	1:34
<i>Ostiralak</i>	0:55	1:11	1:07
<i>Larunbatak</i>	1:02	0:29	0:39
<i>Igandeak</i>	0:27	1:24	0:59
<b>Erdi-aisiak</b>	<b>1:35</b>	<b>1:55</b>	<b>1:45</b>
<i>Lanegunak</i>	1:35	1:54	1:45
<i>Ostiralak</i>	1:48	1:50	1:49
<i>Larunbatak</i>	1:35	2:09	1:53
<i>Igandeak</i>	1:16	1:48	1:34

12. Taula: Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, etxeko lan motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera (EAE 2013)

Iturria: EUSTAT

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Bestelako konponketak, kudeaketak eta erdi-aisiakoak diren ekintzetan kenduta, gainerako jarduera guztietan **emakumeek gizonen baino denbora gehiago pasatzen dute lanean, bai astegunetan eta baita asteburuetan ere**. Aipatzekoa da ordea, erdi-aisiakoak diren jardueretan dela gizonen aldeko diferentzia hori handiagoa. Beste jarduera motetan, hau da, konponketa eta kudeaketetan pasatako denbora, ia-ia orekatua da bi sexuen artean.

<b>JARDUERAK</b>	<b>EMAKUMEAK</b>	<b>GIZONAK</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Hurrekiko ardura</b>	<b>1:29</b>	<b>1:10</b>	<b>1:22</b>
<i>Lanegunak</i>	1:30	1:03	1:20
<i>Ostiralak</i>	1:33	1:24	1:30
<i>Larunbatak</i>	1:17	1:14	1:15
<i>Igandeak</i>	1:33	1:23	1:29
<b>Jokoak eta irakastea</b>	<b>1:29</b>	<b>1:28</b>	<b>1:29</b>
<i>Lanegunak</i>	1:26	1:16	1:23
<i>Ostiralak</i>	1:20	1:22	1:21
<i>Larunbatak</i>	1:37	1:37	1:37
<i>Igandeak</i>	1:44	2:10	1:56
<b>Helduekiko ardura</b>	<b>1:41</b>	<b>1:25</b>	<b>1:35</b>
<i>Lanegunak</i>	1:39	1:15	1:31
<i>Ostiralak</i>	1:51	1:25	1:42
<i>Larunbatak</i>	1:53	1:53	1:53
<i>Igandeak</i>	1:28	1:39	1:31

13. Taula: Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, etxeko pertsonentzako zaintza motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera (EAE 2013)

Iturria: EUSTAT

Egilea: Farapi Koop. Elkartea



**Zaintzari lotuta dauden jardueren artean ere, oro har emakumeek denbora gehiago pasatzen dute** batez ere haur eta helduekiko ardura edo zaintza lanetan. Jolastu eta irakasteari lotutako jardueretan pasatako denboraren artean, gizonezko gehiago topa ditzakegu. Hala ere, zaintzari lotutako jarduera mota hauetan ematen diren denbora aldeko diferentziak ez dira aurreko taulan agertzen ziren jardueren artean ematen zirenak bezain handiak. Aipatzekoena da, haur eta helduen zaintzari dagokionez, asteburuetan denbora kopuruak orekatuagoak badira ere, **diferentzia handienak astegunetan** ematen direla. Honek esan nahi du, oro har emakumeak direla astegunetan lan produktibo ordainduari denbora gehiago kentzen diotenak, bizitzari eusteko ezinbestekoak diren, baina sozial zein ekonomikoki (ez dira lan ordainduak) gutxiago baloratuak dauden lanei emateko.

Lehen esan bezala, ordea, lan hauek balio handia dute, eta hori azaleratzeko, lan hauen balio ekonomikoaren datuak jaso ditugu, Gipuzkoan oinarrituak.

	<b>Guztira</b>	<b>Gizonezkoak</b>	<b>Emakumezkoak</b>
Ostatua eskaintzea	1.947.780	728.170	1.219.610
Zainketak eta hezkuntza eskaintzea	1.185.006	381.514	803.492
Janaria eskaintzea	2.968.131	970.067	1.998.064
Arropa eskaintzea	460.304	106.805	353.499
Borondatezko lana	17.464	14.853	2.611
<b>Etxe-lanaren erabateko balioa</b>	<b>6.578.685</b>	<b>2.201.409</b>	<b>4.377.276</b>

14. Taula: KSEn sartu gabeko etxeko lan ez-merkatukoaren eta ez-ordainduaren balorazioa eurotan, sexuaren eta funtzioaren arabera (Gipuzkoa 2013)

Iturria: EUSTAT

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Sexuaren araberako banaketaren bidez, **emakumeek gizonek sortzen duten balio ekonomikoaren ia bikoitza sortzen dutela ikusten dugu**: gizonek sortzen duten etxeko lanen erabateko balioa 2.201.409 eurokoa da, emakumeek sortzen dutena 4.377.276 eurokoa den bitartean. Beraz, hemen genero rolen araberako ez-parekidetasun nabariak ematen dira oraindik ere, sentsibilizazio eta ardura-banaketa lan handiak eskatzen dituztenak.

#### 4.4. Laburbilduz: lan merkatua

<p><b>AHULGUNEAK</b></p>	<p><b>INDARGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Oarsotek Gizarteratze Enpresa bazterkeria egoeran dauden emakumeentzat</li> </ul>
<p><b>MEHATXUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Langabezian daudenen artean, gehienak emakumeak dira</li> <li>• Komertzio eta ostalaritzaren sektorean langabezia-tasa oso altua da eta emakumeek pairatzen dute</li> <li>• Egiten diren kontratu-mota gehienak aldi baterakoak dira</li> <li>• Kontratu mota finkoenetan emakumeak gutxiengoa dira</li> <li>• Lanaren errentaren eta errenta osoaren kopuruetan emakumezkoak gizonen oso azpitik</li> <li>• Bizitzari eusteko lanak egiten emakumeek denbora gehiago pasatzen dute (aldea, batez ere, astegunetan ematen da)</li> <li>• Biztanleria ez aktiboaren kopuruak gora egingo du biztanleriaren zahartzearekin</li> <li>• Bizitzari eusteko lanen balio soziala oraindik oso baxua da</li> </ul>	<p><b>AUKERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleria aktibo eta ez aktiboaren kopuruak nahiko orekatuak</li> <li>• Biztanleria aktiboaren artean, gehiengo handi bat enpleguduna da</li> <li>• Langabezia kopuruak behera egin du azken urteetan</li> </ul>

## 5. UDALAREN FUNTZIONAMENDU OROKORRA

Oiartzungo Udalaren funtzionamendu orokorrari dagokionez, udal korporazioaren (edo antolaketa politikoaren), udal organoen eta udal sailen osaketak aztertuko ditugu, baita sail ezberdinen barnean antolatzen diren langileen mailak eta baldintzak ere. Osaera hauek parekideak ote diren eta antolaketa modu hauek ze ezaugarri dituzten aztertuko dugu, berdintasun printzipioak jarraitzen dituzten ala ez ikusteko.

### 5.1. Udal korporazioa

Alkate eta alkateordeen taldeari erreparatu diogu lehenik eta postuetako bi (euren artean botere handiena duen alkatearena) gizonetzkoek osatzen dute. Hala ere, azpimarratzekoa da 1. alkateordearen postua, emakume batek osatzen duela. Ondorioz, esan dezakegu, udal korporazioaren gorengo postuetan emakumeen presentzia ere badagoela, nahiz eta posturik gorena duena gizonetzkoa izan.



KARGUA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Alkatea		x
1. alkateordea	x	
2. alkateordea		x
<b>GUZTIRA</b>	<b>1</b>	<b>2</b>

15. Taula: Gobernu taldearen osaketa taldeka eta sexuaren arabera (2018ko uztaila)  
 Iturria: Oiartzungo Udala  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Udal gobernuari dagokionez, bi talde politikok osatzen dute.

TALDE POLITIKOA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
EH Bildu	4	5	9
EAJ-PNV	1	3	4
<b>GUZTIRA</b>	<b>5</b>	<b>8</b>	<b>13</b>

- 13: Taula: Gobernu taldearen osaketa taldeka eta sexuaren arabera (2018ko uztaila)  
 Iturria: Oiartzungo Udala  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea



9. Grafikoak: Oiartzungo Udaleko gobernu taldearen osaketa alderdi politikoen eta sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Aurreko taulan eta grafikoetan ikusten den bezala, gizon-emakumeen kopurua parekatuagoa da kasu batean bestean baino, nahiz eta diferentzia ez den oso handia. Bi talde politikoetako ordezkariak guztira osatzen dituzten kopuruak kontuan hartuz gero, emakume baino gizon gehiago dagoela ikusiko dugu.

## 5.2. Udal organoak

Oiartzungo Udaleko organo mota ezberdinak azertu ditugu: batzordeak, mahaiak eta epaimahaiak (tartean bestelakoren bat baldin badago ere). Lehenik eta behin batzordeak azertu ditugu (misio informatiboa dutenak edo batzorde informatiboak, zehatzago esateko). Batzorde hauetako partaideak nortzuk diren begiratzen hasi aurretik, batzordeburuak nortzuk diren aztertzen hasiko gara, izan ere, batzordeburuen sexuak boterea nola banatzen den erakutsiko digu.

	EMAKUMEAK	GIZONAK
<b>BATZORDEBURUA</b>	Ingurumena eta mendiak	Langile batzordea
	Gizarte Ongizatea	Obrak eta zerbitzuak
	Kultura	Ogasuna
	Parte-hartzea	Planeamendua
	Berdintasuna	Hirigintza
		Gazteria, kirola, hezkuntza ez arautua
		Euskara
	Kontratazio-mahaia	
<b>GUZTIRA</b>	5 (%38)	8 (%61)

14. Taula: Batzorde lehendakariak sexuaren arabera (urtea? ...-2018)

Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Guztira **13 batzorde** ezberdin daude Oiartzungo Udalean eta **horietatik 8etako batzordeburuak (%61a) gizonezkoak dira, gainerako 5 batzordeetako buruak (%38) emakumeak** direlarik. Aipatu behar da ere, ohikoa izaten dela gai edo esparru batzuetan, generoak baldintzatutako batzordeburua izatea. Oiartzungo kasuan ere, Gizarte Ongizatea, Berdintasuna eta Parte Hartzearen esparruetan emakumeak dira buru. Azpimarratu behar da, kulturaren esparruan ere, hain ohikoa ez den arren, emakume bat dela batzordeburua. Gainerako sailetan gizonezkoak ditugu buru, normalean gizonak osatu izan dituzten esparru edo gaiak direlako. Hala ere, aipatu behar da Gazteria, kirola eta hezkuntza ez arautuaren esparruan gizonezko bat dela burua eta hori ez dela hain ohikoa, gazteria eta hezkuntzaren gaiei dagokionez.

Jarraian dagoen taulan batzorde horietako partaide guztien datuak jasotzen dira, sexuaren arabera:


BATZORDEAK	EMAKUMEAK (kide kopurua)	GIZONAK (kide kopurua)	GUZTIRA (kide kopurua)
Langile batzordea	1	3	4
Obrak eta zerbitzuak	1	3	4
Ogasuna	1	3	4
Planeamendua	0	4	4
Hirigintza	1	3	4
Ingurumena eta mendiak	1	3	4
Gizarte ongizatea	3	1	4
Gazteria, kirola eta hezkuntza ez arautua	3	1	4
Kultura	2	2	4
Euskara	2	2	4
Parte-hartzea	2	2	4
Berdintasuna	2	2	4
Kontratazio-mahaia	5	2	7
<b>GUZTIRA</b>	<b>24 (%43)</b>	<b>31 (%56)</b>	<b>55</b>

15. Taula: Batzordeen osaketa sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

13 batzorreetan guztira 55 kide hartzen dute parte eta horietatik 31 (%56a) gizonezkoak dira. Kide emakumezkoak, berriz, 24 dira (%43a) guztira batzorde guztiak kontutan hartuta. Ondorioz, gizonezkoek osatuko lukete, batzordeburuez gain, kideen gehiengoa ere. Honako grafikoaren bidez argiago ikusi ahal izango dugu batzorde batetik bestera ematen diren aldaketak kideen sexuari dagokionez.



10. Grafikoa: Batzordeen osaketa sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Batzorde hauetako batzuetan gizon-emakumeen kopuruak guztiz parekatuak badira ere (Berdintasuna, Kultura, Euskara eta Parte-hartzearen batzordeetan kasu), kasurik gehienetan kopuru hauek desorekatuagoak dira (Langile Batzordea, Obrak eta Zerbitzuak, Ogasuna, Planeamendua, Hirigintza, Ingurumena eta Mendiak, Gizarte Ongizatea, Gazteria, Kirola eta Hezkuntza ez arautua eta Kontratazio-mahaia batzordeetan, alegia). **9 batzorde hauetatik, gizonezkoak gehiago diren kasuak 6 dira (Langile batzordea, Oبرا eta Zerbitzuak, Ogasuna, Planeamendua, Hirigintza eta Ingurumena eta Mendiak) eta emakumeak gehiago direnak, berriz, 3 (Kontratazio-mahaia, Gizarte Ongizatea, eta Gazteria, Kirola eta Hezkuntza ez arautua).** Hauen artean azpimarratzekoa da Planeamendua batzordearen kasua, non kide guztiak gizonezkoak diren. Desoreka hauei dagokionez, eta batzordeburuen kasuan gertatzen zen bezala, hemen ere batzordeak jorratzen duen **gaiak eragiten du** batzorde horretako kideen generoan, beti hala izaten ez bada ere.

Atal honen hasieran aipatu bezala, Oartzunen badira ordea bestelako organo mota batzuk ere: bestelako batzorde batzuk misio anitzak dituztenak, mahaia eta epaimahaia. Hona hemen modu zehatzagoan adierazita ze organo mota gehiago dauden, ze misio duten eta ze alorretan kokatzen diren, eta euren osaera sexuagatik orekatua den ala ez. Orekatua izango da partaideak sexuaren arabera banatuta jartzean, bi sexuen kopuruak partaide guztien %60 eta %40 bitartean kokatzen badira. Feminizatua izango da partaideen %60a baino gehiago emakumezkoa bada eta maskulinizatua, berriz, aurkakoa gertatzen denean. "Osaera orekatuaren" printzipio hau otsailaren 18ko "Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Lege Organikoan" zehazten da.

ORGANO MOTA	MISIOA	ALORRA	OSAERA SEXUAREN ARABERA			BERDINTASUNEAN ADITUA	
			SEXUAGATIK OREKATUA	FEMINIZATUA	MASKULINIZATUA	BAI	EZ
Batzordea	Osoko bilkura	Alkatetza	X			x	
Batzordea	Tokiko Gobernu Batzordea	Alkatetza	x				x
Batzordea	Bozeramaileen Batzordea	Alkatetza				...	...
Mahaia	Praktika Komunitatea	Alkatetza	X			X	
Mahaia	Abeltzainen Elkarteko Zuzendaritza	Ingurumena			X		X
Mahaia	Abeltzainen Elkartea	Ingurumena			X		x
Epaimahaia	Kirol Saria	Kirola			X	...	...
Mahaia	Udal Kirol Aholku Batzordea	Kirola			X		X
Mahaia	Eskualdeko Kirol Mahaia	Kirola			X		X
Mahaia	Eskualdeko eskola kirol mahaia	Kirola	X				X
Mahaia	Eskualdeko kirola eta Euskara	Kirola eta euskara	X				X

	mahaia						
Mahaia	Adingabekoen Mahaia	Gizarte Zerbitzuak	X			X	
Mahaia	Gizarte Hezkuntza Kontseilua	Gizarte Zerbitzuak				X	
Batzordea	Kontratazio mahaia	Idazkaritza	X				X
Batzordea	Haurreskolako Zuzendaritza Batzordea	Alkatetza	X				X
Batzordea	OTASako zuzendaritza batzordea	Alkatetza	X				X
Epaimahaia	Prosa eta poesia lehiaketa	Euskara		X			X
Mahaia	Oarsoaldeko euskara teknikarien mahaia	Euskara			x		X
Bestelakoak	Arnasguneen lantaldea	Euskara		X			X
Mahaia	Urtekari batzordea	Kultura		x			X
Epaimahaia	Kartel lehiaketa	Kultura	X				X
Batzordea	Jai Batzordea	Kultura	X				X
Batzordea	Gau Batzordea-Jaiak-Musika	Kultura	X				X
Batzordea	Udal Plangintzako Aholku Batzordea	Hirigintza			x		X
<b>ORGANO KOPURUA GUZTIRA:</b>		<b>24</b>	<b>12</b>	<b>3</b>	<b>7</b>	<b>4</b>	<b>18</b>

16. Taula: Gainerako Udal Organoak eta bertako partaideak sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Taulan ikusten den bezala, guztira 24 dira aurretik aipatutako batzordeez gain Oiartzungo Udalean dauden edo Oiartzungo Udalak parte hartzen duen organo motak, eta horietatik **erdia sexuagatik orekatuak** daude. **3 dira feminizatuak** edo nagusiki emakumez osatuak daudenak eta **7 berriz gizonezkoak gailentzen direnak**. Geratzen diren beste 2 organoetako osaeraren daturik ez dugu jaso ahal izan. Ondorioz, organo hauen osaeraren kasuan ere, gizonezko kide gehiago egongo da emakumezkoak baino.

**Berdintasunean aditua den norbait barne-biltzen duten organoak ere gutxiengoa dira:** 24tik 4 soilik. Kasu askotan, beraz, ez da lehen aipaturiko legea betetzen. 24 horietatik 18 organotan ez dago berdintasunaren gaian aditua den inor. Gelditzen diren 2 organoetan ez dugu honen inguruko daturik jaso. Legearen arabera, organo edo talde bat maskulinizatu denean, berdintasunean aditua den norbait txertatu behar da desabantaila hori konpentsatze aldera, baina ez da zehazten ondo aditu horrek ze ezaugarri bete behar dituen. Taulan jasotako datuen artean, kasurik gehienetan berdintasunean aditua udaleko berdintasun teknikaria bera da, baina ez beti: tartean badira kasuak non herriko talde feministetako ordezkariak dauden, esaterako.

### 5.3. Udal sailak

#### 5.3.1. Langileen antolaketa

Guztira 9 sail ezberdin daude Oiartzungo Udalean (sail horien artean ez dago berdintasunaren gaiari espezifikoari zuzentzen zaionik) eta bertan guztira lan egiten duten 75 langiletik 39 emakumezkoak dira (%52a), gehiengoa osatuz, gutxiagatik bada ere, 36 gizonen aldean (%48a). Beraz, esan dezakegu Oiartzungo Udaleko **sail ezberdinetako langileen kopuruak nahiko orekatuak** direla sexuaren arabera.

SAILA	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Alkatetza	1	1	-
Idazkaritza	9	7	2
Kontu-hartzaitza /Ekonomia Zerbitzuak	6	6	-
Kultura eta Euskara	5	3	2
Gazteria eta Kirola	2	1	1
Gizarte Zerbitzua	14	14	-
Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak	21	4	17
Mendi, Ur eta Ingurugiroa	3	1	2
Udaltzaingoa	14	2	12
<b>GUZTIRA</b>	<b>75</b>	<b>39 (%52)</b>	<b>36 (%48)</b>

17. Taula: Langile kopurua sexuaren eta sailaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Kopuruak orekatuak badira ere, **sailak barne-hartzen duen gaiaren arabera, genero rolen banaketa tradizionalak emateko inertzia** dagoela ikusten da. Taula honetan adierazten den bezala, batez ere lan administratiboari lotutako sailetan, emakumeak dira gehiengoa: Kontu-hartzaitzaren sailean guztiak dira emakumeak eta idazkaritzan ere gehiengoa osatzen dute. Alkatetzaren sailean dagoen alkatearen idazkaria ere emakumea da. Bestetik, Gizarte Zerbitzuen sailean ere, guztiak emakumeak dira. Alderantziz, ez dago sail bat bera ere non guztiak gizonezkoak diren. Hala ere, gehiengoa osatzen dute genero maskulinoari lotuago dauden gaiak barne hartzen dituzten sailetan: Udaltzaingoa sailean eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuenean, alegia.

Gainerako sailetan gizon-emakume kopuruak nahiko orekatuak dira, eta langile guztien kopuruari begiratuta, guztira Oiartzungo Udaleko sail ezberdinetan lan egiten duten gizon-emakume kopuruak nahiko orekatuak dira, emakumeen kopurua gizonena baino zertxobait altuagoa delarik.

Aurten, 2018. urtean, udaleko **sail ezberdinen arteko batzordea** ere eratu da, sail bakoitzaren barneko teknikari zein politikariak bilduko dituena, mainstreaming-era bideratua, politika publiko ezberdinetan berdintasun ikuspegia txertatzen dela bermatzeko. Honek sail ezberdinen arteko egitura egonkor bat suposatuko du. Oraindik, ordea, ez da inoiz elkartu.

Bestetik, udal **sailak eta berdintasun irizpideen aplikazioari** dagokionez, jaso ditugun datuen arabera, Udal honetako sail batean bertan ere, **ez da berdintasunerako neurri espezifikorik**



**hartzen.** Ez dago berdintasunean formazioa jaso duen sailik, ezta parte hartze soziopolitiko parekidea kontuan izateko irizpideren bat duenik, hizkuntzaren erabilera inklusiboa egiteko neurririk hartzen duenik, ezta bere lan oinarrietan genero ikuspegia txertatzen duenik ere.

Horrez gain, **jasotzen diren eskabide orri** ezberdinenek ere, Udaleko sail ezberdinetan, **ez dute sexua aldagaia** kontuan hartzen.

Dokumentu mota	Dokumentuaren izena	Jabetza	Saila	Zerbitzua	Sexu aldagaia
Formulario, eskabide orria	Eskaera orria orokorra	Udala	Idazkaritza		Ez
Formulario, eskabide orria	Trakzio.mek.lbil. Itzulketa	Udala	Kontu Hartzailea		Ez
Formulario, eskabide orria	Trakzio.mek.lbil. Salbuespena	Udala	Kontu Hartzailea		Ez
Formulario, eskabide orria	Helbideratze orria	Udala	Kontu Hartzailea		Ez
Formulario, eskabide orria	Liburu berrien eskaera	Udala	Kultura	Liburutegia	Ez
Formulario, eskabide orria	Bazkide berriaren eskaera	Udala	Kultura	Liburutegia	Ez
Formulario, eskabide orria	Aretoaren erreserba	Udala	Kultura	Liburutegia	Ez
Formulario, eskabide orria	Euskara ikasteko DL	Udala	Euskara		Ez

18. Taula: Oiartzungo udaleko sail ezberdinetako eskabide orriak (2018ko uztaila)  
Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

### 5.3.2. Langileen mailak eta soldatak

Langileen artean mailaketa bat eta horren arabera talde ezberdinak bereizten dira. Udal langile bakoitza talde hauetako batean kokatzen da eta taldeari dagozkion lan-baldintza eta soldatak izango ditu. Ondorioz, emakume eta gizonen banaketa maila hauen arabera nola ematen den aztertzea beharrezkoa da.

Taldea / Azpitaldea	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Batez bestekoa	
				Emakumezkoak	Gizonezkoak
A / A1	11	7	4	63,64%	36,36%
A / A2	7	4	3	57,14%	42,86%
C / C1	33	17	16	51,52%	48,48%
C / C2	21	10	11	47,62%	52,38%
E / BT	3	1	2	33,33%	66,67%
<b>GUZTIRA</b>	<b>75</b>	<b>39</b>	<b>36</b>	<b>52%</b>	<b>48%</b>

19. Taula: Oiartzungo udaleko langileak lanpostuaren mailaren eta sexuaren arabera (2018ko uztaila)  
Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Dauzkagun datuen arabera, esan dezakegu kasu honetan emakume gehiago aurkitzen ditugula maila goragokoetan kokatzen diren lan taldeetan, eta gizonezko gehiago, berriz, mailaz beheragokoak direnetan. Alderik nabarmenena bi sexuen artean A1 deituriko taldean, mailarik gorenena duenean ematen da: bertan, emakumeak ia-ia gizonezkoen bikoitza baitira.

Hala ere, komeni da aztertea datu hauen atzean ze zehaztaperen ematen diren ere. Horretarako, maila eta talde hauetako bakoitzean dauden langileek ze lanpostu betetzen duten zehaztuko dugu jarraian dauden tauletan.

ALKATETZA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
C1	Alkatetzaren Idazkaria	1	0
GUZTIRA		1	0
IDAZKARITZA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A1	AOT / Letradu	2	1
	Artxibozaina		
	Informatika Zerbitzuen Arduraduna		
A2	Langileria Arduraduna	0	1
C1	Idazkaritza Administraria	5	0
GUZTIRA		7	2
KONTUHARTZAILTZA-EKONOMIA ZERBITZUAK			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A1	ABT-Ekonomilaria	2	0
C1	Kontuhar.-Ekon.Zerb. Administraria	4	0
GUZTIRA		6	0
KULTURA ETA EUSKARA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A1	Kultura Arduraduna	0	1
	Euskara Arduraduna	1	0
	Liburuzaina	1	0
E/BT	Eskola Atezaina	0	1
C1	Liburuzain Laguntzailea	1	0
GUZTIRA		3	2
GAZTERIA ETA KIROLA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A2	Gazteria Dinamizatzailea	0	1
C1	Kultura-Gazteria Administraria	1	0
GUZTIRA		1	1
GIZARTE ZERBITZUA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A2	Gizarte Zerbitz. Arduraduna	1	0
	Gizarte Laguntzailea	1	0
	Gizarte Langilea	1	0
C1	Gizarte Zerbitz. Administraria	1	0
C2	Etxez Etxeko Laguntzailea	10	0

GUZTIRA		14	0
HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A1	Arkitektoa	0	1
	AOT / Letradu	1	0
A2	Aparejadorea	1	1
C1	Delineatzailea	0	1
	Hirigintza Administraria	1	0
	Ur-Zerbitzuko Arduraduna	0	1
	Tekniko Laguntz. Elektrikaria	0	1
C2	Betekizun Anitz. Ofiziala-Igeltserotza	0	6
	Betekizun Anitz. Ofiziala-Urak	0	1
	Obra-Zerbitzuko Gidaria-Urak	0	1
	Betekizun Anitz. Ofiziala-Urak (Iturgintza)	0	1
	Betekizun Anitz. Ofiziala-Argiketa	0	1
	Biltegizaina	0	1
E/BT	Obra-Zerbitzuetako Peoia	0	1
	Eraikin Garbitzailea	1	0
GUZTIRA		4	17
MENDI, UR ETA INGURUGIROA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A1	Mendi eta Ingurumen Teknikaria	0	1
C1	Mendi-Ingurumen eta Obretako Administraria	1	0
	Mendizaina	0	1
GUZTIRA		1	2
UDALTAINGOA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
C1	Udaltzaingo Ofizial Ordea	0	1
	Udaltzaingo Agente Lehena	0	1
	Udaltzaingo Agentea	2	10
GUZTIRA		2	12

20.Taula: Oiartzungo udaleko langileak lanpostuaren, lanpostu horren mailaren eta sexuaren arabera (2018ko uztaila)  
 Iturria: Oiartzungo Udala  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Bestetik, **kontratu partzial edo behin-behinekorik** ez dago momentu honetan udaleko langileen artean, baina bai bi baimen edo **lanaldi murrizturen eskaerak**, **biak ere emakumeek** eskatuak, adin txikikoak eta menpekotasunak dituzten pertsonak zaintzeko. Kontziliatzeko eta ardurak partekatuzko neurriei, zein kontratatuzko eta promozionatzeko sistemai dagokionez, legedia betetzen da edo legeak aurreikusitako sistemak erabiltzen dira.

Udaletik jasotzen dituzten **baliabideei dagokionez**, hona hemen udaleko sail bakoitzak bere eskura dituen ibilgailuen datuak, sailaren eta ibilgailu motaren arabera banatuta.

SAILA	IBILGAILU MOTA	KOPURUA	SAIL BAKOITZAREN IBILGAILU KOPURUA GUZTIRA
Alkatetza		0	0
Idazkaritza		0	0
Kontuhartzaitetza-Ekonomia Zerbitzuak		0	0
Kultura eta Euskara		0	0
Gazteria eta Kirola		0	0
Gizarte Zerbitzua		0	0
Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak	Furgoia	5	12
	Ibilgailu Berezia	2	
	Turismoa	3	
	Kamioia	2	
Mendi, Ur eta Ingurugiroa	Turismoa	1	1
Udaltzaingoa	Turismoa	2	2
Arraztalo Gaixo Psikikoen Elkartea	Furgoia	1	1
<b>IBILGAILU KOPURUA GUZTIRA</b>			<b>16</b>

22.Taula: Oiartzungo Udaleko langileek beren eskura dituzten udal ibilgailuak sailaren eta ibilgailu motaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Taula honetan argi ikusten den bezala, udal ibilgailu gehien eskaintzen zaizkion saila Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen da, beren lan motak ere hala eskatuta ziurrenik. Era berean, **adierazgarria da, esaterako, gizarte zerbitzuen sailak halako baliabiderik ez izatea**. Izan ere, sail honen barnean kokatzen diren **etxez etxeko langileek, kilometro ugari egin behar dituzte** ia egunero, besteak beste, euren zaintzapeko pertsonen bizitokietara mugitu ahal izateko. Beraz, **ondo justifikatua legoke** kasu honetan ere, **euren lan motak eskatzen duen ibilgailu beharra**. Behar hori urte askotan hor egon bada ere, Gizarte Zerbitzuen Sail osoak ez du ibilgailu propiorik jaso izan.

## 5.4. Laburbilduz: Udalaren Funtzionamendu Orokorra

AHULGUNEAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal korporazioan gehienak gizonezkoak dira</li> <li>• Batzordeburu eta batzordeetako kide gehienak gizonezkoak dira</li> <li>• Organoen erdiak ez dira sexuagatik orekatuak eta horien artean gehienak maskulinizatuak dira</li> <li>• Udal honetako sail batean ere, ez dago genero ikuspegia bermatzeko irizpide edo neurri espezifikorik sistematizatua</li> <li>• Eskabide orriek ez dute sexua aldagaia kontuan hartzen</li> <li>• Genero rol tradizionalak ezarritako banaketa desorekatua ematen da organo, batzorde edo sailtako kideen artean, hauek barne-biltzen duten gaiaren arabera</li> <li>• Gizarte Zerbitzuen Sailak ibilgailu propioak ez izatea, nahiz eta beharra agerikoa izan</li> <li>• Datuak sexuaren arabera banatuta ez jasotzeak sorturikoak: hasteko, egoeraren analisi eta azterketak egin ezin izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal korporazioan emakume bat dago</li> <li>• Organoen erdiak sexuagatik orekatuak dira</li> <li>• Sailtako langile kopurua sexuaren arabera orekatua da</li> <li>• Sailen arteko batzorde bat eratu da mainstreaming-era bideratua</li> <li>• Emakume gehiago daude gorengo mailetan</li> </ul>
MEHATXUAK	AUKERAK
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sailen arteko batzordean, mainstreaming-era bideratutakoan, elkar-lanak sustatzeko aukera</li> <li>• Berdintasun irizpide eta neurri konkretuak sistematizatzen laguntzeko kanpoko aholkularitza zerbitzuak</li> <li>• Laguntza hauek eskatzeko erakunde ezberdinetatik eskaintzen diren diru-laguntza ekonomikoak</li> <li>• Formakuntza jasotzeko erakunde ezberdinetatik luzatzen diren laguntza ekonomikoak</li> </ul>

## 6. HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK

Sail honetatik garatzen diren proiektuek eta hauek beren baitan eramaten duten herria ikusi, ulertu, antolatu eta diseinatzeko moduak, bete-betean eragiten dio espazio horretan bizi den orori. Beraz, beharrezkoa da sail honen jarduera berdintasun ikuspegitik aztertzea, bere jarduerak herriko emakume eta gizonen artean nola eragiten duen aztertzeko.

1996an Bruselan eginiko Praktika Onen Lehiaketan aukeratutako “Emakumea Hirian Europako Gutuna” esperientziak ere, berdintasun ikuspegia hirigintzaren arloan txertatzearen garrantzia azpimarratzen du, Gutun honen helburua lortzeko bidean:

*El propósito (...) es concebir un nuevo planteamiento filosófico de la ciudad, con la intención de contribuir de manera constructiva a un verdadero debate democrático que dé cuenta de las necesidades y de las varias expectativas de los ciudadanos (mujeres y hombres por igual). (...) Prioridades políticas y económicas que proponen la mejora de la armonía social. El asunto en juego es volver a crear espacios y vínculos sociales de proximidad, aumentando la igualdad de oportunidades para mujeres y hombres en la vida rural y urbana. (...) Uno de los supuestos de partida es que no existe como tal un interés específico de la mujer como tal, pero sí que la mujer puede actuar como catalizadora en el proceso de cambio y mejora de las condiciones de vida.<sup>1</sup>*

Dokumentu honen hasierako “biztanleriaren atalean” ikusi ahal izan dugun bezala, Oiartzun biztanle dentsitate oso baxua duen herria da. Horrek zaildu egiten du berdintasun ikuspegi batetatik egokiagoa ikusten den hiri gertu, nahasi eta kohesionatuen eredua, herriko emakume eta gizonen aukera berdintasuna bermatzeari begira.

2015ean garatutako Oiartzungo Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) ere, bere helburu eta irizpideetan honako kontzeptuak barne-hartzen ditu: *sakabanaketaren ordezkentziazioa, “hiri-jarraitasunean” oinarritutako ingurumenaren aldeko plangintza, gizarte-kohesio handiagoko formatuak, herrigune trinko eta bariatuak, dentsitate ertain eta handiko lorategi-hiri terminoa...* Beraz, esan daiteke herri eredua aldatzeko urratsak ematen hasi direla, aurretik lan asko dagoen arren egiteko, guzti hau lortu eta bermatzeari dagokionez.

**Hirigintza sailaren jarduerari dagokionez, bi alor nagusi bereiz daitezke:**

- Maila orokorreko herriaren plangintza:

Alor honetan, HAPO-a edo Oiartzungo Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (2015) litzateke lan-tresna nagusia. Plan Orokor honen helburua Lurraldearen Ordenamendu Eredua definitzea litzateke. Beraz, gerora etorriko diren lan zehatzagoak hemendik bideratzen dira. Plan Orokorrei 8-10 urte arteko bizia ematen zaie, ondorioz, Oiartzungoa oraindik plan berria dela esan dezakegu. Gaur egun, 2015eko Plan Orokor honen aplikazio fasean leudeke. Fase edo jardun honetan, eskaera, kontsulta eta Garapen Plangintzekin egiten dute lan. Hauei dagokionez, eremuen garapenaren kasuetan promotore pribatuekin egiten dute lan, baina “etxe barruko” azterketak direnean alkatearekin. Berarekin, herrian sortzen diren beharrak identifikatzen edo plangintzak

<sup>1</sup> Iturria: La Carta Europea de la Mujer en la Ciudad:

[http://www.ddgi.cat/participaciociudadana/material/curs200912/AAVV\\_La\\_Carta\\_Europea\\_de\\_la\\_Mujer\\_en\\_la\\_Ciudad.pdf](http://www.ddgi.cat/participaciociudadana/material/curs200912/AAVV_La_Carta_Europea_de_la_Mujer_en_la_Ciudad.pdf)

ezarritako aurreikuspenen inguruan egiten dute lan. Momentuan, esaterako, jarduera ekonomikoaren atalean bizi dute lan gehikuntza bat, etxe berri ugari egiteko asmoak baitituzte, herriko eremu eta auzo ezberdinetan.

- Maila zehatzagoko ekintzak herrian:

Alor hau Obra konkretuagoetan zentratzen da. Obren artean ere bi mota leudeke:

- Publikoak, edo bereziki, Zerbitzuetako atalari lotutakoak: Hemen egitasmoak idatzi eta gauzatzea litzateke euren zeregina.
- Pribatuak: Hauen artean promotore ezberdinei edo baita ere, bizilagunen eskaerei lotutakoak leudeke. Euren zeregina, herriko Plan Orokorren arabera ze baldintza betetzen dituzten ikusi eta txostenak idaztea litzateke.

Momentuan martxan dituzten proiektuei dagokionez, nagusienak ondoko hauek izango lirateke:

- Lintzirin-go inguruaren berrurbanizazioa (obra publiko handia)
- “Mendiburu 14”, herri mailako kultur zentro/areto baten proiektua

Horrez gain, zenbaezinak diren obra txikiago mordoak ere badituzte tartean: Horien artean bideberritzeak, auzoetan esku-hartzeak, aurretik aipatutako etxe berri horien eraikuntza obrak...

**Sail hau osatzen duten langile edo pertsonen perfilari dagokionez**, Udal funtzionamenduaren atalean ikusi dugun bezala, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen saila nagusiki gizonen osatua legoke Oiartzunen.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A1	Arkitektoa	0	1
	AOT / Letradu	1	0
A2	Aparejadorea	1	1
C1	Delineatzailea	0	1
	Hirigintza Administraria	1	0
	Ur-Zerbitzuko Arduraduna	0	1
	Tekniko Laguntz. Elektrikaria	0	1
C2	Betekizun Anitz. Ofiziala-Igeltserotza	0	6
	Betekizun Anitz. Ofiziala-Urak	0	1
	Obra-Zerbitzuko Gidaria-Urak	0	1
	Betekizun Anitz. Ofiziala-Urak (Iturgintza)	0	1
	Betekizun Anitz. Ofiziala-Argiketa	0	1
	Biltegiaina	0	1
E/BT	Obra-Zerbitzuetako Peoia	0	1
	Eraikin Garbitzailea	1	0
GUZTIRA		4	17

22. Taula: Oiartzungo Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak saileko langileen datuak postuaren eta sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

17 langileetatik 4 dira soilik emakumezkoak. Hala ere, esan beharra daukagu, 4 horietatik 2 emakumek nahiko gorengo postuak dituztela: bata letradua da eta bestea aparejadorea.

## 6.1. Hirigintza arloko jarduera genero ikuspegiaren arabera

Lehendabizi jarduera honi dagokionez jasotako ideia orokor eta nagusi batzuk azalduko ditugu, honen berdintasun irakurketa eginaz.

### 6.1.1. Inklusibotasuna, egunerokotasuna eta partaidetza ardatz

Sail honen jardueraren oinarrian, inklusibotasunari (edo ikuspegi barnehartzaileari) eta egunerokotasunari ematen zaion garrantzia antzematen dira. Bertako teknikarien aldetik, zerbait diseinatu behar duten orotan, ikuspegi horretan kokatzen saiatzen dira: diseinatuak herritar orok bere egunerokoan izan ditzakeen behar eta interesei erantzun behar die, eta horri eman behar zaio lehentasuna. **Berdintasun ikuspegiari dagokionez, ikuspegi orokor honen baitan kokatzen dute, eta ez modu bereizi batean mantendu beharreko ikuspegi edo lanketa bat bezala.**

*Nik ustet, hor plangintzan gutxienez, inklusiboa izatearen genero kontzeptu hori, generoa baino gehiago nik uste inklusibo orokor izate hori bilatu behar dela. Eta hori, ideia orokorretan, nik uste nahiko barneratua dugula (udal langilea 1)*

Idea orokorretan inklusibotasun ikuspegi hau barneratua badute ere, **ez dago ikuspegi hau kontuan hartzen dela bermatuko duen irizpide zehatz edo sistematizaturik**. Beharrezkoa da, ikuspegi hau teknikarien kontzientzian egoteaz gain, hortik atera eta eskuetan dugun lan-tresna forma ematea, zehatza, finkoa eta erabilgarria izango dena.

Tresna horri dagokionez, Udal Planeamendu Aholku Batzordea legoke. Batzorde edo organo hau Lurzoru Legeak markatzen du, eta partaidetza prozesu gisara kontsideratua da. Bertan, Udaleko sail gehienetako ordezkariak (esaterako, Kultura, Kirolak, Gazteria, Feminismoa, Kontu-Hartzailtza edo Euskara) eta herriko eragileenak (esaterako, nekazarien ordezkaria, herriko gazteena edo sindikatuena) elkartzen dira (guztira 30-40 pertsona inguru). Hirigintza sailetik diseinatzen den plan orokor eta garapen plangintza orok, batzorde honetatik pasa behar du eta bertan elkartzen diren guztien onespina jaso. Bertan adostutakoaren aurkako zerbait erabakitzen bada, argumentatu egin behar izaten dute. Formatu honek bultzatzen die euren plan eta proiektuak diseinatzerako garaian, herritar guztien edo behintzat, partaidetza saio horretara joango direnen interesak jaso eta onespina bilatzeko moduan pentsatzera.

Ikuspegi aldetik, egokia da prisma zabal bat izatea, herritar ororen interesak osotasunean hartuko dituen, perfil jakin baten interesak bestearen gaintik kokatu gabe. Ideia honi jarraiki, **ez dute garatu berdintasuna ardatz gisa hartuko duen proiektu edo lanketa zehatzik**. Aldi berean, **ez daukate berdintasun ikuspegia** (beste askoren artean) **kontuan hartzen dela bermatzeko irizpide konkreturik** ere, beren proiektuak diseinatu, egoerak aztertu edo ekimenak martxan jartzerako garaian. Lehen aipatutako **HAPO-an** ere, **sail honen dokumentu nagusian, ez zen genero ikuspegia** modu sistematizatuan **txertatu**.



*Ez zait iruitzen espreski genero ikuspegia lantzea, nik uste dela partaidetza komunitate honetan mahai gainean jarri gaia. Eta agian momentu batean zalantzan jarri daitekeena da, Udal Planeamendu Aholku Batzordeko bilera hoiek nahikoak ote diren (udal langilea 1)*

Lehen aipatu bezala, batzorde honez gain, ez dago inklusibotasunaren ikuspegia bermatzeko eta zerbait diseinatu behar den bakoitzean, lan-tresna zehatz gisara erabiltzeko aukera emango duen irizpide edo euskarri konkreturik. Bestetik, **batzorde honek barne-hartzen duen partaidetza formatua ere nahiko finkoa, egonkorra eta batzuetan mugatua** da, herriko biztanleen artean dagoen eta etengabe aldatzen den aniztasun horri heltzeko. Horrez gain, batzorde honetako partaideetako asko udaleko sailtako langileak berak dira, eta hargatik, bertan egiten denaren zati bat, partaidetza bezala baino, sailen arteko koordinazio huts bezala ikus liteke.

Azkenik, **inklusibotasunaren abaniko zabal horren barnean berdintasun ikuspegia difuminatua gelditzeko arriskua** dago. Ondorioz, beharrezkoa da berdintasun ikuspegia, beste ikuspegien artean, kontuan hartzen dela bermatzeko irizpide zehatz batzuk markatu eta sistematizatzea, eta zenbait gai konkreten inguruan soilik bada ere, berdintasun ikuspegia ardatz hartuko duten proiektuak garatzen hastea, batez ere emakumeen segurtasunari eta burutzen dituzten lanak errazteari begira.

### **6.1.2. Biztanle sakabanaketa eta familia bakarreko etxeen eredua: mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna**

Herriak denon interes eta beharrei erantzuteari begira, hirigintza sailaren iritzi, Oiartzunek baditu **sakoneko egitura arazo batzuk**: lehenago ere aipatu dugun **egitura sakabanatua**, batetik, eta **etxe familia bakar eta nuklearren gailentzea**, bestetik. Herritarren bizilekuak bata bestearengandik sakabanatuak daude, elkarren arteko lotura gutxi duten auzoen artean. Honek **mugikortasun arazo handiak** dakartza: oinezko pasabideen faltak eremu batzuetan, garraio publikoa egunez mantentzeko eta gauez ezartzeko zailtasunak alderdi ekonomikotik, herritarrengan horren errotua dagoen ibilgailu pribatuaren erabilera eta honek dakartzan aparkaleku beharrak mantentzeko ekonomikoki egin behar den apustua, adibide batzuk jartzearen. Egun martxan dauden lanen artean, bideberritzeak eta bidegorriak atal garrantzitsua dira.

Herriko auzo batzuen kasuan, **erdigune gisara jokatu duen espazio publiko baten eta zerbitzuen falta** ere aipatu da. Honek, auzo horietako jendearen elkargune gisara jokatu duen eremu baten falta dakar, eta baita beren beharrak asetzeko mugitu behar izatea ere. Lehenago aipatutako mugikortasun arazoak medio, **bazterketa egoerak sortzeko arriskua** ere hor dago, zer esanik ez auzo hauen eremu diseminatuan dauden baserri sakabanatuen artean.

Horrez gain, Oiartzunen oso errotua dago familia bakarreko etxeen eredua. Modu honetan, lur azalera handiak okupatzen dira jende kopuru txikia biltzen duten etxe handiekin. Honek, biztanle dentsitate baxuak sortzen ditu, eta ondorioz, **ekonomikoki sostengaezinak izango liratekeen komertzio eta zerbitzurik gabeko kale huts asko**. Langabezia datuak aztertzean, langabe gehienak ostalaritza eta merkataritzaren sektorean pilatzen direla ikusi dugu

Oiartzunen, eta langabe hauek nagusiki emakumezkoak direla. Beraz, hiri egiturak (eta beraz, bertan eman litezkeen aldaketek), zuzenean eragin lezakete egoera kezkarri honetan.

*Sortzen dira kale batzuk, ba 4 metro inguruko pareta batzuen artian. Ba kale hoietan ez dago ez denda bat, ez dago ezer. Eta horrelako arazoak herrian ditugu dexente. Hoiek dira benetan preokupanteak. Hor sortzen den... Adineko jendea etxe hoietan geatzen dana, etxe atarira ateratziak ez dio ezer ekartzen, eta normalian auzo hoiek ez dia ondo lotuak egoten beste auzoekin edo herrigunearekin (udal langilea 1)*

Biztanleriaren atalean aipatu dugu biztanleriaren zahartze bat ematen ari dela, eta gainera, zahartze hau feminizatua dela, adineko emakume gehiago ditugulako. Ondorioz, **hiri eredu honek adinekoengan sortzen dituen kalteak** eta zita honetan aipatzen direnak ere, **batez ere emakumeei zuzenduak** egongo lirateke.

Bestetik, kale edo espazio publiko batek, segurua izateko, bizia izan behar du, jendez betea eta elikatua, eta geurea egin behar dugu, geurea dela sentitu, horretarako bertan egon, bertan aritu edo bertan harremanduz. Oiartzunen kale edo espazio huts asko dago, eta hau aldatzeak lanketa handi eta sakona suposatzen du, herriaren egituraren aldaketan. Segurtasun falta honek emakumeengan eragiten du, bere gain erortzen den indarkeria sexistaren mehatxuaren gehigarri gisa. Hargatik, **bere mugimendu askatasuna bermatuko duten kale seguru eta egokiak birritan behar ditu.**

Kaleak betetzeari begira, bestelako etxe eredu baten aldeko apustu nabarmena egin da, berrikuntza bat emanez, eta egun, eredu aldaketa hori ematen ari dela esan genezake, dentsitate kopuruak igoz eta zerbitzu ezberdinak kokatzeko ekonomikoki sostengarriagoak diren inguruak sortuz. Modu honetan, kale huts horiek jendez betetzea bilatzen da, bide batez, seguruagoak ere eginaz.

Kaleen segurtasunari begira, eta genero ikuspegia ardatz hartuz, **Oarsoaldeko Garapen Agentziatik Puntu Ilunen Diagnostiko Parte hartzaile bat ere egin zen**, eskualde mailan 2015ean. Oiartzunen kasuan, argiztapena hobetzeki buruzko proposamenak egin zituen batik bat, puntu ilun bezala identifikatutako herriko eremu ezberdinetan. Diagnostiko honetan, ordea, Oiartzungo Udaleko Hirigintza sailak ez zuen parte hartu: diagnostikoa jada eginda zegoenean jaso zuten, eta euren iritziz, oso azaleko diagnostikoa zen. Ez zuten garbi jakin ze oinarri erabili ziren lanketa hau egiteko. Gainera, argiztapena hobetzea baino sakonagoko arazoak daude herrian euren ustez, segurtasuna bermatzeari begira, lehen aipatutako kale huts ugarien kasuak bezala. **Hala ere, sakonagoko arazo horiek konpontzeak suposatzen duen denbora luzea medio, beharrezkoa litzateke erreparatzea bitartean nola hobetu daitezkeen, edo nola egin daitezkeen seguruagoak espazio eta kale horiek.** Beharrezkoa litzateke honetarako estrategia edo ekintza posibleetan pentsatzen jartzea lehenbailehen.

**Irisgarritasunari begira ere, herri eredu honek zailtasun eta oztopo ugari** ere ekartzen dituela adierazi digu sail honetako teknikariak, herriko biztanle ezberdinek (haurrak, adinekoak, ezinduak...) zenbait eremutara iristeko: lehen aipatutako oinezko pasabide faltak, eskailerak edo eraikinetara sarrera konplikatua, adibidez. Arlo honi dagokionez, hasiera batean irisgarritasun irizpideak kontuan hartu ez ziren proiektuetan ere moldaketak egiten ari dira, orain baldintza horiek bete ditzaten bermatzeko.

### 6.1.3. Adierazpide sinbolikoak: kaleen izenak

Kaleko elementu sinbolikoak kale izen, eskultura, aldarrikapen kartel edo margoak izaten dira, besteak beste. Normalean, elementu hauen artean, gehienak gizonezkoen figurei lotuak egoten dira, eta herri batzuek, memoria historikoan ahaztuta edo ezkutuan geratutako emakume figurak berreskuratu eta espazio publikoan jartzeko saiakera egin dute, esaterako, kaleari halako emakumezko figura baten izena jarrita.

Gai honi dagokionez, Oiartzungo kaleen izendegian erreparatu dugu.

OIARTZUNGO KALEAK	
Emakume izenak	Gizonezkoen izenak
Maria Garaiar Plaza	Frailen Bidea
	Frantzisko Urdiñola Kalea
	German Ugarte Kalea
	Juansendo Kalea
	Manuel Lekuona Etorbidea
	Martintxo Kalea
	Ozenzio Kalea
	Rafael Pikabea Etorbidea
	Done Petri Kalea
	Mendiburu Kalea
<b>1</b>	<b>9</b>

23. Taula: Emakume edo gizonen figurei lotuak dauden Oiartzungo kaleen izenak sexuaren arabera

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

**Gizonezkoen figurei lotutako izenak dituzten kaleak emakumeenei lotutakoak baino askoz gehiago dira.** Hala ere argitu behar da, Oiartzungo kale gehienek izenak ez zaizkiela pertsona izenei lotzen, lekuei baizik, eta beraz, toponimoak direla.

## 6.2. Laburbilduz: Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak

AHULGUNEAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inklusibotasunaren ikuspegi zabalaren baitan genero ikuspegia difuminatua</li> <li>• Inklusibotasunaren zein generoaren ikuspegia txertatzeko irizpide konkretu eta sistematizatuen falta</li> <li>• HAPO-an genero ikuspegia txertatua ez egotea</li> <li>• Generoaren araberako azterketa eta lanketa zehatzen falta</li> <li>• Berdintasuna zehazki landuko duen proiekturik martxan jarri ez izana</li> <li>• Datuak sexuaren arabera sailkatuak ez jasotzea, modu sistematizatu batean</li> <li>• Udal Planeamendu Aholku Batzordeak herritargoaren aniztasunaren partaidetza barne-hartzeko dituen mugak</li> <li>• Saileko arduraduna soilik egotea generoa eta hirigintzaren gaian formatua</li> <li>• Oarsoaldeko Garapen Agentziatik burututako Puntu ilunen diagnostikoari etekin gehiago atera ez izana</li> <li>• Auzo askok nukleo gisa jokatu duen espazio publiko baten falta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuspegi inklusibo eta barne hartzaile batekiko sentsibilizazioa</li> <li>• Egunerokotasuna eta praktikotasuna erdigunean jartzea</li> <li>• Hiri eredu konpaktu eta nahasiei emandako garrantzia</li> <li>• Auzoen izaera mantendu eta osatzeko hartutako konpromisoa</li> <li>• Proiektu akasduak egokitzeko gaitasuna, esaterako irisgarritasun baldintzak egokituz</li> <li>• Saileko arduraduna generoa eta hirigintzaren gaian formatua egotea</li> <li>• Oarsoaldeko Garapen Agentziatik Puntu ilunen inguruko diagnostikoa eginda egotea</li> </ul>
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriaren topografia sakabanatua: biztanleria dentsitate baxua, mugikortasun arazoak, bazterketa egoerak...</li> <li>• Familia bakarreko etxe eredua eta urbanizazio pribatuak: kale huts ez seguruak</li> <li>• Mugikortasun, irisgarritasun eta segurtasun irizpideak bermatzeko zailtasunak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirigintza eta generoa erlazionatzen duten formazio eskaintza ugari egotea</li> <li>• Formazioa jasotzeko erakunde ezberdinetatik eskaintzen diren diru-laguntzak</li> <li>• Genero ikuspegia txertatzeko irizpide eta neurri konkretuak sistematizatzeko kanpo aholkularitza jasotzeko aukera</li> </ul>

- |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                           |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Beste herri handiangoekiko (Donostiako hiriarekiko) gertutasuna</li><li>• Garapen Plangintzetan interes espekulatibo-empresarialak gailentzea</li><li>• Herritarren ohiturak aldatzeko zailtasunak: etxe eredua eta mugikortasuna (ibilgailu pribatuaren garrantzia)</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Kanpo aholkularitza hau jasotzeko erakunde ezberdinetatik eskaintzen diren diru-laguntzak</li><li>• Mainstreaming-era bideratutako sailen arteko batzordearen laguntza jasotzeko aukera</li></ul> |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

## 7. GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuen Sailak “pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde” egiten du lan. Lan hau egiteko, bere jarduera 4 programa nagusitan banatzen du: 1) Argibideak, balorazioa eta aholkularitza programa, 2) Elkarbizitza eta familia programa, 3) Prebentzio eta gizarteratze programa eta 4) Gizarte partaidetza programa. Honako taula honetan agertzen dira programa horietako bakoitzean ematen diren zerbitzu edo laguntza zehatzak ere.

PROGRAMAK	ZERBITZU ETA LAGUNTZAK
<b>Argibideak, balorazioa eta aholkularitza programa</b>	Laguntza teknikoak
	Bono-taxia
	Aparkatzeko txartela
	Telelaguntza
	Mendekotasun/ezgaitasun balorazioak
	Bonifikazio eskaerak
	Emakumeen aurkako indarkeriaren jasaleentzat laguntza juridiko eta psikologikoa
	Atzerritarrentzako Aholkularitza Juridikoa (beste erakunde batzuetara bideratze lanak)
<b>Elkarbizitza eta familia programa</b>	Etxez etxeko laguntza zerbitzua
	Adineko/ezgaituentzako plaza/lekua eskatzea: Zaharren Egoitza eta Eguneko Zentroa
	Sendian programa
	Familia esku hartze programa
	Aldi baterako egonaldiak
	Harrera familia
	Larrialdietarako bizilekuak
	Ezgaitasuna dutenak bere kabuz bizitzeko laguntzak
<b>Prebentzio eta gizarteratze programa</b>	Drogen menpekotasunari aurre egiteko ekintzak
	Gizartean eta lan munduan txertatzeko programak
	Landa inguruneari zuzendutako programak: Bidez-Bide, Bide-lagun
<b>Gizarte partaidetza programa</b>	Elkarteei diru-laguntzak
	Elkarte berriak sortzeko laguntzak

24. Taula: Gizarte Zerbitzuen saileko jarduera programa nagusien eta zerbitzu zein laguntza zehatzen arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udalaren web-orria

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Bestetik, aipatzekoa da ere, dokumentu honen abiapuntuan aipatu den bezala, denbora batez Gizarte Zerbitzuen Sailetik bideratzen zela berdintasunaren gaiari lotutako jarduera. Agian, horren zantzu bezala, oraindik ere berdintasunaren inguruko irudiak topa daitezke sail honetan:



1. Argazkia: Oiartzungo Udaleko Gizarte Saila  
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

## 7.1. Genero ikuspegia gizarte zerbitzuetan

Sail hau osatzen duten langileen perfilari dagokionez, guztiak emakumeak direla azpimarratu behar da. Barne hartzen duen gai mota ere historikoki genero rol femeninoari lotua egon da, eta badirudi hori ez dela gehiegi aldatu. Honenbestez, esan genezake, Oiartzungo Gizarte Zerbitzuen saila feminizatua dela osaezaz.

GIZARTE ZERBITZUA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A2	Gizarte Zerbitz. Arduraduna	1	0
	Gizarte Laguntzailea	1	0
	Gizarte Langilea	1	0
C1	Gizarte Zerbitz. Administraria	1	0
C2	Etxez Etxeko Laguntzailea	10	0
GUZTIRA		14	0


25. Taula: Oiartzungo Udaleko Gizarte Zerbitzuen saileko langileen datuak postuaren eta sexuaren arabera (2018ko uztailea)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

### 7.1.1. Zerbitzuak eta erabiltzaileak

Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak nortzuk diren aztertzeko datu ezberdinez baliatu gara. Lehendabizi, Arreta Zuzenaren zerbitzuan jasotzen duten jendearen datuak aztertu ditugu, generoaren arabera.



11. Grafikoa: Gizarte Zerbitzuetako Arreta Zuzenen erabiltzaileak generoaren arabera (2017)  
Iturria: Oiartzungo Udala  
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

2017ko datuei erreparatu gero, emakumeek gehiengoa osatzen dute, bi generoan arteko aldea handia ez bada ere. Honek erakusten duenez, gizarte zerbitzuetara gehien gerturatzeko direnak emakumezkoak dira, horretarako arrazoiak askotarikoak izan daitezkeelarik: euren artean, genero rolen banaketa edo sozializatu gaituzten moduak hala diolako, eta bestetik, emakumeak bizi edo pairatzen dituzten egoeren nolakotasun edo bereizgarritasunek gizarte zerbitzuen laguntza gehiago behar izatea dakarrelako, besteak beste.

Lehenbizikoari dagokionez, gizarte zerbitzuen saila genero rol femeninoari lotuagoak dauden gaiak barne-hartzen dituen sail bat da (zaintza, elkarren arteko laguntza...). Horrez gain, genero rol maskulinoak edo gizezkoek, gizarte laguntzak eskatzera joateko lotsa gehiago senti dezaketela pentsa daiteke, genero honen sozializazio modua dela-eta.

Bigarren arrazoiari begira, emakumeek gizek baino neurri altuagoan pairatzen dituzte pobrezia eta prekarietate egoerak. Esaterako, lan ordainduaren merkatuan gizek baino presentzia gutxiago izan dute eta oraindik ere, sarritan, bizitzari eusteko lan ez ordainduan jarduteko lan merkatuan ematen duten denbora murriztu beharrean aurkitzen dira, etxeko andre edo familia zainzaile lanetan aritu direnek ere ez dute pentsiorik jasotzen... Gizarte Zerbitzuen behar gehiago izatera bultzatzen dituen beste faktore bat gizezkoak baino luzaroagoan bizitzearena da: adinekoen artean emakumeak gehiago dira, eta ondorioz, adinekoen zerbitzuetako erabiltzaile nagusiak dira. Indarkeria matxista pairatzen dutenak ere nagusiki emakumezkoak izateak, honi egokitutako gizarte zerbitzuetako baliabideen onuradunak emakumezkoak izatea dakar...


**Diru-laguntzei dagokionez, generoaren araberrako datuak urri xamarrek dira: oinarritzko errenta edo DBE (gaztelaniaz "RGI") jasotzen dutenen datuak soilik topatu ditugu generoaren arabera bereiztuak. Gizarte Larrialdietarako laguntzei edo familia laguntzei buruzko datuak ez dugu topatu generoaren arabera bereizita, hauek izatea interesgarria izango bazen ere.**

PRESTAZIOA	Onuradun kopurua
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	63
DBE/RGI	133
AGI	6
Familiei Laguntzak	55



26. Taula: Gizarte Zerbitzuen sailetik ematen diren diru-laguntza edo prestazio motak eta onuradun kopuruak (2017)  
 Iturria: Oiartzungo Udala  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Taula honetan ikus dezakegun bezala, oinarrizko errenta (bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, alegia) edo DBE-ri dagozkion laguntzak dira gehiengoa direnak edo diru-laguntzen zati pisutsuena osatzen dutenak. Diru-laguntza mota honi dagokionez, berau jasotzen duten gehienak emakumezkoak direla esan dezakegu jaso ditugun datuen arabera:



12. Grafikoa: Oinarrizko errenta jasotzen duten onuradun kopurua generoaren arabera (2017)  
 Iturria: Oiartzungo Udala  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Hala ere, **komenigarria litzateke onuradun hauen familia-unitatearen datuak izatea, ezin baita jakin bestela diru-laguntza hau benetan zenbat pertsonen beharretarako den.** Izan ere, 2008ko berdintasun diagnostikoan jasotzen den bezala, 2007ko oinarrizko errentaren diru-laguntzen eskatzaile gehienak emakumeak baziren ere, emakume hauetako gehienak familia zaintzaile bakarrak ziren (seme-alaben edo familiako ezinduren baten zaintzaile bakarrak, alegia), eskatzaile gizonezko gehienak bakarrik bizi ziren bitartean. Beraz, ondorioak atera ahal izateko familia-unitateari buruzko datu hau izatea ezinbestekoa litzateke (egun, tamalez, ezin izan dugu halako daturik eskuratu).

**Mendekotasun eta desgaitasun zerbitzuei eta hauen inguruko prestazio ekonomikoei buruzko datuak ere ez daude sexuaren arabera banatuta, beraz, ezin dugu hauen inguruko irakurketa edo analisirik egin genero ikuspegitik.**

### 7.1.2. Adinekoentzako zerbitzuak

#### A) "Aiton-Etxe" Eguneko Zentroa

Zentro honek 10 urte baino gehiago ditu eta 40 egoiliar hartzeko lekua du. Plazen %80 Aldundiarekin itunduak dira. Adinekoei arreta pertsonal afektibo egokitua eskaintzeaz arduratzen dira egonaldi atsegin batean. Hauek dira eskura dituzten zentroko erabiltzaileen azken datuak:

Aiton-Etxe Eguneko Zentroko erabiltzaileak		
Emakumeak	Gizonak	Guztira

32 (%64)	18 (%36)	50
----------	----------	----

25. Taula: Oiartzungo Aiton-Etxe Eguneko Zentroko erabiltzaile kopurua sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Aiton-Etxe Eguneko Zentroa

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Aiton-Etxe Eguneko Zentroko langileak		
Lan postua	Emakumea	Gizona
Autobus-gidaria	0	2
Erizaina	1	0
Auxiliarrak	7	0
Terapeuta okupazionala	1	0
Garbitzailea	1	0
Arduraduna	1	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>11 (%84)</b>	<b>2 (%15)</b>

25. Taula: Oiartzungo Aiton-Etxe Eguneko Zentroko langile kopurua lan postuaren eta sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Aiton-Etxe Eguneko Zentroa

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Ikus dezakegunez, zentroko **erabiltzaile gehienak (% 64a) emakumeak dira eta emakumeak dira ere zentroko langile ia guztiak (% 84a, alegia)**. Beraz, argi baiezatu dezakegu zentro hau guztiz feminizatua dagoela, eta beraz, bere izenak ez duela inongo zentzurik. 2008an eginiko berdintasun diagnostikoan aipatzen zena errepikatu beharrean aurkitzen gara beraz: "Aiton Etxe" egiaz "Amon Etxe da".

### B) "Petra Lekuona" Zaharren Egoitza

Petra Lekuona Egoitza Matia Fundaziotik bideratzen da eta helburu gisa, pertsonaren eta haren familiaren ongizaterik handiena lortzea dute, unean-unean behar dituzten laguntzak hornituz eta adinekoaren autonomia jorratuz. Itunpeko plazak ez ezik, plaza pribatuak ere badituzte. Honako hauek lirateke zehatzago plaza motak: egoitzako plaza, egoitzako plaza psikogeriatricoa, mantentze fisioterapia barne hartzen duen egoitzako plaza, gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonentzako egoitza plaza eta aldi baterako egonaldiak.

Petra Lekuona Zaharren Egoitzako erabiltzaileak		
Emakumeak	Gizonak	Guztira
62	38	100

25. Taula: Oiartzungo Petra Lekuona Zaharren Egoitzako erabiltzaile kopurua sexuaren arabera (2018ko iraila)

Iturria: Petra Lekuona Zaharren Egoitza

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Petra Lekuona Zaharren Egoitzako langileak		
Postua	Emakumea	Gizona

Zuzendaria	1	0
Erizaina	4	0
Psikologoa	1	0
Terapeuta	1	0
Gizarte langilea	1	0
Monitorea	2	0
Sendagilea	1	0
Zaintzailea	52	5
Mantentze lanetako langilea	0	1
Garbitzailea	11	0
Sukaldaria	2	0
Sukaldari laguntzailea	2	0
Harrerakoak	3	0
Ile apaintzaileak	1	0
Podologoa	1	0
Boluntarioak	10	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>93</b>	<b>6</b>

25. Taula: Oiartzungo Petra Lekuona Zaharren Egoitzako langile kopurua postuaren eta sexuaren arabera (2018ko iraila)

Iturria: Petra Lekuona Zaharren Egoitza

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Hemen ere **erabiltzaile gehienak (% 62a) zein langile ia guztiak (% 93a) emakumezkoak** dira. 2008ko berdintasun diagnostikoan zentro honetako “banakako gela” antolaketa eta banaketaren inguruan zenbait aipamen egiten ziren, eta hemen ere datu horiek aztertu ditugu:

**Petra Lekuona Zaharren Egoitzako erabiltzaileak:  
banakako gela dutenak**

Emakumeak	Gizonak	Guztira
13 (%41)	18 (%58)	31

25. Taula: Oiartzungo Petra Lekuona Zaharren Egoitzako banakako gela duten erabiltzaileak sexuaren arabera (2018ko iraila)

Iturria: Petra Lekuona Zaharren Egoitza

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

**Erabiltzaile gehienak emakumezkoak izanagatik, gizonezko gehiagok daukate banakako gela batez gozatzeko aukera.** Datu hau oso esanguratsua da, eta interesgarria litzateke desoreka honen atzean dauden arrazoiak zeintzuk diren ezagutzea.

Erabiltzaile gehiago emakumeak izatearen arrazoietako bat emakumeek bizi itxaropen luzeago izatea litzateke. Beste aldetik, posible da ere emakumeak direnean gaixoak, familia unitatea zaintzaile gabe geratzea, eta beraz, horretarako gizarteak prestatutako zerbitzuetara jotzea (gizonek edo genero rol maskulinoak, oro har, ez baitituzte zaintza lanak bere gain hartzen emakumeek hartzen dituzten neurri berean, “bizitzari eusteko lanen” atalean ikusi den bezala).

Langileen datuari dagokionez, lehenago aipatu den bezala, zaintza lanak genero rol femeninoari atxiki izan zaizkio urte luzez logika heteropatriarkalek zuzendutako sozializazio prozesuen bidez. Guzti horren adibide da, bi zentro hauetan ere langile gehienak emakumezkoak izatea.

Baina banakako gela izateko pribilegioari dagokionez, gizonezko gutxiengoari atxikitzen zaiola ikus dezakegu. Hau, horrenbestez, gizartean bizi dugun egoera ez-parekide eta injustuaren beste adibide bat litzateke.

### 7.1.3. Landa eremuari dagozkion zerbitzuak

Behemendi Donostialdea-Bidasoako Landa Garapen Elkartek bultzaturik eta eskualdeko zenbait udalen gizarte zerbitzu sailen laguntzarekin, landa eremuko adineko biztanleria (hauen artean landako emakumeak) eta gizarte zerbitzuen inguruko diagnostiko lanak burutu ziren. Diagnostiko hauetan identifikatutako behar eta hobetzeko proposamenetan oinarrituta, eta eskualdeko nekazal auzoen eta baserrien sakabanaketak suposatzen duen arazoaz jabetuta, Bidez-Bide Programa-Garraio Zerbitzua sortzea erabaki zen. Honela, landa ingurunean sakabanaturik bizi diren adineko eta ezinduen bizi-kalitatea hobetzea bilatzen zen. Zerbitzu honek herri barruan burutu daitezkeen joan-etorriak egingo ditu, erabiltzaileek aurrez egindako eskariaren arabera.

	Emakume	Gizon
<b>Erabiltzaileak</b>	23	10
<b>Bidaia zerbitzuak</b>	279	284

25. Taula: Bidez-bide garraio zerbitzuko erabiltzaile eta bidaia zerbitzuen kopurua sexuaren arabera (2017)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Erabiltzaileen datuetan ikus daitekeenez, gehiengoa emakumeak badira ere (gizonezko kopuruaren bikoitza eta apur bat gehiago osatzen dutelarik), ematen diren bidaia kopuruari erreparatzen badiogu, gizonezko erabiltzaileek ematen dituzten bidaiak emakume erabiltzaile guztiek batera ematen dituztenak baino gehiago direla ikusi ahal izango dugu hala ere. Beraz, esan liteke, emakume erabiltzaileak gehiago badira ere, gutxiengoa osatzen duten gizonezko erabiltzaileek maizago erabiltzen dutela zerbitzua, horretarako arrazoiak askotarikoak izan daitezkeelarik: beste modu batean mugitzeko arazo gehiago izan ditzaketelako edo gehiago mugitu beharra daukatelako... Datu hau ere oso esanguratsua da, baina hausnarketa egoki bat planteatu ahal izateko, atzeko arrazoi horiek ezagutzeko ikerketa lan bat egin beharko litzateke.

Bide-lagun izeneko zerbitzu bat ere badago, landa-eremuari zuzendua, mugikortasun arazoak dituztenentzat aisialdi eskaintza bat emateko, baina tamalez, ezin izan dugu bertako erabiltzaileen datu zehatzik topatu.

#### 7.1.4. Indarkeria sexista jasan dutenentzako arreta zerbitzua

2015ean, Oiartzungo **Udalak indarkeria sexistaren<sup>2</sup> aurkako lanketa sistematizatzeko** beharra nabaritu eta udal barneko **protokolo bat** diseinatu zuen Farapi Koop. Elkartearen laguntzarekin. Protokolo honen bidez, indarkeria mota honi aurre egiten dieten emakumeei udal mailako zerbitzu ezberdinetan emandako artatze eta deribazio prozesuak modu egokian emango direla bermatu eta zerbitzuen arteko koordinazioa sistematizatu nahi izan zen. Modu honetan, protokolo edo ekintza plan honekin batean, protokoloaren beraren jarraipena egingo zuen batzorde bat zein indarkeria matxistaren aurkako lanketa koordinatzeko herri mailako mahai bat ere eratu ziren.

Batzordeari dagokionez, Berdintasun teknikariak (baldin balego), Gizarte Zerbitzuen buruak eta Udaltzainen buruak osatuko lukete. Mahaia, berriz, alkateak, alkateordeak, feminismo zinegotziak (eta teknikariak, baldin balego), gizarte zerbitzuetako buruak eta zinegotziak, udaltzain buruak, osasun zerbitzuetako ordezkariak eta herriko mugimendu feministako kide zein emakume taldeek osatuko lukete (Antiju Morik, Kilirikupe, Heltak...). Mahai honen helburu edo zeregina gai honen inguruan herriko egoera zein den aztertzen joatea da, elkarlanean modu integral batean. Bilera ohikoak eta ez-ohikoak egiten dituzte: ohikoak urtean 2-3 aldiz (herriko jaien aurretik, azaroak 25 aurretik...) eta ez-ohikoak erasoen aurrean, indarkeria kasuen kopuruak gorakada deigarriak bizitzean edo lanketa berezi bat eskatzen duten gertakariak agertzean. Bestetik, protokolo honetan, mahai honek eraso baten aurrean emango dituen urratsak zeintzuk izango diren ere zehazten da.

Hala ere, protokolo hau nahiko oinarrizkoa dela eta eguneraketa bat beharko lukeela iritzi dute gizarte zerbitzuen sailetik. Aipatutako mahai honi, "krisi-mahaia" bezala ezagunagoa denari, berriz, forma ematen joan behar zaiola uste dute oraindik: biltzeko maiztasunak hobeto zehaztu, landuko diren gaiak ere...

Genero indarkeria jasaten ari direnentzako edo jasan dutenentzako Oiartzungo Udaletik eskaintzen diren baliabideei dagokionez, honako hauek leudeke:

- Arreta zuzena (balorazio eta orientazio zerbitzua) eta laguntza zuzena prozesuetan.
- Laguntza taldea (indarkeria jasotako emakumeentzat)
- Laguntza ekonomikoak, zaintzarako laguntzak

Udal barneko baliabide hauei dagokionez, gizarte sailetik adierazten dute faltan botatzen dutela, zenbait kasutan, udal barruko zenbait prozedura aldatzea (esaterako, zergak edo zorrak ordaintzean). Kanpoko beste erakunde batzuetatik eskaintzen diren baliabideen artean, berriz, arreta psikologikoa, laguntza juridikoa, babes zentroa edo arreta medikoa leudeke.

Kanpoko beste erakunde hauekiko koordinazioari dagokionez, hutsune asko daudela adierazten dute Gizarte Zerbitzuen sailetik: erakunde bakoitzak bere lana egiten du, eta kasu

<sup>2</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiko 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, indarkeria sexista terminoa erabiltzen du "indarkeria matxistaren" baitan legokeen eta emakumea emakume izateagatik soilik jasaten dituen indarkeriari erreferentzia egiteko, zeinak emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna betikotzea duen helburu.

batzuetan koordinazioa ematen bada ere, koordinazio horrek marko orokorrago batean ere egon beharko lukeela uste dute.

Salaketarik jarri nahi ez duten emakumeen kasuan, Gizarte Zerbitzuetatik laguntza eta orientabidea eskaintzen zaie, beti ere indarkeria jasaten ari den kasuaren berri baldin badute behintzat.

Artatutako kasuei dagokionez, aurreko urteko edo 2017ko datuak jaso ditugu. Guztira 9 kasu artatu ziren, 4 bertakoak eta 5 beste jatorri batzuk (hego amerika eta afrika) dituzten oiartzuarrak. Gehienak 30-50 urte artean kokatzen dira (tartean 20-30 arteko eta 50 urte baino gehiagoko bi kasu baditugu ere). 6 kasutan adin txikikoak daude tartean eta jasotzen dituzten laguntzei dagokionez, guztiek jasotzen dute gizarte mailako arreta eta laguntza psikologikoa, eta horietatik 4k baita juridikoa ere.

2018ko datuei dagokionez, lehen hiruhilekoan 5 kasu artatu zituzten, eta une honetan, 9 kasu dituzte esku artean. Esan dezakegu, beraz, indarkeria sexista kasuek gora egin dutela aurreko urtetik.

Indarkeriaren matxistaren inguruko formakuntza izatea ere oso garrantzitsua da halako egoerak pairatzen dituzten pertsonak modu egoki batean artatu eta tratatu ahal izateko. Beharrezkoa da emakume hauek beren ibilbidean zeharkatuko dituzten baliabide edo erakunde guztietako arduradunek (udaltzainak, medikuak, gizarte langileak...) gai honetan formatuta eta sentsibilizatuta egotea. Honi dagokionez, Oiartzungo Udaleko ordezkari batzuek oinarrizko formazio bat jaso zuten bere garaian, protokoloa egitearekin batean, baina oso oinarrizkoa eta azalekoa izan zen. Hargatik, orain, lanketa sakonago bat burutu nahi dute eta berriz ere formazio bat jasoko dute gizarte zerbitzuetako zein udaltzaingoko hainbatek (formazio saio bat bi sailek elkarrekin egitea ere aurreikusten dute).

Azkenik, aipatu behar da ere, diagnostiko hau idazteko momentuan bertan, indarkeria sexista jasaten duten kasuen datuak jaso eta antolatzeke moduan aldaketak ematen ari direla, berdintasun sailaren laguntzarekin.

#### **7.1.5. Jatorri anitzeko biztanleria**

Bestetik, sail honetatik migrazio diagnostiko bat ere burutu zen, baina dokumentu honetan ez da haren inguruko daturik jaso, lan hau jada oso zaharkitua gelditu dela eta bertako informazioak ezer gutxirako balio duela azaldu digutelako sailetik. Hala ere, gizarte zerbitzuetatik gai hau lantzeko behar nabaria ikusten da, euren egunerokoa eta arreta zerbitzuetan migrari asko jasotzen dituztelako, eta sarritan, "kultur txokeak" edo elkar ulertzeko zailtasunak sumatzen dituztelako. Beraz, beharrezkoa litzateke gai honi loturiko diagnostiko eguneratu bat burutu eta etorkizuneko esku hartzeen plangintza bat sortzea, horien artean gai honekiko formazio beharrak ere jasoz. Honi dagokionez, batez ere emakumezko migrariekin lan egiteko eta hauen egoera ezagutzeko beharra ikusi da, hauek baitira oro har sozializatzeko oztopo gehien aurkitzen dituztenak, eta ondorioz, bazterketa gehien jasan dezaketenak.

Bestetik, herrira iritsitako migrari berriei harrera egiteko prozedura bat bai dagoela garatua: herrian denbora bat daramaten migrarien laguntzaz harrera moduko bat egiteko ekitaldi bat antolatzen da, non udaleko eta herriko beste eragile eta ordezkari batzuek parte hartzen duten, eta herriko gida bat ere ematen zaie iritsi berriei, herriko leku eta zerbitzu esanguratsuenekin. Aipatu da, hala ere, ekitaldi hau nahiko formala dela eta horrek, agian, oztopo batzuk sortzen dituela partaideak erakarri eta konfiantzazko giroa sortzerako garaian.

### 7.1.6. Elkarreentzako laguntza zerbitzua

Gizarte Partaidetza programak herritarren parte hartze eta lagunkidetasuna bultzatzea ditu helburu, eta bertan egiten diren zereginen artean garrantzitsuenak elkarreentzako ematen zaizkien diru-laguntzak zein elkarre berriak sortzeko ematen diren laguntzak izango lirateke. Bestetik, herritarren parte hartzea bultzatzeko duten tresna nagusia Herri Gizarte Hezkuntza Kontseilua litzateke, non gizarte arloan lan egiten duten edo mugitzen diren herri eragile eta elkarreak, udala, ikastetxeak eta osasun zentroko arduradun edo mediku bat elkartzen diren. Beste egitura bat Adingabekoen Mahaia litzateke, non adingabekoen inguruko udaleko sail ezberdinak (Gazteria eta Aisialdia, Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak), ikastetxeak eta guraso elkarreentzako, zein programetako hezitzaile edo arduradunak (“Agipad” elkarreentzako esaterako) elkartzen diren. Hala ere, gizarte partaidetzari loturiko programa hau litzateke, Gizarte Zerbitzuen sailetik garatzen diren 4 programen artean ahulena.

Herri Gizarte Hezkuntza Kontseiluari dagokionez, gai edo kezka konkretoak elkarrekin lantzen saiatzen dira, elkarri informazioa trukatzetik abiatuz. Herrian zein kezka nagusitzen diren identifikatzen ere saiatzen dira. Hilero biltzen dira eta ikasturte bezala funtzionatzen dute. Adingabekoen Mahaiari dagokionez, lanketak egiten dituzte, esaterako, prebentzio arloan ere aisialdi aukerak eskaintzeko gazteei.

Halako taldeetan elkartzen direnerako, ez dute irizpide zehatzik partaideen gizon emakumeen kopuruak parekideak izango direla bermatzeko. Orain, pixkanaka, hasi dira hau kontutan izaten (esaterako, sagardo eguna antolatu zutenean, partaideen kopuruak sexuaren arabera aztertu zituzten kopuruak parekideak izan ote ziren ala ez ikusteko), berdintasun teknikari bat udalean sartzeak ekarri duen laguntzari esker.

Herriko elkarreentzako duten harremana ere, Gizarte Hezkuntza Kontseilu honetatik at, zuzena da euren arloarekin edo Gizarte Zerbitzuekin lotura duten elkarreentzako (beste elkarreentzako ez dute harremanik kontseilu honetatik at). Planteamenduak elkar trukatzeko dituzte, sarritan eurak dira udalera datozenak euren proposamenekin eta besteetan udala da euren gaitasuna hurbiltzen dena, elkarre hauen babes eta laguntza bila edo. Harreman hau, informala izango litzateke edo behintzat ez sistematizatua, baina bai hurbilekoa eta zuzena.

Hala ere, **ez da emakumeen partaidetza bultzatzeko neurri berezirik hartzen** oraingoz. **Elkarreentzako ematen zaizkien diru-laguntza eta elkarreentzako sortzeko laguntzen artean ere, ez dago irizpide edo neurri berezirik emakumeak lehenesteko edo partaidetzak sexuagatik orekatuak izan daitezkeen bermatzeko.** Honi begira, udalean ordenantza orokor bat prestatzen ari direla aurreratu digute diru-laguntzentzat, eta hor jada berdintasun teknikaria ari dela irizpide batzuk txertatzen egoera honi buelta emateko.

TALDE EDO ELKARTEA	ZENBATEKOA (€-tan)
Antijumorik / Xanistebanak	334,85
HELTA	13.198
Kilirikupe	5.600
Harri Beltza	3.000
Arraztalo	53.000
El Watan	6.000
Haziak Egitasmoa	6.628
Odol Emaileak	600
Osasun Pastoral	550
Gazte Izanak	11.000

27. Taula: Gizarte Zerbitzuetatik herriko taldeei ematen zaizkien diru-laguntza kopuruak  
 Iturria: Oiarzungo Udala  
 Egilea: Farapi Koop. Elkartea

2017ko datuen arabera, diru gehien jasotzen duen elkartea “Arraztalo” gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazio elkartea da alde dezentearekin, eta ondoren “HELTA” helduen tailerrak eta “Gazte Izanak” erretiratu eta adinekoen elkartea. Jarraian leudeke “Haziak Egitasmoa” eta “El Watan” Sahararen lagunen elkartea. Ondorioz, esan genezake diru gehien jasotzen dutenak (hemen zerrendatuta dauden gehienak) gizarte gaiak barne-hartzen dituzten elkarreak direla.



## 7.2. Laburbilduz: Gizarte Zerbitzuak

AHULGUNEAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte Zerbitzuen saila guztiz feminizatua egotea</li> <li>• Gizarte Larrialdietako diru-laguntzen datuak sexuaren arabera banatuak ez jasotzea</li> <li>• Diru laguntzen onuradunen familia unitateari buruzko daturik ez izatea</li> <li>• Mendekotasun eta desgaitasun zerbitzuak eta hauen inguruko prestazio ekonomikoen datuak sexuaren arabera banatuak ez jasotzea</li> <li>• Migrazio diagnostiko eguneratu baten falta (batez ere emakume migrarien egoera aztertuko duena)</li> <li>• Indarkeria sexista jasaten duten emakumeei arreta emateko protokoloa eguneratua ez egotea</li> <li>• Indarkeria sexistari aurre egiten ari diren emakumeen arretan, eragile ezberdinen artean ematen diren koordinazio arazoak</li> <li>• Biztanleria migrariarekin elkar-ulertzeko formazio falta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Migrazio diagnostiko bat egina egotea</li> <li>• Indarkeria sexista jasaten duten emakumeei arreta emateko protokolo bat egina egotea</li> <li>• Behemenditik landa eremuko adinekoen egoera ezagutzeko diagnostiko lanak eginda egotea</li> <li>• Krisi Mahaia, indarkeria matxista kasuen aurrean eragile ezberdinen arteko koordinazioa emateko</li> <li>• Herrira iritsitako migrariei harrera egiteko aktibatua dagoen prozedura</li> </ul>
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adinekoentzako zerbitzuen erabilpenean ematen diren desparekidetasunak</li> <li>• “Aiton-Etxe” eguneko zentroaren izenak rol maskulinoari soilik egitea erreferentzia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero ikuspegia txertatzeko irizpide eta neurri konkretuak sistematizatzeko kanpo aholkularitza jasotzeko aukera</li> <li>• Indarkeria protokoloa zein migrazio diagnostikoa eguneratzeko aholkularitza jasotzeko aukera</li> <li>• Erakunde ezberdinetatik lanketa hauetarako diru-laguntzak jasotzeko aukera</li> <li>• Formazioa jasotzeko erakunde ezberdinetatik ematen diren laguntzak</li> <li>• Mainstreaming-era bideratutako sailen arteko batzordearen laguntza jasotzeko aukera</li> </ul>

## 8. ETXEZ ETXeko LAGUNTZA ZERBITZUA

Zerbitzu hau Gizarte Zerbitzuen sailaren barnean kokatzen da eta herriko biztanleriaren zahartzeari eta adineko pertsonen hazkunde demografikoari erantzuteko sortu zen, familiek babes agente gisara bete izan duten papera ere aldatu dela kontuan izanez. Horrez gain, zainduen etxean bertan emateko zerbitzu bat diseinatu nahi zen, ikusita pertsona hauek ahalik eta denbora gehien egon nahi dutela beren etxean. Laguntza ekonomikoen atalarekin batera, aurrekontuaren zati handi bat eramaten duen zerbitzu bat da, baita herrian harrera mailarik onena duena ere. Honela definitzen da zerbitzu hau 2006ko ordenantzaz:

*Etkez etxeko laguntza zerbitzua zerbitzu publiko soziala da, beren kasa baliatzeko edo familiaren nukleoari osorik eusteko arazoak dituztenentzako dena eta ongizate fisiko, psikiko eta/edo soziala bere onera ekartzeko helburua duena, bakoitzari bere prebentzio, asistentzia eta/edo birgaitze programa aplikatua, ahal den bitartean norberaren etxean bizitzen laguntzeko<sup>3</sup>.*

Zerbitzu honetan **guztira 10 langile finko** daude eta **guztiak emakumeak** dira. Egia da, orain dela gutxi lan-poltsatik ordezkapen bat egiteko gizonetzko bat sartu zela, baina orokorrean, lan-poltsatik aldi baterako sartzan direnak ere emakumezkoak izan ohi dira. Aipatzen dute jendearentzat ez zela erraza izan gizonetzko zaintzaile bat irudikatu eta norberaren etxean, gure eremu intimoenetan sartzeko pausoa ematea (hor nabaritu ziren gizartean oraindik ere zaintzaile rola ezinbestean genero rol femeninoari lotuta ikusten dela).

Zerbitzuaren **erabiltzaile edo onuradunei dagokionez**, berriz, denetariko perfilak aurki ditzakegula diote etxez etxeko zaintzaileek. Hala ere, datuetan erreparatzen badugu, gehienak emakumezkoak direla ikusi ahal izango dugu: 36 emakume eta 23 gizon erabiltzaile daude. Hau, ziurrenik, biztanle adinekoenen artean gizon baino emakumezko gehiago egotearen ondorio bat da, emakumeen bizi itzaropena luzeagoa delako, edo emakumea denean gaixoa familia unitatea zaintzaile faltan gelditzen delako, zein alargundu gabeko gizonak emazteek zaintzen dituztelako. Azken urteetan, gaixotasun mentalen kasuak ere ugartzen ari direla diote, bai zerbitzu honetako langileek eta baita sail honetako arduradunak ere.

Langileak ez dira azpikontratatu, **zuzeneko kontratazio bat** ematen da eta udal langile gisara kontsideratu dira. Honek, euren lan-baldintzak azpikontratatuak direnak baino hobek izatea dakar: soldata duinagoak, eguneko ordutegi edo plangintzak ere udaletik zaindu bakoitzari dagokion gizarte langileek prestatzen dizkiete eta egokiak edo egingarriak dira... Zerbitzua kalitatezkoa izatea lehenesten da. Horregatik, herritarren eta batez ere, erabiltzaileen artean ere, oso ondo baloratua da.

Hala ere, langile hauek etxe bakoitzean (eguneko, batz bestea, 5-6 etxe pasatzen dituzte eta hori lan-karga handia da) betetzen dituzten **lan ugariak oso anitzak** dira eta alor asko ukitzen dituzte: mediku lana, psikologo batena, farmazeutiko batena, lan ekonomikoak (erosketak eta etxeko bestelako ordainketak gestionatzea), garbitzailea... Etxe edo familia bakoitzean bizi den egoeraren arabera, euren zereginak asko aldatu eta moldatzen dira. Horregatik, sarritan, euren lana noraino iristen den kanpotik ez dela ulertzen uste dute:

<sup>3</sup> Iturria: Gipuzkoako Aldizkari ofiziala, 177. Zenbakia, 21349 orria (2006-09-18). Udal Administrazioa, Oiartzungo Udala. Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren erregelamendu. Behin betiko onespina: [http://oiartzun.eus/fitxategiak/erab\\_2/1438704065-Etkez\\_etxeko\\_laguntza\\_Ordenantza.pdf](http://oiartzun.eus/fitxategiak/erab_2/1438704065-Etkez_etxeko_laguntza_Ordenantza.pdf)

*Bide horretan, zabaltasun horretan, ematen dugun lana askotan zaila da kanpoko batek, eta nik uste det askotan hori da gertatzen dena, kanpoko batek edo ardura dun goiko batek lankide beste edozein... Zaila eiten zaie jakitea noraino iristen garen. Ba igual zaintza edo holako lana dala pixkat ba bueno, eztakit, etortzen zaizula genetan eta, badakizula denetikan, (udal langilea 2).*

**Betetzen dituzten zereginen karga eta aniztasuna, ez direla guztiz ulertu eta errekonozitzen uste dute**, eta sarritan, “ospitale”, “egoitza” edo halako beste erakunde batzuetan egiten denarekin alderatzen dela. Lan mota honetan, ordea, erabiltzailearen espazio pribatuan zaude, bakarrik zenbait egoeraren aurrean eta ezagutzen ez duzun ingurune batean. Eta zereginak ere askoz anitzagoak dira, esaterako, denak ez dira lau pareten artean betetzen (lekualdaketak eta zenbait ekintza, zainduak eskatzen dituenak, kanpoan betetzen baitira. Ondorioz, beharko dituzun baliabideak ere anitzagoak eta moldagarriagoak izan beharko dute.

Eskaintzen zaizkien **baliabideei dagokionez**, zerbitzuaren erabiltzaileek beraiek beren etxeetan eduki behar dute langileak beharko duen guztia: garbiketa produktuak, botikina... Gruak edo tresna handiagoak beharko balira ere, zerbitzuaren erabiltzaileari erosteko eskaera egiten zaio, horretarako Foru Aldundiarekin egin beharreko tramiteak egiteko laguntza eskainiaz. Bestela, udaleko biltegian ere badituzte halako tresna batzuk, inoiz beharko balira, baina berez, eurak erosi behar dituzte (erresistentzia handiak egongo balira, zerbitzua etetea aurreikusten da). Ez dute ibilgailu propioak, bidaiak edo kilometrajea ordaintzen zaizkie, baina ez bidaiari izan ditzaketen istripu edo matxurak (Bidez-Bide zerbitzuari esker hori asko hobetu da, honi esker ez baitute zainduak euren auto propioetan medikura edo herri-gunera garraiatu beharrik). Arropari dagokionez ere, diru kopuru bat ematen zaie, denda jakin batzuetan gastatzeko, eta egokitzen zaizkien denda hauetan ez dago euren zeregin ugariari egokituko zaien arropa mota askorik. Laneko mugikor bat badute, baina ez du internetik.

Bestetik, eta zaintzen duten pertsonaren egoera larria den kasuetan, batez ere, oso **“disponible” edo eskuragai egon behar** izaten dute: mugikorrari lotuak, edozein unetan irteteko prest egon behar... Hala ere, ez dute honi egokitutako “plus”-ik soldatan.

*Askotan bai, (...) brigadakok eta hola, leno egoteagatik adibidez astebukaeretan eo zeozer izaten zuten plusak eztakit zer. Eta guri, askotan zaude telefonoakin badakizu? Klaro eske tokatzen zaigu kasuak, zeren daude bakarrik, badakizu edozer gauza, (...) eta disponibilitadeta eta ezer (udal langilea 3).*

Ulertuak ez izateak, **eskaerak egiterako garaian** (baliabide aldekoak edo euren lan-baldintzei begirakoak) zailtasunak edo erantzunarekiko “beldur sentazioa” ekartzen dizkie. Berez, eskaera hauek egiteko espaziorik aproposena udaleko sail ezberdinetako langileen arduradunak biltzen dituen **langileen komitea** litzateke, baina euren lan motagatik, zailtasunak izaten dituzte orduak liberatu eta espazio honetan aurrez adostu eta landutako proposamenak plazaratzeko. Horri lotuta, **espazio propio baten falta** sumatzen dute, bai euren artean elkartu eta hausnartzeko, baina baita egunerokoan bete behar dituzten fitxak bete edo ordezkokoak datozenean hauei informazioa behar bezala transmititzeko ere.

Ematen zaien **errekonozimendu faltari lotuta**, langileen artean ere C2 azpitaldean eta mailarik baxuenean, zortzigarrenean kokatzen dituzte. Errekonozimendu falta hau, gizarte mailan lan erreproduktiboek eta zaintza lanek (historikoki eta modu naturalizatu batean genero rol femeninoari egokitu zaizkienek) jasotzen duten diskriminazioari lotua egongo litzateke.

*Eztakit azkenian lan honek dakan historiya edo, konotaziyona, bolondres emakume... Eztakit, badaka nik uste ba genero aldetik, genero aldetik hori da ezta? Noiz baloratu zaio ama bati egin dula denetikan eta ekonomilaria da, denetikan heziketa, zaintza, enfermera da... Eta gu oso identifikatuak gaude zea horretan (...) ez da ikusi nahi (udal langilea 2).*

Azkenik, aipatu behar da lehen aipatutako etxez etxeko zerbitzuaren 2006ko **ordenantzan, aldaketak** egingo direla, zerbitzua malguagoa egiteko: asteburuetara eta larrialdi egoeretara zabalduaz. Honek aldaketak ekarriko ditu, baina ez da aurreikusten langileen lan-baldintzekiko aldaketarik ematea:

*“Lan baldintzak nik uste soladata duina dute, ordutegiak ere hala dira, baina bueno, oain zabaltze hortan malgutasun gehiago behar degu, orduan hor sortuko dira diferentziak langileen artean, esan nahi dut batzuk goizez ariko dira, beste batzuk ari dira arratsalde, asteburuetan... Esan nahi dut hor, nahiz eta soldata eta baldintza onak izan, ezberdina da astelehenetikan ostiralera goizez aritzea edo... Baina zerbitzua eskaintzeko ez dago beste modurik... Horrela izan behar du gure langileekin egin nahi badegu (udal langilea 4).*

## 8.1. Laburbilduz: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua

AHULGUNEAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espazio konpartitu eta propio baten falta</li> <li>• Formazio euskarri egonkor baten falta</li> <li>• Kotxe propio baten eta arropa zein mugikor egoki baten falta</li> <li>• Ordezkoari informazioa transmititzeko denbora eta espazio falta</li> <li>• Udaleko Sail ezberdinetako langileen ordezkeriak biltzen dituen Komitean parte hartzeko zailtasunak</li> <li>• C2 azpitaldea eta 8. maila, maila baxuena egotzen zaizkie (honek eragin ekonomikoa eta errekonozimendu aldekoa ditu)</li> <li>• Erretiroa 67 urterekin tokatzea: ez dira gai ikusten lan mota hau adin horretara arte betetzeko</li> <li>• Zerbitzua malguagoa egitea planteatzen da, baina langileen baldintzak egokitu gabe (asteburuetako plus-ak...)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxez Etxeko Zerbitzuaren kalitatea lehenestea kantitatearen gainetik: langileen kontratazioa zuzena da</li> <li>• Langile hauen ordutegiak edo eguneko plangintza udaletik aurrez planifikatzen da eta egokiak/egingarriak dira</li> <li>• Bilakaera bat egon da hoberantz langile hauen lan baldintzekiko</li> <li>• Gizarte langileekin harreman zuzenena eta sailaren arduradunarekin aldizkakoa: guztiekin harremana ona da</li> <li>• NURA laguntza psikosozialeko saioak: formazioaz gain, eguneroko arazoaren ebazpena eta laguntza psikologikoa</li> <li>• Bidez-bidez zerbitzuaren sorrerak zainduak eurak garraiatu behar izatea eragotzi izana</li> <li>• 2018ko Martxoaren 8an zaintzaren gaiari eman zitzaion presentzia</li> </ul>
MEHATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizartean zaintza lanen balioarekiko dagoen errekonozimendu falta: lan hauek emakumearen zaintzaile rol tradizionalarekin (naturazkoarekin) lotzen dira oraindik ere</li> <li>• Etxeko andre edo amen figuraren rol tradizionalarekin identifikatu(egi)ak sentitzen dira</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiltzaileek ere zerbitzua ondo baloratzen dute</li> <li>• Zerbitzu honetako langileek berdintasun gaietan formatzeko gogo handia (beren egoera ulertu eta hobetzeko gakoak lortzeko tresna gisara)</li> </ul>

- Emakume zaintzailearen rola/figura asetu beharra (bai modu orokorrean herrian edo gizartean, bai halako figura bat lanera doazen etxeetan falta denean)

- Gizarteko errekonozimendu faltak langile hauengan sortzen duen segurtasun falta, euren lan-baldintzak hobetzeko eskakizunak egiterako garaian

- Zerbitzu honetako langileek Berdintasun Sailarekin elkarlanean aritzeko gogoia: ulertuak izaten lagundu diezaiekeela uste dute

## 9. HEZKUNTZA

Hezkuntzaren atalean herriko hiru hezkuntza zentroyen osaketa eta jarduna aztertuko dugu berdintasun ikuspegitik: Elizalde Herri Eskola, Haurtzaro Ikastola eta Urmendi Haur Eskola. Hala ere, atal hau nahiko azaletik landuko da, ez baita Udalaren eskumenekoa.

### 9.1. Zentroetako osaketa: lan taldeak eta pertsonala

Jarraian zentro ezberdinetako irakasleen kopuruak aztertzen dira maila eta sexuaren arabera. Elizalderen kasuan, LH arteko datuak soilik ditugu eta Haurtzaroren kasuan, DBH arterakoak. Urmendi Haur Eskola denez, ez dago bertan maila banaketarik.

MAILA	ELIZALDE			HAURTZARO			URMENDI		
	EMAK.	GIZON.	GUZT.	EMAK.	GIZON.	GUZT.	EMAK.	GIZON.	GUZT.
HH	9	0	9	9	2	11	...	...	...
LH	15	2	17	19	6	25	...	...	...
DBH	...	...	...	15	10	25	...	...	...
Zuzendaritza taldea	2	1	3	...	...	...	...	...	...
Gorputz Hezkuntza taldea	1	1	2	...	...	...	...	...	...
Musika eta laguntza taldea	6	0	6	...	...	...	...	...	...
<b>GUZTIRA</b>	<b>33</b> (%89)	<b>4</b> (%10)	<b>37</b>	<b>43</b> (%70)	<b>18</b> (%29)	<b>61</b>	<b>20</b> (%90)	<b>2</b> (%9)	<b>22</b>

28. Taula: Elizalde, Haurtzaro eta Urmendiko irakasle kopuruak maila eta sexuaren arabera (2017-2018)

Iturria: Elizalde, Haurtzaro eta Urmendi hezkuntza zentroak

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Hiru zentroetan, **irakasleen gehiengoa emakumeak** dira: Elizalden %89a dira, Haurtzaron %70a eta Urmendin %90a. Mailari erreparatzen badiogu, badirudi gazteenak diren adin tarte edo mailetan (hau da, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan) pilotzen direla emakume irakasle gehien, eta zaharragoetan (DBH-n alegia) gizonezko irakasle gehiago aurkitzen direla. Urmendi Haur Eskolaren kasuan, esaterako, irakasle guztiak, bi ezik, emakumeak dira. Beraz, burutu beharreko **zereginak zaintza hutsari** (eta ez hainbeste, edukiak transmititzeari) lotuak daudenean, rol maskulinoaren parte hartzea baxuagoa (edo ia nulua) da.

Hiru zentroetako Jangela Zerbitzuko langileen kasuan ere, %94a emakumezkoak dira.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
ELIZALDE	23	2	25
HAURTZARO	22	0	22
URMENDI	2	1	3

<b>GUZTIRA</b>	<b>47 (%94)</b>	<b>3 (%6)</b>	<b>50</b>
----------------	-----------------	---------------	-----------

29. Taula: Elizalde, Haurtzaro eta Urmendiko jangela zerbitzuetako langileak, sexuaren arabera (2017-2018)

Iturria: Elizalde, Haurtzaro eta Urmendi hezkuntza zentroak

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Azkenik, Elizalde eta Haurtzaro ikastetxeetako Guraso Elkarteei dagokionez ere (Urmendin ez baitago Guraso Elkarterik), nagusiki emakumez osatuak daude: Elizaldeko kasuan, emakumeak Guraso Elkarteko kideen %80a dira eta Haurtzaron %88a.

Beraz, oso garbi ondorioztatu daiteke datu hauetatik, Oiartzunen hezkuntza formalaren arloa, ikastetxeetako langileriarri eta hauetan gurasoek duten partaidetzari dagokionean, guztiz feminizatua dagoela. Hau ez litzateke Oiartzunen soilik ematen den errealitate bat izango, joera orokorra baita bai hezkuntzari eta baita zaintzari loturiko zereginak rol femininoari atxikitzea. Errealitate hau irauli eta joerak orekatzeko, beharrezkoa litzateke gizonezkoak eta mutil gazteak zaintzari lotutako zereginak burutzera eta zaintza ohiturak hartzera bultzatzea.

## 9.2. Zentrozen jarduna berdintasun ikuspegitik

Zentrozen jarduna berdintasun ikuspegitik nola ematen den modu arin batean aztertu ahal izateko, hezkuntza zentro hauek, berdintasun ikuspegi batetik, jardun gisara txertatu beharko lituzketen puntu edo zeregin batzuk zerrendatu ditugu, eta hauekiko duten egoera zein den aztertu dugu.

Oro har, berdintasunarekiko lanketa gehien egiten duten zentroak Haurtzaro eta Elizalde zentroak dira. Izan ere, Urmendi Haur Eskola izanik, normala da gai hau lantzeko hainbesteko beharrik ez izatea edo ez planteatzea. Azken batean, oraindik genero rolak kasik finkatzeke dituzten haurrei zuzenduriko egitura bat dira.

### 9.2.1. Hezkuntza edo zentroko proiektuan genero ikuspegia txertatuta izatea:

Haurtzaro Ikastolaren hezkuntza proiektuan aipamenak egiten dira aniztasuna eta generoaren inguruan, baina aipamen soilak dira: ez dago lanketa sakonagorik gai honen inguruan. Elizalderen kasuan ere, kontziente dira lanketa honetan sakontzen jarraitzeko duten beharraz. Oraingoan, gai hau euren hezkuntza proiektuan ikusgarriago egiteko lanean ari dira. Urmendiko kasuan, ez da lanketa berezirik egiten berdintasunaren gaiaren inguruan euren hezkuntza proiektuan.

### 9.2.2. Datuak sexuaren arabera jasotzea

Proiektuak, balorazioak eta memoriak egiterakoan, zein zentroak antolatzen dituen ekintzetan, partaideen, antolatzaileen edo sor daitezkeen talde ezberdinetako kideen kopuruak jasotzen direnean, beharrezkoa da sistematikoki sexuaren arabera jasotzea. Honela, posible izango baita, berdintasun ikuspegitik, egoeraren irakurketa bat egitea etorkizuneko ekintza posibletarako.



Honi begira, eta Hautzaro Ikastolari dagokionez, memoria jasotzeaz gain eskolaz kanpo antolatzen diren ekintzetan ere datuak sexuaren arabera jasotzen dira. Beste bi zentroetan ere ikasle eta irakasleen kopuruak sexuaren arabera jasotzen dituzte, baina ez dute zehaztu noiz edo non.

### **9.2.3. Espazioaren antolaketan berdintasun ikuspegia**

Espazio itxi nahiz irekietan (geletan, patioan...), genero araberako bereizketak eman izan dira sarri. Esanguratsuenak patioetan eman ohi dira, non batez ere genero rol maskulinoari atxikitzen zaizkien kirolek (eta hauen artean, futbola litzateke nagusi), patioaren zentroa eta azalera handi bat okupatzen duten, genero rol femeninoa eta honi atxiki izan zaizkion jolasak bazterretan egiten diren bitartean. Ikastetxe askok, esaterako, “futbolik gabeko egunak” planteatu izan dituzte astean egun batez ohiko patioko jarduera eta espazioaren antolaketarekin hausteko.

Hautzaro Ikastolari dagokionez, eta oraindik halako lanketarik egin ez den arren, aurreko ikasturtean jolas eremuen eta komunen banaketak berdintasun ikuspegitik lantzeko proposamenak mahai gainean jarri zituzten. Elizaldekoek ere diote urtero dihardutela horretarako lanean. Urmendiko kasuan, ez dute halako lanketa bat beharrezkoa ikusten, adin horretan, euren zentroko espazio guztiak bateratuak direlako.

### **9.2.4. Hizkuntza, paisaia eta iruditegia sexista ez izatea**

Zentroak barne nahiz kanpoko dokumentuetan erabiltzen dituen testu eta irudiak sexistak ez izateari dagokionez, aztertu ditugun hiru zentroek egiten dute saiakera berau bermatzeko. Aipatzen dutenez, euren jardunean erabiltzen dituzten dokumentu batzuetan hein batean baldintzatuak aurkitzen dira hau guztia bermatzeko. Izan ere, editorialek edo kanpoko eragileek prestaturiko euskarrietan ezin dituzte aldaketak egin.

### **9.2.5. Ikasturteko programazioa berdintasun ikuspegitik landu eta osatzea**

Elizalde Herri Eskolaren kasuan, Oarso-Bidasoako gainontzeko ikastetxeekin batera, “berritzeguneko” mintegian kandutako irizpideak jarraitzen dituzte programazioa berdintasun ikuspegitik lantzeko. Hautzaroren kasuan, programazioaren barruan berdintasunaren gaiari begira edo ikuspuntu honetatik egiten diren jarduerak puntualak da eta oso arinak dira. Euren arazoa, gai honen inguruko lanketa sakonagorik eta adostasunez hartutako erabakirik ez edukitzea da. Urmendikoek ez dute honen inguruko lanketarik egiten.

### **9.2.6 Generoa, hezkidetzaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko formazioa**

Hautzaron ez dute generoaren edo hezkidetzaren inguruko formaziorik jaso eta hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko formazioa ere, ikasleek soilik jasotzen dute. Elizaldekoak hau hobetzeko lanean dihardutela diote eta hezkidetzaren lan-talde bat ere badutela (beste bi zentroek ez dute hezkidetzaren lan-talderik). Urmendikoek duela 10 urte jaso zuten generoa eta hezkidetzaren inguruko formakuntza antzeko bat, baina besterik ez.

### **9.2.7. Hezkidetzaren edo/eta hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko programak**

Elizalderen kasuan aipatu dute, Gabonetara begira jostailu sexisten aurkako zerbait egitea aurreikusten dutela, eta Haurtzaron ere badituzte ikasleei begirako halako proiektuak (LH 5 eta DBH 4 maileri zuzenduak), baina irakasleei begirakoak ez. Urmendiren kasuan ez dute halako programarik.

### **9.2.8. Berdintasunaren aldeko ekimen eta ekintzak**

Haurtzaro eta Elizalde zentroek Azaroak 25 (“Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna) eta martxoak 8rako (Emakumeen Nazioarteko Eguna) ekimen eta ekintzak antolatzen dituzte. Elizalden, bi data seinatu hauetarako “txoko more” bat eta pasabideak ere antolatzen dituzte. Urmendin ez da halakorik antolatzen.

### **9.2.9. Oiarzungo hezkuntza zentroen arteko koordinazio egiturak**

Elizalderen kasuan, Hezkuntza eta Gizarte Batzordeak foro egokitzat ikusten dituzte koordinazio hau emateko. Haurtzarokoek “Adingabekoen Mahaia” aipatu dute (Gizarte Zerbitzuen atalean ere aipatu dena), baina hemen hezkuntza formaleko eragileez gain beste batzuk ere badaude, beraz, ez litzateke espaziorik egokiena euren ustez. Behin barneko lanketa bat egin ondoren, halako mahai edo egitura baten bat sortzeko beharra nabaria dela ere azaltzen dute.

### 9.3. Laburbilduz: Hezkuntza

<p style="text-align: center;"><b>AHULGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero ikuspegia txertatzeko irizpide eta neurri jakinak sistematizatuta ez izatea</li> <li>• Hezkidetzan formazio falta</li> <li>• Kasu guztietan ez daude hezkidetzan lan-taldeak</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>INDARGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Datuak sexuaren arabera jasotzea (nahiz eta ez den zehaztu zentroak antolatutako ekintza guztietan jasotzen diren)</li> <li>• Genero ikuspegia hainbat proiektu eta gaitan txertatzeko saiakera, modu sistematizatuan ez bada ere</li> <li>• Berdintasunari lotutako data seinalatuetan, aldarrikapen ekintzak antolatzea</li> </ul>
<p style="text-align: center;"><b>MEHATXUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntzaren arloa, bertan lan egiten dutenen aldetik, guztiz feminizatua egotea</li> <li>• Emakumeen presentzia batez ere zaintza lanei lotuago dauden adinetako ikasgeletan ematea</li> <li>• Gurasoen elkarrekin ere feminizatuak egotea</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>AUKERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Formazioa jasotzeko erakunde ezberdinetatik eskaintzen diren laguntzak</li> <li>• Genero ikuspegia txertatzeko irizpide eta neurri konkretuak sistematizatzeko kanpo laguntza jasotzeko aukera (udala, aholkularitzak...)</li> <li>• Hezkidetzan lantzeko sortuta dauden euskarri eta materialak</li> </ul>

## 10. KIROLA, GAZTERIA ETA AISIALDIA

Oiartzungo Udalaren Gazteria eta Kirola Sailak bat eginik lantzen dira, hargatik, hemen atal berean landuko ditugu. Gazteria aldetik, taulan zehazten den bezala, gizonetako den gazteria dinamizatzaile bat eta emakumezko administrari bat genituzke. Kirolari dagokionez, berriz, Kirol zinegotzi bat eta teknikari bat aurkitzen ditugu, biak gizonetakoak.

GAZTERIA ETA KIROLA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A2	Gazteria Dinamizatzailea	0	1
C1	Kultura-Gazteria Administraria	1	0
...	Kirol teknikaria	0	1
GUZTIRA		1	2

30. Taula: Oiartzungo Gazteria eta Kirol Saileko langileen datuak postuaren eta sexuaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

### 10.1. Sail honen jardura berdintasun ikuspegitik

Sail honen jarduna berdintasun ikuspegitik aztertzeko, aurreko atalean bezala, berdintasun ikuspegi batetik txertatu beharko liratekeen puntu edo zeregin batzuk zerrendatu ditugu, eta horiekiko sail honek duen egoeraz galdetu galdetegi bidez.

Bestetik, aipatu behar da ere kirol zerbitzuaren inguruko erabakiak Oiartzungo Udal Kirol Aholku Batzordearen bidez hartzen dira: kirol eragile bakoitzeko ordezkari bat bildu eta honela, eragile hauen ekarpenak jasotzen dituzte gai ezberdinen inguruan. Urtean behin edo bitan elkartzen dira, Udalak deialdia egiten duenean.

#### 10.1.1. Datuak sexuaren arabera jasotzea

Kirol arloan, eskualde mailakoa den “Kirolaz” izeneko aplikazio informatiko baten bidez jasotzen dituzte datuak, eta kirol elkarteek ere sarbidea dute bertara. Aplikazio honekin jasotzen diren datuak sistematikoki sexuaren arabera banatuta jasotzen dira. Gazterian ere, HBAZ, Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzuaren erabiltzaileen datuak sexuaren arabera jasotzen dira.

#### 10.1.2. Hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista

Eskuartearen dituzten dokumentuetako testu eta irudietan erabilera ez sexista egiteko saiakera egiten dute, baina ez dute horretan lagunduko dien, edo hori bermatuko duen irizpide jakinik sistematizatua.

#### 10.1.3. Diru-laguntza, lehiaketa eta kontratazio berrietarako oinarrietan berdintasun ikuspegia

Kirolaren arloan, diru-laguntzak banatzerako garaian, badute irizpide bat, emakume gehiago biltzen dituzten taldeei puntu gehiago atxikitzeko kalkulua sistematizatzen duen. Puntu gehiago izatean, diru gehiago jasotzen dute. Gazteria arloan ez litzateke halakorik egongo. Hortik aparte, kontratazio eta lehiaketetarako eta ez dute irizpiderik berdintasun ikuspegia txertatzeko.

#### **10.1.4. Bi arloetako programazioak berdintasun ikuspegitik landu eta osatzea**

Programazioak landu eta osatzerako garaian berdintasun ikuspegia txertatzea bermatuko duen irizpiderik ez dute.

#### **10.1.5. Ekintzak, ekimen edo ekitaldiak antolatzerakoan herritar guztien interesak kontuan hartzea**

Kirol arlotik, kirol astearen barruan emakumearen inguruko eguna antolatzen dute, eta gainontzean antolatzen dituzten ekintzetan ere taldeak parekideak izatea begiratzen dute. Gazteria aldetik, **ez dago irizpide jakinik** herritar guztien interesak kontuan hartzen direla bermatzeko.

#### **10.1.6. Ekintza, ekimen edo ekitaldietan emakumeen partaidetza sustatzea**

Kirol zein gazteria arlotik, **ez da bestelako neurri berezirik hartzen** emakumeen partaidetza modu bereizian sustatzeko. Kirol arlotik lehen aipatutako diru-laguntzetako irizpidea soilik legoke, zeinaren bidez emakumeak biltzen dituzten taldeak lehenesten diren.

#### **10.1.7. Kirol jarduera maskulinizatu eta feminizatueta emakume edo gizonen parte-hartzea orekatzea**

Jarduera maskulinizatueta emakumeen partaidetza lehen aipatutako diru-laguntzetako irizpidearen bidez sustatuko litzateke, neurri batean, baina hortik aparte, ez da bestelako lanketarik egiten edo ez dago irizpide jakinik, oreka hau lortzeari begira.

#### **10.1.8. Berdintasunaren aldeko ekimen eta ekintzak**

Ez dute berdintasunaren aldeko ekimen eta ekintza berezirik antolatzen.

## **10.2. Kirol arloari lotutako datuak**

---

Kirol arloari dagokionez, herriko hainbat kirol egitura eta ekintzen inguruko datuak ere jaso dira. Esaterako, Elorsoro Kiroldegiko zenbait datu bildu ditugu. Bazkide datuei dagokionez, 2017-2018 ikasturtean dena 5.247 bazkide daude kiroldegian. Horietatik % 52a (2.754) gizonetakoak eta % 47a (2.493) emakumeetakoak lirateke. Kopuruak, sexu aldetik, nahiko orekatuak dira beraz. Bazkide hauek kiroldegian burutzen dituzten jarduerak ere aztertu ditugu, sexuaren eta adinaren arabera:

ADINA	0-7 urte		8-18 urte		19-35 urte		36-50 urte		51-65 urte		>65 urte		GUZTIRA				
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	(%)	G	(%)	Guz.
Aerobik	0	0	1	0	2	0	3	0	7	0	0	0	<b>13</b>	100	<b>0</b>	0	<b>13</b>
Cycling	0	0	12	0	14	8	37	27	17	24	0	4	<b>80</b>	55	<b>63</b>	44	<b>143</b>
Eskalada	1	1	6	3	0	0	0	0	0	0	0	0	<b>7</b>	63	<b>4</b>	36	<b>11</b>
Entrenamendu funtzionala	0	0	2	0	32	15	33	16	4	2	0	0	<b>71</b>	68	<b>33</b>	31	<b>104</b>
Kick boxing	0	0	2	4	0	6	3	2	0	0	0	0	<b>5</b>	29	<b>12</b>	70	<b>17</b>
Gimnasia	0	0	0	0	0	0	3	0	11	0	14	0	<b>28</b>	100	<b>0</b>	0	<b>28</b>
Hipopresiboak	0	0	0	0	1	0	10	0	3	0	0	0	<b>14</b>	100	<b>0</b>	0	<b>14</b>
Pilates	0	0	1	0	1	0	0	3	4	2	3	1	<b>9</b>	60	<b>6</b>	40	<b>15</b>
Tonifikazioa	0	0	0	0	1	0	3	0	3	1	1	0	<b>8</b>	88	<b>1</b>	11	<b>9</b>
Yoga	0	0	0	0	0	0	4	0	4	0	23	0	<b>31</b>	100	<b>0</b>	0	<b>31</b>
Zumba	9	0	9	0	1	0	15	0	2	1	0	0	<b>36</b>	97	<b>1</b>	2	<b>37</b>
Igeriketa	51	64	52	63	0	2	9	5	8	5	4	2	<b>124</b>	46	<b>141</b>	53	<b>265</b>
Aquagym	0	0	0	0	0	0	1	0	4	0	2	0	<b>7</b>	100	<b>0</b>	0	<b>7</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>61</b>	<b>65</b>	<b>85</b>	<b>70</b>	<b>52</b>	<b>31</b>	<b>121</b>	<b>53</b>	<b>67</b>	<b>35</b>	<b>47</b>	<b>7</b>	<b>433</b>	62	<b>261</b>	37	<b>694</b>

31. Taula: Elorsoro Kirolegeiak eskaintzen dituen jardueretako erabiltzaileen datuak sexua eta adinaren arabera (2017-2018)

Iturria: Oiarzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Adinaren arabera, emakume eta gizonen arteko desorekak ematen dira 36 urtetik gorako adin tartetean. Ordutik aurrera, erabiltzaileen kopuruak sexuaren arabera desorekatuak izaten hasten dira: oro har, kirol hauek egiten dituzten emakume gehiago dago gizonak baino. Posible da gizonezkoak kiroldegiak eskaintzen dituen jardueretatik at dauden beste kirol batzuk egitea ere, eta futbol edo pilota elkarteetan egotea. Jarduera bakoitzaren arabera irakurketa egiten badugu, berriz, guztira dauden 13 jardueretatik 7 oso feminizatuak daude: aerobik, gimnasia, hipopresiboak, tonifikazioa, zumba, yoga eta aquagym. Kirolegitik ematen diren jarduera hauen artean ez dago hain maskulinizatu dagoen jarduerarik (ziurrenik futbola edo pilota bezalako jarduerak beste elkarte batzuetatik ematen direlako). Kick boxing-a litzateke maskulinizatu dagoen jarduera, gainerakoetan, kopuruak nahiko orekatuak dira.

Kiroldegitik at, **Oiartzunen astero ematen diren kirol jarduerak** honako hauek dira:

ADINA	Zehaztugabeak		8-18 urte		19-35 urte		36-50 urte		>65 urte		GUZTIRA					(NON)
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	(%)	G	(%)	Guztira	
Areto futbola					0	29	0	7					<b>36</b>	100	36	Elorsoro
Atletismoa			34	30	3	3	0	1	0	2	<b>37</b>	50	<b>36</b>	49	73	Haurtzaro ikastola
Dantza Garaikidea			49	2							<b>49</b>	96	<b>2</b>	3	51	
Errebotea					0	5							<b>5</b>	100	5	Madalensoro
Eskalada			4	2							<b>4</b>	66	<b>2</b>	33	6	
Eskola Kirola			83	161							<b>83</b>	34	<b>161</b>	65	244	
Esku Pilota			0	60	0	9							<b>69</b>	100	69	Madalensoro
Euskal Dantzak			48	8							<b>48</b>	85	<b>8</b>	14	56	
Futbola	0	1	52	161	17	59					<b>69</b>	23	<b>221</b>	76	290	Ugaldetxo
Gimnasia Erritmikoa	1	1	42	2	8	0					<b>51</b>	94	<b>3</b>	5	54	Elorsoro
Igeriketa			21	5	1	1					<b>22</b>	78	<b>6</b>	21	28	Elorsoro
Joko Garbi					0	5							<b>5</b>	100	5	
Judoa	8	13	11	22	0	9	0	3			<b>19</b>	28	<b>47</b>	71	66	Elorsoro
Kenpo Kai			3	20	0	3					<b>3</b>	11	<b>23</b>	88	26	Elorsoro
Pala			4	3	3	5	2	3	0	1	<b>9</b>	42	<b>12</b>	57	21	Madalensoro
Saskibaloia	0	2	30	6	0	13					<b>30</b>	58	<b>21</b>	41	51	Elorsoro
Txirrindularitza			1	14	0	2	0	7	0	26	<b>1</b>	2	<b>49</b>	98	50	
Hip Hop			24	4							<b>24</b>	85	<b>4</b>	14	28	Elorsoro
Skate			5	19			1				<b>6</b>	24	<b>19</b>	76	25	Skate Park
Mendi lasterketak	0	1			3	4	4	15	0	1	<b>7</b>	25	<b>21</b>	75	28	Mendian
Euskal Makila							0	2	0	1			<b>3</b>	100	3	Elorsoro

OIARTZUNGO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA

Zaldiketa			7	1							7	87	1	12	8	
<b>GUZTIRA</b>	<b>9</b>	<b>18</b>	<b>418</b>	<b>520</b>	<b>35</b>	<b>147</b>	<b>7</b>	<b>38</b>	<b>0</b>	<b>31</b>	<b>469</b>	<b>38</b>	<b>754</b>	<b>61</b>	<b>1223</b>	

32. Taula: Oiartzunen astero ematen diren gorputz eta kirol jardueretako partaideak sexua eta adinaren arabera (2017-2018)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Guztira zerrendatu diren 22 jardueretatik, 11 maskulinizatuak dira: areto futbola, errebotea, esku pilota, futbola, joko garbi, judoa, kenpo kai, txirrindularitza, skate, mendi lasterketak eta euskal makila. 22 horietatik 6, berriz, feminizatuak lirateke: dantza garaikidea, euskal dantzak, gimnasia erritmikoa, igeriketa, hip hop eta zaldiketa. Elorso Kiroldagiko jardueren erabiltzaile-datuekin gertatzen zen bezala, hemen ere jarduera edo kirol jakin batzuk batez ere emakumeek edo batez ere gizonezkoek praktikatzan dituzte, genero rolen araberrako banaketa emanaz. Egia da salbuespenak ere ematen direla, esaterako, zaldiketan emakumeen parte hartzea gizonezkoena baino altuagoa da, baita igeriketan ere, edo pilates egiten duten gizonen kopurua emakumeenaren parekoa da. Hala ere, genero rol tradizionalen araberrako bereizketa horiek hautsi eta kirol maskulinizatuetan emakumeen, zein kirol feminizatuetan gizonezkoen partaidetza sustatzeko zerbait egin beharko litzateke.



Azkenik, herriko kirol elkarten artean sail honetatik ematen diren diru-laguntzen inguruko datu batzuk ere jaso dira:

PARTIDAK		
Subentzioak erakundeei funtzionamendu gastuetarako	70.000 €	
<b>Eskualdeko elkarteei diru-laguntza</b>		
Oarsoaldeko Igeriketa Kirol Elkarte	1.024,32 €	
<b>Beste izaerako taldeei diru-laguntzak</b>		
Hurtzaro Mendi Taldea	1.200,00 €	
Girizia Mendi Taldea	2.500 €	
Oiartzungo Muturreko M.K. Kirol Kluba	1.500 €	
Lartaun Zikloturista Elkarte	1.500 €	
<b>Diru-laguntza eskatu duten kirol taldeak</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>Guztira</b>
Hurtzaro Atletismo Taldea	195,5	5.125,19 €
Mikel Donea Euskal Makil Joko Taldea	114,5	3.001,71 €
Oiarpe K.E. (pilota, errebotea)	290,5	7.615,70 €
Oiartzun K.E. (futbola eta areto futbola)	938,5	24.603,55 €
Oiartzungo Saskilagunak S.K.T.	157,5	4.128,99 €
Oiartzungo Rangerrak Kirol Kluba	26	681,61 €
Txost Oiartzun pilota	274	7.183,13
Intxixu Trail - Girizia Mendi Lasterketa Taldea	79,5	2.084,16 €
OTXE	121	3.172,11 €
Tximeleta Elkarte	178,5	4.679,52 €
<b>Guztira</b>	<b>2.375,50</b>	<b>62.275,68 €</b>

32. Taula: Oiartzungo kirol elkarteei diru-laguntzak (2017-2018)

Iturria: Oiartzungo Udaleko web-orria

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Bertan jasotzen denaren arabera, Oiartzun Kirol Elkarte litzateke alde oso handiarekin diru gehien jasotzen duen elkarte. Elkarte hau, futbolera eta areto futbolera dago zuzendua. Beraz, nabaria da Oiartzunen (beste herri askotan bezala) futbolak aurrekontu aldetik (ere) hartzen duen pisua. Ondoren, Oiarpe Kirol Elkarte legoke, pilota eta errebotera zuzendua dagoena, eta Txost Oiartzun Pilota taldea, biak ere aurrekontu aldetik nahiko orekatuta. Jarraian Hurtzaro Atletismo Taldea, Tximeleta Elkarte eta Oiartzungo Saskilagunak leudeke, hauek ere aurrekontu aldetik elkarren artean nahiko orekatuta. Gainerako elkarteek hortik beherako aurrekontuak litzukete.

Hemen **nabarmentzekoena futbolaren pisua** litzateke, gainerako elkarteekiko oso altua dena, eta nagusiki gizonetakoek praktikatzen dutena. **Pilotak ere nahiko pisu** hartuko luke eta berau ere, oro har **genero maskulinoari loturiko kirola** litzateke. Atletismo taldea eta Tximeleta Elkarte, soinketa erritmikora zuzendua dagoena, lirateke emakumeek presentzia gehiago luketen taldeak. Argi dago beraz, aurrekontu aldetik maskulinoz datuzkagun kirol horiek dutela lehentasuna.

Hala ere, esan beharra dago futboleko eta pilotako elkarte hauek direla puntuaziorik altuena duten taldeak. Lehen aipatu bezala, taldeetan emakume gehiago biltzen dituztenek puntuazio altuagoa jasotzen dutela badakigun arren, hori kalkulatzeko eta hemen jasotzen diren emaitzak lortzeko ze pauso jarraitu diren zehatzago aztertzea beharrezkoa litzateke, hausnarketa fin bat planteatu ahal izateko.

Jarraian, **Eskola Kirolaren inguruko zenbait datu** aztertzen dira. Tamalez, arlo honetatik bideratzen diren jardueren datuak gordetzen dituen sistema informatikoarekin arazo batzuk egon dira dokumentu hau idazten ibili garen momentuan, eta ondorioz, ezin izan dira nahi beste datu jaso.

2017-2018 ikasturtean eskola kirolek aurrera eraman diren kirol eta gorputz jardueren dagokionez, honako 9 hauek izan dira:

- Saskibaloia
- Eskubaloia
- Futbola
- Atletismoa
- Tatami jolasak
- Herri kirolak
- Eskalada
- Pilota
- Arrauna
- Igeriketa
- Kirol egokitua
- Hockey
- Errugbia
- BTT
- Orienteering
- Triatloia
- Colpbol
- Piraguismoa
- Iristaketa jokoak

**Nabarmentzekoena, berriz ere, nagusiki genero rol maskulinoari atxiki izan zaizkion kirolen gailentzea edo ugaritasuna** litzateke: futbola, saskibaloia, pilota, errugbia, hockey-a, BTT, herri kirolak... Hala ere, aipatzeko da badirela zenbait kirol jarduera interesgarri ere, Colpbol-a esaterako, partaide mota guztien arteko talde lana bereziki bultzatzen duen kirola izanik. Hala ere, ez da ahaztu behar futbolarekiko antzekotasun nahiko dituela. Iristaketa jolasak ere, patinen gainean ibiliz egitekoak, zein tatami jolasak, igeriketa etab. interesgarriak lirateke, nesken parte hartzea sustatzeari begira. Baita kirol egokituak ere, herriko haur eta nerabe mota guztien parte hartzea bilatzeko.

Hala ere, beharrezkoa da jakitea kirol jarduera hauetako bakoitzean parte hartzen duten haur eta nerabeen datuak sexuaren arabera izatea, sistema informatikoaren arazoak direla eta lortu izan ezin direnak. Datu haiekin, hobe ikusi ahal izango zen, hipotesietara jo gabe, ze jarduerak bultzatzen duten batez ere mutilen parte hartzea, zeinek neskena, eta zeinek orekatua. Eskola Kirolaren arloan dihardutenek diotenez, neska zein mutilek jarduera guztietan hartzen dute parte, baina ez dakigu ezer kopuruei dagokionez.

Bestetik, Eskola Kiroleko begirale eta prestatzaileen datuak honako hauek lirateke:

- Hezitzaileak: 6 emakume eta 8 gizonezko
- Ikastetxeko koordinatzaileak: 2 emakume
- Udaleko koordinatzailea: gizonezko 1

Sexu aldetik kopuruak nahiko orekatuak dira, baina azpimarratu behar da lan-talde honek ez duela genero gaien inguruko edo hezkidetzari buruzko formakuntzarik jaso, eta beraz premiazkoa litzatekeela nerabeekin lan egiteko. Izan ere, nerabetasuna bizitzako etapa garrantzitsua da gai hauekiko sentsibilizazioa nerabeengan errotu eta prebentzio gisara jokatzeko.

### **10.3. Gazteria eta aisialdiaren arloari loturiko datuak**

---

Jarraian, Gazteria eta Aisialdiaren arlotik zuzentzen diren programa eta zerbitzu ezberdinetako (ezin izan dira guztietako datuak lortu) partaide zein hezitzaileen datuak agertzen dira, sexuaren arabera banatuta. Horrez gain, hezitzaileen kasuan, formazioa duten ala ez ere jaso da.

PROGRAMA		PARTAIDEAK		HEZITZAILEAK		Zenbatak duen berdintasunean formazioa
		Neskak	Mutilak	Emakumeak	Gizonak	
<b>HAURRENTZAKO ZERBITZUA</b>	Abaraxka Haur-Txokoa	...	...	2	0	...
	Familia eremua	...	...	2	0	...
<b>NERABEAK</b>	Kuadrilategi	95	81	3	3	6
<b>GUZTIRA</b>		<b>95</b>	<b>81</b>	<b>7</b>	<b>3</b>	<b>6</b>

33. Taula: Oiartzungo Gazteria eta Aisialdia arloko programen datuak (2017-2018)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Partaide kopuruari dagokionez, Kuadrilategiko datuak bakarrik eskuratu ahal izan dira, eta ikusten denez, kopuruak nahiko orekatuak dira sexu aldetik. Hezitzaileei dagokionez ere, Kuadrilategiren kasuan orekatuak dira, baina beste bi kasuetan ez. Berdintasunean formazioa izateari begira, Kuadrilategiko hezitzaile guztiek dute jaso eta Udalekuetara jasotzen dutela hezkidetzaren formazio bat azaldu digute. Beste bi programetako hezitzaileek formazioa duten ala ez ezin dugu esan, ez baitugu horren inguruko daturik jaso.

## 10.4. Laburbilduz: Kirola, gazteria eta aisialdia

<p style="text-align: center;"><b>AHULGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Oro har, genero ikuspegia beren proiektu eta lanetan txertatzeko irizpide eta neurri sistematizaturik ez izatea</li> <li>• Herritar guztien interesak kontuan hartzeko irizpiderik ez izatea, ekintzak antolatzerako garaian</li> <li>• Berdintasunaren aldeko ekintzarik ez antolatzea</li> <li>• Emakumeen partaidetza sustatzeko neurri berezirik sistematizatua ez izatea</li> <li>• Herriko kirol elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzetan kirol maskulinoen taldeek duten pisua gainerakoen kaltetan</li> <li>• Kirol maskulinizatuetan emakumeen partaidetza eta kirol feminizatuetan gizonen partaidetza sustatu eta orekatzeko neurri berezirik sistematizatua ez izatea</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>INDARGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Datuak sexuaren arabera jasotzen dira modu sistematizatuan</li> <li>• Diru-laguntzen banaketan, emakume gehiago biltzen dituzten herriko taldeak saritzeko irizpide sistematizatua izatea</li> <li>• Kuadrilategiko hezitzaileen kopurua sexuagatik orekatua izatea eta hezkidetzaren formazioa izatea</li> </ul>
<p style="text-align: center;"><b>MEHATXUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizartean oraindik ere kirol jakin batzuk genero rol jakin bati oso lotuak egotea</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>AUKERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero ikuspegia txertatzeko irizpide eta neurri konkretuak sistematizatzeko kanpo laguntza jasotzeko aukera</li> <li>• Mainstreaming-era bideratutako sailen arteko batzordearen laguntza jasotzeko aukera</li> </ul>

## 11. KULTURA

Kultura Saileko lan-taldeari dagokionez, kopuruak nahiko orekatuak dira sexuaren arabera. Kultura arduraduna gizonetara litzateke baina sail honetan pisu inportantea duen Euskara arduraduna emakumea.

KULTURA ETA EUSKARA			
TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	EMAKUMEA	GIZONA
A1	Kultura Arduraduna	0	1
	Euskara Arduraduna	1	0
	Liburuzaina	1	0
E/BT	Eskola Atezaina	0	1
C1	Liburuzain Laguntzailea	1	0
GUZTIRA		3	2

34. Taula: Oiartzungo Kultura Saileko langileen datuak postuaren eta sexuaren arabera (2017-2018)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Honako hau da, bestetik, Kultura Sailetik 2017-2018 ikasturtean luzatutako aurrekontua. Bertan ikusten den lez, liburutegia litzateke momentu honetan aurrekontu gehien duen arloa. Izan ere, dokumentu hau idatzi bitartean, liburutegiari lotutako obrak eman dira, Hirigintzaren atalean jada aipatu den bezala. Ondoren, Museoak, Musika Eskola eta azkenik Jaiak lirategi gainerako aurrekontuaren zatia eramaten duten alorrak.

Alorra	Diru kopurua (eurotan)
Museoak	143.000
Musika Eskola	107.000
Liburutegia	170.000
Jaiak	95.000
<b>Guztira</b>	<b>901.000</b>

35. Taula: Oiartzungo Kultura Saileko aurrekontua (2017-2018)

Iturria: Oiartzungo Udala

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

### 11.1. Kultura saileko jarduna berdintasun ikuspegitik

#### 11.1.1. Kultura saileko jardun orokorra

Berdintasun ikuspegia batez ere jaiei begirako jardunean hartzen da kontuan. Izan ere, 2017ko abenduan jai berdinzaleen alde egindako lanketak (gero sakonduko da honetan) aldaketak ekarri dituela nabari da jaiei begira ematen diren antolakuntza eta zeregin ezberdinetan. Baina hortik aparte ikusten da, kultura sailari dagozkion bestelako jardunetan, ez dagoela

berdintasunari begirako lanketarik eginga (nahiz eta jaien arloan eman diren aldaketek eragin duten kultura sailaren jardun orokorrean, batik bat hausnarketak abiaraziz).

- **Datuak sexuaren arabera banatuta jasotzea**

Kultura saileko jardun orokorrean **ez dira datuak sexuaren arabera banatuak jasotzen**. Honek, horren inguruko analisia egitea galarazten du, sailaren jardun orokorraren argazkia jasotzea galaraziz. Argazki hau gabe, zail da jarduera ezberdinetan berdintasunaren alde ze aldaketa edo ze neurri bultzatu beharko liratekeen irudikatzea. Ondorioz, hau abiatu beharreko lehen urratsa litzateke.

- **Genero gaien inguruko formakuntza**

Gai honi dagokion **formakuntza espezifikorik ere ez da jaso** sail honetan, eta berau ere beharrezkoa litzateke gaiari lotutako lanketak ezagutza-oinarri batetik abiarazteko.

- **Ikerketa lanak berdintasun ikuspegitik**

Bestetik, sailetik ematen den jarduera berdintasun ikuspegiaren arabera nolakoa den aztertzeko **ikerketa lanik ere ez da egin (jaietan ez bada)**. Analisi hori egiteko, nola ez, datuak sexuaren arabera bereziak jasotzen hasi beharko litzateke lehenengo.

- **Hizkuntza eta irudi ez sexistak**

Ondoren, hizkuntza eta iruditeria ez sexista erabiltzeko **irizpide jakinak beharko** lirateke, hau bermatzeko saiakeraren bat ematen bada ere, ez delako honen inguruko lanketa sakonik egiten (jaietan bai, lanketa hau sakonagoa litzateke).

- **Herritar guztien interesak kontuan**

Antolatutako ekintza eta jardueretan herritar guztien eta **genero rol anitzen partaidetza bultzatzeko ere ez da neurri berezirik hartzen**, honetan hausnartzen hasi badira ere batez ere kirol ekintzei eta jaiari begira.

- **Dirulaguntza, lehiaketa eta kontratazio oinarrietan berdintasun ikuspegia**

**Ez da ikuspegi hau kontuan hartzen, modu formalean behintzat** (jaietako kontratazioetan ezpada), eta ez dago horretarako irizpide jakinik.

- **Herriko emakumeen ekarpenak ikusarazi eta balioan jarri**

Azkenik, **ez da egin Oiartzungo emakumeek historian egin dituzten ekarpenak aztertu eta balioa emateko lanketarik**, eta antolatzen diren erakusketetan emakumeen presentzia bermatzeko ere ez dago irizpide jakinik (dena den, azken urtean, 2017an antolatu ziren 3 erakusketetatik batek emakumeak zituen protagonista, emakumeen taldeko eskulanak erakusten baitzituen).

- **Emakumeen partaidetza sustatu**

Badaude berdintasunaren ikuspegiari begirako lanketak ere: hala nola, **antolatutako zenbait jardueretan emakumeen partaidetza bermatu dadin eskatzen hasi dira, jaietan** eta hauetan ematen diren haurren ekintzetan, zein kirol ekintza eta musika saioetan. Hasiera bat litzateke, baina **hala ere beharrezkoa da partaidetza hori kultur sailetik antolatutako ekintzetan parekatua izan dadin bermatzeko irizpide batzuk zehaztea. Oiarzungo emakumeen artelanak erakusteko ekimen bat ere ematen da** urtero, emakumeen taldeko eskulanei dagokiona alegia, eta hauek erakusteko leku finko bat ere badute atxikita (udaleko pleno aretoa edo liburutegia).

- **Berdintasun ikuspegia argitalpen ezberdinetan**

Urtekaria eta Mugarri argitalpenei dagokienez ere, egiten da lanketaren bat. **Urtekarian, elkarrizketatuen parekidetasuna bermatzen da** (redakzio batzordea ere feminizatua da). Mugarri, berdintasun ikuspegia kontuan hartzeko saiakerak egiten dira, baina ez da lehentasunezkoa (gaia garrantzitsuagoa da eurentzat, egilea edo elkarrizketatua baino). Beraz, **zerbait egiten bada ere, beharrezkoa da lanketa, irizpide eta neurri zehatzagoak finkatzea bi argitalpen iturri hauetan.**

Azkenik, aipatu behar da berdintasunaren alde martxan dagoen ekimen bakarra Oarsoaldeko jaien inguruan eginiko lanketa eta horren jarraipena dela, eta beraz, lanketa hau sail osora hedatu beharra dagoela.

### **11.1.2. Herriko jai nagusien, “Xanistebanen” inguruko jarduna**

“Xanistebanak” dira Oiarzungo jai nagusiak eta abuztuan ospatzen dira. Jaietan zehar, herritar talde edo gai jakin bati zuzenduriko egun jakin batzuk ospatzen dira: Baserritarren Eguna, Gazteen, Helduen edo Haurren Eguna bezala. Egun hauetan antolatzen diren ekintzei dagokionez, denetik legoke: kirola, kontzertuak, haurrentzako ekintzak, dantza, antzerkia, herri bazkariak... Hauen antolakuntza Jai Batzordetik egiten da (txupinazoa nork botatzen duen ere eurak hautatzen dute), eta bertan, herriko hainbat eragilek hartzen dute parte. Momentu honetan, honako 35 elkarte hauek leudeke bertan: Lartaun Txistulariak, Haurtzaro Atletismo, Intxixu Trail, Kalera, Auzokalte, Oihartzun Guk, Txost, Artaso, Soinuenea, Lartaun Txistularien elkarte, Arraztalo, Elizalde eskola, Esku GARBIAK, Ibargain, Bertso eskola, Asanblada Feminista, Helta, Iturri Berri, Lartaun zikloturistak, Gaztiak, Girizia, Ardi Latxa, Gure Esku, Flauta taldea, Aldeguna, Lartaun ehiza, Oiarpe, Haurtzaro, Mindara elkarte, Erraldoein konpartsa, eta Antijumorik.

2017ko abenduan, Oarsoaldeko udalerrietan (Oiarzun barne) jaien inguruko lanketa bat egin zen, Oarsoaldeko Garapen Agentziatik sustatu eta Elhuyar Aholkularitzatik bideratuta. Honela, udalerrri hauetako jaien egoeraren diagnostikoa eta jai hauek berdinzaleagoak egiteko plana burutu ziren. Ateratako ondorio nagusien artean, lan-banaketak genero rolen arabera emateko dagoen joera (esaterako, haurren ekintzetan hauen zaintzan daudenak batez ere emakumeak izatea) eta berdintasun ikuspegia berriaz edo modu sistematizatuan kontuan ez hartzea leudeke. Dena den, lanketa prozesu honek lagundu du, aurrerago aipatu den bezala, berdintasun ikuspegia Kultura Sailaren jardunean txertatzeko beharraz hausnartzen.



Atal honetan, Kultura Saitetik jai hauen bueltan ematen den jardunari buruz arituko gara, beti ere, berdintasun ikuspegitik. Hemen ere, horretarako, zenbait zeregin edo puntu garrantzitsu proposatu eta hauen inguruko egoera nolakoa den aztertu dugu. Hau egiteko informazioa, Kultura Sailak bete dituen galdetegietatik eta 2017an burututako jaien berdinzaileen aldeko diagnostiko eta planetik lortu da.

- **Hizkuntza eta irudi ez sexistak**

**Aurkeztutako kartel eta programazio denak aztertu** dira ikusteko ea baten bat baztertu egin behar zen ala ez. Hala ere, azaltzen dutenez, ez dira lehenetsi genero irizpideak aukeraketarako. Jai berdinzaileen txostenean aipatzen denez, saiakera egiten diren arren, **ez legoke komunikazioa ez sexista bermatzeko irizpide edo neurri jakinik sistematizatu.**

Dena den, **berdintasunaren aldeko mezu batzuk jaso dira:** “festetan gurekin beldurrak jai” eta zaintza kanpainaren inguruko mezuak, erantzunkidetasuna bultzatzeko.

- **Jai Batzordearen egitura**

Lehen aipatutako elkarte guzti horien ordezkariak biltzen dira jai batzordean, eta ordezkari hauek, normalean behintzat, errepikatu egiten dira. Hala ere, asistentzia mailak asko aldatzen dira. Zinegotzi eta teknikariak zenbatuta, azken 3 bileretan honelakoak izan dira kide kopuruak, sexuaren arabera banatuta:

- 6 emakume /9 gizon
- 5 emakume / 20 gizon
- 12 emakume / 18 gizon

Oso zail da esaten partaidetza hau feminizatua, maskulinizatua edo orekatua ote den, etengabe aldatzen baita. Dena den, **nabari da ez dagoela partaidetza hau** Jai Batzordeak antolatzen dituen bileretan (hau da, bileretarako hautatzen diren ordezkarien artean) **parekidetasuna bermatzeko irizpide jakinik**. Bestetik, Jai batzordearen barruan emakume eta gizonek betetzen dituzten **funtzio ezberdinak eta bakoitzaren ekarpenak zeintzuk diren aztertzeko ere lanketarik ez** da egin oraindik. Oarsoaldetik jaien inguruan egindako txostenean aipatzen denez, Jai Batzordean emakume baino gizonezko gehiago egon ohi dira, eta horixe da elkarrizketatuen ustea ere. Hala ere, beste lan talde batzuetan (Txosna Batzordean, esaterako), emakumeak leudeke nagusiki. Horrez gain, funtzioen banaketak ere bakoitzaren aukeren arabera ematen diren arren, funtzio hauek genero rolen arabera banatzeko joera bat antzematen da. Bestetik, partaideen artean genero gaiekiko dagoen jarrerari dagokionez, aurten gaia oso presente egon dela aipatzen da, berdintasun teknikariaren presentziak, zinegotziaren laguntzaz, gaiari lekua egin dielako, Jai Berdinzaileen Plana ezartze bidean.

- **Herritar guztien interesak kontuan**

Azken urteetan lanketa hau egitearen beharraz **ohartzen hasi dira**, batez ere antolatutako ekintzen **parte hartze datuak sexuaren arabera banatuta jasotzen hasi direnetik**. Izan ere, horien ebaluazioa egiten hastean ohartu dira **zenbait ekintza zeinen maskulinizatuak dauden**. Baina oraindik **ez dute** herriko perfil eta genero rol anitzen interesak kontuan hartuko direla **bermatzeko irizpide edo neurri sistematizaturik**. Jai berdinzaileen aldeko txostenean ere Xanistebanak, oro har, kirol ekintzez jositako landa giroko jaiak direla jasotzen da, eta ondorioz, emakume gutxiaren interesa erakartzea lortzen dutela.

- **Emakumeen partaidetza sustatzea**

Oarsoaldetik bultzatutako txosten honetan, jaietan gehien ematen diren ekintzak kirol eta musika ekintzak direla aipatzen da, eta hauetan **gizonezkoen partaidetza emakumeena baino altuagoa** dela. Musika ekintzetan edo taldeen kontratazioan genero ikuspegia txertatzeko saiakera egiten dutela azaldu da sailetik, oholtza agineko partaidetza orekatua izateko, baina txostena egindako momentuko azterlanetan behintzat, kontratatutako %70a gizonezkoek osatzen zuten. **Emakumeen partaidetza gehien ematen den ekintzak kultur ekintzak lirateke.** Hauen barnean danborrada emango litzateke, esaterako, baina bertan ere ez da eman kantineraren figura aldatzeari buruzko hausnarketarik sailaren partetik. Bestetik, emakumeen partaidetza **haurrei zuzendutako ekintzetan ere** altuagoa izango litzateke, bereziki zaintzan daudelako.

Kultur Sailaren aldetik azaltzen da, jaietan emakumeen partaidetza sustatzeari dagokionez, **asanblada feministaren egitaraua** legokeela batetik, Jai batzordearen barruan proposatu eta aurrera eramaten dutena. Horrez gain, azken urtean **zenbait aldaketa** ere egin direla azaldu dute, ekintza batzuetan, **emakumeak erakartze aldera**: krossaren ibilbidea laburtzea, herri kiroletan neskak ekartzeko saiakera, zaintza kanpaina egitea erantzunkidetasuna bultzatu eta emakumeen partaidetza erreztzeko... Sari banaketetan ere, Udaletik emakume baserritarrak saritzeko proposamena luzatu zen, figura honi balio soziala emateko omenaldi gisara.

Hala ere, **ez dago irizpide** edo **neurri** jakinik **sistematizatua**, jaietako ekintza guztietan, **modu integral batean**, emakumeen **partaidetza sustatzeko**.

- **Indarkeria matxista jaietan**

Jai berdinzaileen diagnostikoan zehazten da jaien aurretik, “Krisi Mahaia” bildu izan dela (Gizarte Zerbitzuen atalean aipatu dena), erasoren bat gertatzen bada ze urrats eman behar diren zehaztu eta gero hauek, Jai Batzordeari transmititzeko. Bestetik, mugimendu feministak ere asanblada deitzen du gai honen inguruan zer egin erabaki eta kanpainak diseinatzeko: honela, erasoen aurkako “kit”-ak banatu izan dituzte. Bestetik, kultur sailetik adierazi digute indarkeriarik gabeko gune bat ere jarri dela plazan 4 egunez.

## 11.2. Laburbilduz: Kultura

<p style="text-align: center;"><b>AHULGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Datuak sexuaren arabera modu sistematizatuan ez jasotzea (jaietan ez bada)</li> <li>• Berdintasun gaien inguruko formakuntza espezifikorik ez izatea</li> <li>• Herritar guztien interesak kontuan hartuko direla bermatzeko irizpide jakinik ez izatea, antolatzen diren ekintzetan</li> <li>• Emakumeen partaidetza sustatzeko neurri berezirik ez izatea sistematizatua (jaietan zerbait egiten hasi badira ere)</li> <li>• Oiarzungo emakumeek historian eginiko ekarpenak balioan jartzeko ikerketa/ekimen gehiago ez egitea</li> <li>• Jai Batzordeko partaidetza normalean sexuagatik orekatua ez izatea</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>INDARGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jai Berdinzaleen inguruko diagnostiko eta plana egina egotea</li> <li>• Oiarzungo emakumeen arte-lanak ikusarazteko ekimena antolatzea urtero</li> <li>• Oiarzungo emakume baserritarrak omentzeko ekimen bat egitea</li> <li>• Krisi Mahaia biltzea jaietan indarkeria matxistaren aurrean nola jokatu zehazteko</li> </ul>
<p style="text-align: center;"><b>MEHTXUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jaietan edo bestela antolatzen diren ekintza asko genero rol jakin bati atxikitzen zaizkio, barne hartzen duten gaiaren arabera</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>AUKERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mainstreaming-era bideratutako sailen arteko batzordearen laguntza jasotzeko aukera</li> <li>• Emakumeek kultur ekintzetan duten partaidetza nahiko altua da (batez ere jaietan)</li> <li>• Liburutegi berriak aukera ematen du feminismoari lotutako lanei espazio berri bat emateko</li> </ul>

## 12. HERRI MUGIMENDUA

Herri mugimenduaren atal honetan, batez ere Oiartzungo mugimendu feministaren eta bere baitan biltzen diren taldeen inguruan jardungo dugu, azkenik herriko elkartegintzaren edo talde guztien begirada zabalago bat ere gauzatuz. Herriko talde eta elkarte guztien mapak herri mugimenduaren berri ematen digute, aldi berean, herritarren behar, zaletasun edo interesei buruzko argibideak ere emanaz. Oso alor edo gai anitzei lotuak egon daitezke: eskubideen aldarrikapenak, gai sozialak, kirola, aisialdia... Diagnostiko honi dagokionez, garrantzitsuena, talde hauen dinamiken artean berdintasunaren gaiak edo genero ikuspegiak zer nolako presentzia izan dezakeen ikusten saiatzea izango da, ahulguneak identifikatu eta lanketa posibleak irudikatzen hasteko. Izan ere, herri parekide baten bidean, berdintasunaren gaiak herri mugimendua zeharkatzea ezinbestekoa da.

### 12.1. Mugimendu Feminista

Oiartzungo **mugimendu feministaren egungo egiturari** dagokionez, bi talde nagusi bereizi behar ditugu: “Antiju Morik” eta “Asanblada Feminista”. Antiju Morik taldea 2012an sortu zen berdintasun gaia eta feminismoa Oiartzungo kaleetara plazaratzeko helburuarekin, eta ordutik, behar horretan dihardute herrian hainbat ekintza antolatu eta herri feministago bateranzko urratsak bultzatuz. Bere bilakaeran zenbait gora behera eta aldaketa bizi izan baditu ere (geroago hobeto ikusiko dugun moduan), egun herriko mugimendu feministaren oinarriko taldea da, hainbat urtetako ibilbidea duen talde finkoa. Osatzen duten partaideak ere nahiko finkoak dira eta modu erregular batean biltzen dira.

Azken urtean, 2017an, bigarren talde bat sortu zen, Asanblada feminista, Antiju Moreen taldeak bizi zuen krisi batetik eta herriko neska ugariaren hurbiltzeak eskatzen zuen antolamendu berri baten beharretik. Izan ere, Antiju Moreetako partaide kopuruak behera egin zuen eta jaitsiera horrek edo, beste fenomeno bat ekarri zuen: Euskal Herrian horren errotua dagoen “koadrila formatuan” biltzearena alegia. Euren zirkulua itxi egin zen eta “betikoak” gelditzen ziren, “Antijumoreetakoak”. Herriko beste emakumeek ere, ziurrenik, eginda dagoen talde edo koadrila itxi moduan ikusiko zituztela aipatzen dute bertako kideek. Modu honetan, zail da taldera hurbiltzeko urratsa ematen ausartzea, bertako kideren batek “engantxatzen” ez bazaitu behintzat. Aurreko urteko jaiei begira, ordea, neska gazte ugari hurbildu ziren deitu zen asanblada irekira, eta honek planteamendu berriak bilatzeko beharra erakutsi zuen, guzti hauek herriko mugimendu feministara “engantxatzeko” saiakera horretan. Honela sortu zen egungo egitura berria, Antijumoreek eta Asanbladak osatua.

Talde berri honek egitura ireki eta malguago bat izatea bilatzen zuen, mugimendu feministara partaide berriak erakarri eta mugimendura eraginkorrago egokitzeko helburuarekin. Modu honetan, Antiju Moreen taldeari batuko zitzaion egitura handi edo orokorrago hau sortu zen, egoera edo data jakin batzuetan bilduko zena: Xanistebanak, Martxoak 8, Azaroak 25... Asanbladako partaideak ez dira finkoak, edozein sartu edo atera liteke edozein momentutan, eta ez da Antiju Moreen taldea bezain modu erregular batean biltzen. Egitura ez hain zurrin honek partaideak erakartzeko gaitasun handiagoa du, konpromiso luzeak hartzea edo gure agendak libratzea hain zaila den garai honetan.

Urtean zehar **antolatzen dituzten ekintza nagusiak** hiru data nagusiren bueltan biltzen dira: herriko jaiak edo Xanistebanak abuztu hasieran, azaroaren 25a (emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna) eta martxoaren 8a (emakumeen nazioarteko eguna). Ekintza potolo hauek antolatzeko, Antiju Moreen taldea Asanbladara batzen da, eta talde handiago horren edo Asanbladaren baitatik antolatzen dituzte ekintza hauek. Antiju Moreen sorrerako urteetan ekintza hauek antolatzeko herriko beste eragile (Ikastetxeak, Kilirikupe Emakumeen Elkarte, HELTA Helduen Tailerrak...) eta udalarekin elkarlanean aritzen baziren ere, antolatzeko modu honetan aldaketak eman ziren. Elkarlana ere berez ez zen ematen, hori baino gehiago, bakoitzak bere zeregina hartu eta bere aldetik betetzen zuen. Astebeteko formatu bat egiten zen ekintza askorekin, eta sarritan, ekintza batzuetan, antolatzaileak bakarrik egoten ziren ia. Herritarren partaidetza mailara egokitzeari begira, eta hain talde ezberdinak koordinatzeko zailtasuna eta lan zama zela medio, egitarau arinagoak antolatzen hasi ziren, egun batekoak, eraginkorragoa baitzen euren antolatzeko gaitasunei eta herritarren parte hartzeari begira ere.

Hiru data nagusi hauez gain, urtean zehar bestelako ekintzak ere antolatzen jarraitzen dute, herriko behar, interes eta euren gaitasunen arabera: autodefentsa tailerrek edo eskola feministek, kale ekintzek edo kontzentrazioek, esaterako, arrakasta handia izan zuten. Horrez gain, edo ekintzen antolakuntzez gain, hausnarketarako moduko herramienta batzuk ere garatu dituzte:

Bere ibilbide eta jardunean identifikatu daitezkeen indar-gune eta ahulgune batzuk aipatuko ditugu jarraian. **Indar-guneei dagokionez**, berdintasunaren eta feminismoaren gaia herrian txertatu eta kalera ateratzen jarraitzeko gaitasuna aipatu beharko litzateke. Akuilu lan handia egin dute, herritarren artean kontzientziak astintzen eta batez ere, udalari gai honekiko konpromisoa hartu eta aurrera egin dezan bultzatzen, zirikatzeko lan moduko bati esker presioa eraginez, baina beren lana boikotatuko duen oztopo gisa jokatu gabe. Berdintasunaren gaia aintzat hartuko duen udal politika egitera bultzatu diete, proposamenak egin eta bide posibleak erakutsiz, adibidez:

*Oaintxe ya Maitaneri adierazi zaio nahi genukela ba adibidez bi gauza: bat, herriyak sarreran "hemen ez da eraso sexistarik onartuko..." kartel dotore bat, finko bat hola, ez? Eukitzea, hori Udalari egin zaion eskaera da, ta gero, nahi genukeela edo, landu nahi dugula nola komunak, serbiziyuak, nola ba neska-mutiko dikotomia hortatik aldatzea, bai munizipalak diren guneetan eta gero, tabernetara ta re bai iritsi, Udala batetik, gu bestetik. Hoi ezta txorrada bat (mugimendu femnistako kidea 1).*

Bestetik, herrian zeuden gaiarekiko erresistentziak azaleratzeko gaitasuna ere izan du, beren aldarrikapenak mahai gainean publikoki argi utzi dituzten heinean. Herriko emakumeen parte hartzea bilatzeko arazo batzuk izan badituzte ere, azkenean planteamendu berriak bilatu eta egungo eta herriko egoerara eta horren arabera partaidetzara egokitzeko gaitasuna ere izan dute, denen partaidetzaren bidez mekanismo berriak sortuz. Azkenik, batez ere kalera begira lan egiten duten talde bezala definitzen diren arren (euren helburua "feminismoa kalera ateratzea" dela diote), herriko instituzioekin eta beste eragileekin elkarlanean aritzeko gaitasuna ere badutela erakutsi dute. Kalera begirakoan berriz, euren ekintzak originalak eta jendearengana iristeko modukoak izaten saiatzen dira. Euren ekintza gehienak herriaren erdigunean kokatzen badituzte ere, tarteka saiatzen dira auzoetaraino irits daitezkeen ekintzak ere gauzatzen, Martxoak 8 batean gauzatu zuten kotxe-karabana arrakastatsua bezala.

**Ahulguneei dagokionez**, beren ibilbideko momentu jakin batzuetan herriko beste emakume batzuetara ireki eta partaideak biltzeko zailtasunak izan dituzte, lehen aipatu bezala. Hala ere, ez da euren soilik den arazo bat bezala ikusi behar, izan ere, herritarren artean ere halako partaidetzako konpromisoetara batzeko zailtasunak antzematen dira. Euren ustez, errazagoa da ekintza jakin batera jendea hurbilaraztea (behin eskura jartzen diozunean jarrera onez hartzen du gaia eta parte hartzen du), baina oso zaila, jendea hortik haratago inplikatzeko edo modu erregularrean parte hartzeko ohiturara bihurtzea.

Bestetik, antolatzen dituzten ekintzetan herriko emakumeen partaidetza bilatzeko zailtasunak ere badituzte, beren herriko biztanleriaren sakabanaketa dela eta. Azkenean, ia 10 mila biztanleko herria izanagatik, herriko erdigunean bizi diren 2 mila biztanle inguru dira antolatutako ekintzen jakitun egin eta hauetara hurbiltzeko moduan leudekeenak (edo horretarako erraztasun gehien dituztenak). Udaletik bideratzen diren diru-laguntzei dagokionez ere, inoiz ez dute behar bezain argi izan zenbat diru egokitzea tokatzen den berdintasun gai edo elkarteetara. Euren ekintzen zati handi bat modu autogestionatuan finantzatzen dute, eta hortaz aparte behar duten diru kopurua eskatzen joaten dira (hau da, ez dute diru kopuru finko bat urtero jasotzen). Beharbada berez zenbat egokituko litzaieken (eurei edo berdintasun gaiari) jakitea komenigarria izango zela aipatzen dute, batez ere diru kopuru hori ez dela beste gauza batzuetara bideratuko bermatzeko:

*Hori ere gero ta argiago dago, badagola, ta ez dela erabili izan, ta erabili ez denez, galdu egin dela, galdu eo beste gauz batzuetara bideratu, orduan, hoi re ezta. (...) baina uste dut hala ere poltsa bat egon badagola, (...) elkarte edo herriko antolakuntz feministetarako, independentea. Hori igual ez degu inoiz behar bezin argi ere eduki gauzak planteatzerakoan, ez degu planteatu inoiz (mugimendu feministako kidea 1).*

**Herriarekiko duten ikuspegi orokorrari** dagokionez, berdintasunaren gaiaren inguruan, jendea sensibilizatuagoa dagoela uste dute orain duela urte batzuk baino. Izan ere, berdintasunaren gaia momentuan airean dagoen zerbait da gizartean eta komunikabideetan, eta testuinguru horrek eragina du jendearengan. Hala ere, zalantzak dituzte “pixka bat arraskatuta” ez ote lirakeen lehengo mamu eta pentsamolde berak berriz ere azaleraziko. Beraz, lanketa asko eta sakonagoak beharko lirakeke oraindik ere.

**Emakumeen segurtasunari** dagokionez, herriaren arazo nagusia erdigunearen eta auzoen artean ematen den komunikazio falta dela uste dute. Distantzia handiak sortzen dira eta egunez arazoak ematen badituzte, zer esanik ez gauez. Bidean zeharkatu beharreko kale asko eta asko egunez ere hutsik egoten dira, eta ondorioz, gauez ere oso arriskutsuak gerta daitezke: genero indarkeriaren agerleku egokiak bihurtzen dira. Lehen aipatu bezala, herrian “Puntu Ilunen Diagnostiko” bat burutu zen, gehien bat argizatzea hobetzeko proposamenekin herriko hainbat puntutan. Herriko mugimendu feministako kideentzat, ordea, hori ez da nahikoa. Izan ere, zertarako hobetu argiztapena bestela ere kale horietan inork ikusia izatea oso zaila bada, hain hutsik egotean? Euren ustez, egokiagoa eta eraginkorragoa litzateke gauez ere autobus zerbitzu bat ezartzea, puntu jakin batzuk lotuko dituen.

## 12.2. Oiartzungo elkarteak eta berdintasun ikuspegia

Oiartzungo elkartegintza modu orokorrean aztertuko dugu ondoren. Guztira 47 elkarte zerrendatu ditugu, eta horrek Oiartzunen dezente herri mugimendua dagoela erakusten du. Hemen jaso ditugun elkarten artean hiru mota ezberdinetakoak bereizten dira: kultur elkarteak, kirol elkarteak eta gizarte elkarteak (tartean emakumeen taldeak daudelarik).

Kultur Elkarteak	Kirol Elkarteak	Gizarte Elkarteak
Oiartzungo Bertso Eskola	Oiartzun Kirol Elkartea (futbola eta areto futbola)	Kilirikupe (berdintasunaren aldeko emakumeen taldea)
Hautzaro Dantza Taldea	Oiartzungo Saskilagunak	HELTA Oiartzungo Helduen Tailerrak
Auntxa Trikitixa Eskola	Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkartea	Arraztalo (gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa)
Oiartzungo Flauta Taldea	Oiarpe, Oiartzungo Pilota Eskola	Osasun pastoralara
Azmarrin (Sozialismoa, independentzia, hezkuntza, ekologia, feminismoa...)	Tximeleta (soinketa erritmikoa)	Antiju Morik (talde feminista)
Oiartzungo Antzerkizaleak	Hautzaro Atletismo Taldea	El-Watan (Sahararen lagunen elkarte)
Beloaga Bizirik (Beloaga gaztelua, historia)	Hautzaro Mendi Taldea	Gazte Izanak (erretiratu eta adinekoen elkarte)
Lartaun Abesbatza	Hautzaro Kenpo-Kai	
Oiartzun-Karraz Senidetza Elkartea	Elizaldetarrak Judo Elkartea	
Ugaldetxo Kultur Taldea	Girizia Zikloturista Taldea	
Oiartzungo Erraldoien Konpartsa	Girizia Pala	
Ihote Taldea (Inauteriak)	Girizia Mendi Elkartea	
Olarri Dantza Taldea	Girizia Sokatira	
Elizalde Dantza Taldea	BTT Taldea	
Herri Musikaren Txokoa	Lartaun Zikloturista T.K.E.	
Luberri (ikasgune geologikoa)	Mikel Donea Euskal Makil Joko Taldea	
Kattin Txiki (memoria historikoa)	Oiartzungo Kenpo Kai Elkartea	
Hautzaro Trikitixa Eskola	Power Rangers (areto futbola)	
Intxixu Herri Kultur Lantaldea-Maurixiren Sotoa Euskaltegia	Txost Pilota Taldea	
Lartaun Txistulariak	Baobab (areto futbola)	
<b>20</b>	<b>20</b>	<b>7</b>

27. Taula: Oiartzungo Elkarteak gaia edo motaren arabera (2018ko uztaila)

Iturria: Oiartzungo Udaleko web-orria

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Talde hauetan ikus daitekeen bezala, gehienak kultur gaiei eta kirolari loturiko elkarteak dira, eta gizarte gaiei lotuta kontsideratutako taldeetan ere, berdintasuna lanerako ardatz gisa planteatzen duten taldeak gutxi dira. Horrek erakusten digu, berdintasunaren gaia gero eta presenteago badaukagu ere gure egunerokoan, oraindik ere ez dagoela oso hedatua.

Honen adibide gisara, mugimendu feministako kideek herrian hain ospetsuak diren "intxixuen" adibidea ipini zuten. Intxixuak bertako inauterietako pertsonaia nagusiak dira, eta ez daude

berez genero rol jakin bati lotuak. Egun, intxixuen figurarekin batera sorginaren figura jartzen da, genero rolen banaketa hori egin ahal izateko edo:

*Ta geo hemen ere intxixuak, ba eztaikit nola, ba eztaikit nola itten degun ze okerrago ezin da ein, baino nahi gabe, eransten dizkiou sorginak intxisuei, ta orduan yasta, intxixuak dia gizonak ta sorginak dia neskak. Eta ez zen hola hasiera batean e? Eta maskara hoyen azpian, egia da geyenak gizonezkoak izaten tziela baino bazeuden neska batzuk, ta gero bat-batean sorginaren figura ateratzen da festa osatzeko edo, eta azkenian...(mugimendu feministako kidea 1).*

Honek erakusten du, modu inkontziente batean edo, oraindik ere badagoela joera genero rolen banaketa tradizionalari atxikitako moldeetara jotzeko. Oso zail da gure pentsamenduaren barnean urtez urte errotu diren molde horiek guztiz eraldatzea, eta beraz, beharrezkoa da gure praktikak (edo kasu honetan, jaiak eta herri ekintzak) genero ikuspegi batetatik etengabe birbegiratzea (baita herri berdinzale batean gaudela uste dugunean ere).

Esaterako, jaiez gain, bestelako ekintzei lotzen zaizkien kultur elkarteek lan asko dute oraindik egiteko berdintasun ikuspegia euren jardunean txertatzeari begira. Hasteko, beharrezkoa litzateke **elkarte hauetako zein antolatzen diren ekintzen atzean dagoen lan-taldeetako kide kopurua sexuaren arabera** bereizia jasotzen duten datuak izatea. Datu horiek ez daudenez, hurbilketa bat egiten saiatu da elkarteen artean batzuk nagusiki emakumez osatuak (dantza eta musika taldeak), beste batzuk nagusiki gizonezkoek osatuak (txistulariak edo memoriaren inguruko ekintzak, esaterako) eta beste batzuk genero aldetik orekatuak direla ondorioztatu da (antzerki edo ihoteak, esaterako).

Era berean, **ez dago daturik ere antolatzen dituzten ekintza nagusienetan herriko emakumeen partaidetza zenbatekoa den edo nolakoa den ezagutzeko** (zuzenean parte hartzen duten, edo ikusle modura, zaintzan dauden...). Antolatutako ekintzetan **emakumeen partaidetza sustatzeko ere ez** da neurri berezirik hartzen, eta orain kultura sailarekin batean, antolatzen diren ekintzak herritar guztien (eta genero rol anitzen) interesak barne-hartzearen inguruan hausnartzen hasi badira ere, ez dago hori bermatzeko irizpide jakinik finkatua.

Duela 3-4 urtetik, (ziurrenik jai berdinzaleen aldeko lanketak bultzatuta) kultur sailarekin batean beste zenbait gairen inguruan hausnartzen hasi dira: ebaluazioak egiteko, partaideen datuak sexuaren arabera jasotzea, sari banaketetan edo kontzertu zein lehiaketen antolaketan genero ikuspegia kontuan izatea, hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiltzea... Baina beste behin, oraindik ez legoke lanketa formalizaturik eta irizpide edo neurri jakinik.

**Emakumeen partaidetzari** dagokionez, talde hauen izaerak edo barne-hartzen duten gaiak, sarritan, emakumeak talde horretara gerturatzea ala ez ekarriko du. Hau da, komenigarria da identifikatzea zeintzuk diren herriko emakume anitzen interes eta beharrak, euren partaidetza sustatu nahi badugu. Izan ere, honela posible izango litzateke euren eskaerak aseko dituen eskaintza bat diseinatzen hastea.

Herriko pertsona ezberdinekin burutu ditugun elkarrizketen arabera, herriko elkarteetan parte hartzen duten emakume asko "Kilirikupe" berdintasunaren aldeko emakumeen taldean eta "HELTA" gai anitzen inguruko helduen tailerretan aurkitzen dira (Antijumoreen taldeaz eta asanbladaz gain, jakina). Talde hauetan aurkitzen diren emakume gehienak 60 urteren bueltan kokatzen dira (oro har, jubilatuta dauden emakumeak dira). Emakume gazteenak



Antijumoreen eta lehen aipatutako Asanbladaren barnean kokatuko genituzke, eta beraz, tarteko adinean kokatzen diren emakumeen (30, 40 eta 50 ingurukoak) partaidetza litzateke sustatu beharko litzatekeena.

Emakumeen partaidetza sustatzeari dagokionez, diru-laguntzak luzatzeaz gain, lehen aipatu bezala, ez da ezer berezirik egiten udalaren partetik. Egiten dena emakumeak biltzen dituzten taldeei diru-laguntzak ematea litzateke. Kirolen sailean ere irizpide batzuk dituzte diru-laguntzen atalean, non emakumeen parte hartzea biltzen duten kirol taldeak saritzen dituzten (kirol maskulinizatuak direnean). Bestela, ez dago neurri berezirik emakumeak lehenesteko edo partaidetzak sexuagatik orekatuak izan daitezen bermatzeko. Honi begira, eta lehen aipatu bezala, ordenantza orokor bat prestatzen ari dira diru-laguntzentzat, bertan irizpide batzuk txertatuz egoera honi buelta emateko.

### 12.3. Laburbilduz: Herri mugimendua

<p style="text-align: center;"><b>AHULGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mugimendu feminista biltzeko espazio egoki eta atsegino baten falta</li> <li>• Herriko elkarten partaideen datuak sexuaren arabera banatuak ez izatea</li> <li>• Herriko elkarteek antolatutako ekintzetako partaideen datuak sexuaren arabera banatuta ez jasotzea</li> <li>• Herriko elkarte ezberdinetan emakumeen partaidetza sustatzeko neurri berezirik ez hartzea</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>INDARGUNEAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Urteetan, mugimendu feminista artikulatu eta konprometitu baten presentzia herrian</li> <li>• Mugimendu feministari esker, kaleko bizitzan feminismoak ikusgarritasuna hartu</li> <li>• Mugimendu feministak udalari emandako bultzada, feminismo gaitan konprometitu eta honetara bideratutako politikak garatu ditzan</li> <li>• Herritarren parte hartzeko aukera eta ezaugarrietara moldatzeko egitura berriak sortzeko gaitasuna</li> <li>• Helta eta Kilirikupe elkarten gaitasuna herriko emakumeen partaidetza erakarri eta denboran mantentzeko</li> </ul>
<p style="text-align: center;"><b>MEHATXUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero rolen araberako banaketa ematea, elkarten kideen artean, hauek barne-hartzen duten gaiaren arabera</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>AUKERAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko neska gazte ugari feminismora egin duten hurbilpena</li> </ul>